

OLERTI 1983

SANTIAGO ONAINDIA

NUN ZER

Sarrera gisa (<i>A. O.</i>)	163
-------------------------------------	-----

POESI JATORRA

Gabon eguna (<i>Luis Arostegi</i>)	167
Xileko langileari (<i>D. Landart</i>)	168
Erleen antzera (<i>Eusebio Erkiaga</i>)	170
Zer dan gogoa (<i>Joseba Bilbao</i>)	173
Eusebio Erkiaga-ren olerkiak	174
Azken arnasen ondoan (<i>Aurraitz</i>)	177
Erailketa itzela (<i>Aurraitz</i>)	178
Itxaropena (<i>Muniategi-tar Sabin</i>)	181
Illuntze (<i>Muniategi-tar Sabin</i>)	182
Mindura (<i>Muniategi-tar Sabin</i>)	182
Izatearen muinean (<i>Muniategi-tar Sabin</i>)	183
Baietza (<i>Muniategi-tar Sabin</i>)	183
Udaberriz (<i>Muniategi-tar Sabin</i>)	184
Neskatx bat... (<i>Igotz</i>)	185
Belaunguna (<i>Martin Ugarte</i>)	186
Udaberri-kantu bi (<i>Martin Ugarte</i>)	191
Oñazea (<i>T.Monzon-Olaso</i>)	194
So ituna (<i>Legor</i>)	195
Gabon-poema (<i>Legor</i>)	196
Bilaka ta bilaka (<i>Baraiazarra</i>)	197
Hiriko zurrunbilloa (<i>Baraiazarra</i>)	198
Euskal zeru eta lurraren solasa (<i>Josu Exea</i>)	200
Maitane-ren bataioan (<i>Josu Exea</i>)	204
Baso oiartzuna (<i>Agustin Beloki</i>)	205
Erail (<i>Paulin</i>)	209
Umezurtzaren musua (<i>A. Zubikarai</i>)	210
Ama semeak (<i>A. Zubikarai</i>)	211

Gasteiz-ko Zaindariari (<i>Josu Exea</i>)	212
Nire izkuntzarik onena (<i>Josu Exea</i>)	213
Urrutiko agurra (<i>Goiria</i>)	215
Colombia (<i>Basilio Iraola</i>)	217
Itxaroaren ildoak (<i>Anjel Bidaguren</i>)	219
Iturritxoia (<i>Gallastegi Kauldi</i>)	221
Mendietan durunda (<i>Gallastegi Kauldi</i>)	221
Euria (<i>Aita P. Anasagasti</i>)	222
Lurra piztu (<i>Aita P. Anasagasti</i>)	222
Oianak dardar (<i>X.</i>)	224

ITZULPENAK

Luzi Deunari otoi-deia (<i>T. Merton-L. Arostegi</i>)	229
Iñorentzat ez da abestia (<i>T. Merton-L. Arostegi</i>)	230
Euria zan (<i>T. Merton-L. Arostegi</i>)	231
Izangoaren gaua (<i>T. Merton-L. Arostegi</i>)	232
Neure ama (<i>Eugeni A. Evtuchenko-Igotz</i>)	233
Nun ote dago nire ontzia? (<i>Muniategi-tar Sabin</i>)	235
Nire izate berberean bezela (<i>Muniategi-tar Sabin</i>)	236
Kredoa (<i>X.</i>)	238
Sensemaya (<i>Muniategi-tar Sabin</i>)	239
Kondaira (<i>Magda Stella-S. Muniategi</i>)	240
Uraren dizdizari abestia (<i>Karol Wojtyla-Igotz</i>)	241
Eguzkiari abestia (<i>F. Mistral-A.O.</i>)	247
Itxas-ontzia (<i>F. Mistral-A.O.</i>)	247
Esopo-ren Ipuñak (<i>Igotz</i>)	249
Garbitokia. IV Kantua (<i>Dante-A.O.</i>)	253

BERTSOLARIAK

Maitagarri-maitatua (<i>Artetxe-tar Arkaitz</i>)	259
Hil da... (<i>A. Muniategi</i>)	261
Legorreta-ko Erretere jaunari (<i>Ibai-Ertz</i>)	262
Aranguren-tar Baniel-i bere jaioterriak eskeiña (<i>Usarraga-Zar</i>)	264
Yokin Zaitegi (<i>Usarraga-Zar</i>)	265
Aitor-en Izkuntza (<i>Andonegi-tar Ziriako</i>)	266
1980-ko Gabonetako bertsoak (<i>L. Baraiazarra</i>)	268
Txapeldunen azpian euskera (<i>Korkostegi-tar Xanti</i>)	269
Pago-usoak, egaraz (<i>Korkostegi-tar Xanti</i>)	270
Biotz-negarra (<i>Goiria</i>)	272
Maitasun-egarria (<i>Goiria</i>)	273
Olearen zozoa (<i>Jose Mari Azpiri</i>)	274
Maitasun bakarra (<i>Jose Mari Azpiri</i>)	276

Guda (<i>Jose Mari Azpiri</i>)	278
Kopla berriak Gabonetan jarriak (<i>L. Baraiazarra</i>)	280
Gorrotorearen sua, Gernika-n (<i>Korkostegi-tar Xanti</i>)	281

IRITZIAK

«Tene», olerkari (<i>Aita Onaindia</i>)	287
«Lizardi» gogoratuz (<i>Aita Onaindia</i>)	291
Joan Iñazio Goikoetxea «Gaztelu»-ren Olerkiak (<i>Luis Arostegi</i>)	301
Arregi-tar Joseba (<i>Muniategi-tar Sabin</i>)	312

SARRERA GISA

Olerkaritza, ez uste, ez da alperreko gauza; oker legoke orrela pentsatuko lukena. Beti duzu baliotsu esan zaar au: «Gizona ez da ogiaz bakarrik bizi». Bear ditu beste zer batzuk ere bizitza gozatu dezan noski; naikoa malako jarten digute berez begietan bizitzako goraberak, ezta arantza gutxi ere biotzetan. Zerbaiten bearra dugu, ba, begi-malkoak txukatu ta biotz-arrantzak moztuteko.

Orrezaz gaiñera, ba ditugu barnean ixakari, irriak eta leiak, ez ain onak. Arteak, ordea, Schopenhauer'ek dioskunez, poesiak batez ere, askatzen du gure naimena; olerkiak ornen ditu, zelanbait esan, ixil-azten gure zalekeriak eta griñak. Olerkiaren papera, egiaz, geienik beintzat, irudimenari askatasun osoa emanez, sorpen arrigarrietan murgiltzea duzu; eta naimena ere, lurrezko ditun zentzun-arazoak eta axolak lekarkioken loitik garbituz, goragoko kezka-jardunez arduratu oi zaigu.

Idazleak, eta kasu onetan olerkariak, ez du beretzat bakarrik idatzi bear; bere erria batik bat izan bear du gogotan. Ez, ez daitela ederra artistentzat bakarrik izan. Olerkariak eta erriak, dirudi, kate estu leunez bat egiñik joan bear dutela aurrera. Erriaren bizipenak —etxegintza, taillugintza, lugin-tza, dantza, ta abar— arte biurtzen ditu olerkariak. Artea, baiña, beti nainoz erriaren bizipen, erriak bizi duen zerbait, irudi bat, margo-lauki bat, aurrezku bat, gizarte istillu bat, naiz eresi bat... Erri-bizipena bebil dardar olerkariaren idazkortz azpian.

Urrats bat aurrerago jorik, olerkariak esan dezakegu, gaurko gaiak, gaurko bizipenak irauli bear dizkigu bere neurtitz-lerroetan; igarotakoak eta etorkizun daudenak, ederki dagoz, baiña garai ontakoak, erriak bizi ditunak eta irakurriko ditunak, gizartea naiz sendiko bizimodua, askotaz obeki. Gaurko ezpirituari atera bear zaio arnasa gotorra. Adimen argituaz eta naimen piztu-aziaz baliaturik, gauzak, jazokunak, au da, eguneroko edestia, ikusi, bildu ta adieraztea da poeta gurenaren zeregiña. Geroari naiz joanari gogo eman arren, Kandinsky'k (1866-1944) dioskunez, bere garaiko alaba dozu edozein arte-lan.

Poetak, au edo bestea izan, bere adimen eta naimenaren apurrak uzten dizkigu ondu dituen lanetan. Bere barru izatea zabaltzeari daragoio; lore bategen bere kukulua bezela idekitzen du, eder ta usaintsu? Bearko, bestela ez litzateke eder-lan. Edornork ez dakiana olerkariak daki. Zer? Eder-sorpenak urrezko azpillean serbitzen. Aldea dago, egia, olerkari batetik bestera; badira olerkari onak, baita erdizkakoak eta kaskarrak ere; zein batzuk zein

besteak, orraitio, beren barren-jauregiko ateak zabal-zabalik eskeintzen dizkigute. Au ordea beti duzu eskergarri; gizonak, ba, ez du geienik nai inork bere barruko bizi-arien zirkiñik jakin dezaten.

Arte kontuan oso ederki idatzi zuen Hegel'k dio poesia ez dala josteta, ez denbora-pasa ere. Erriak, argi dago, arte-lanetan jarri dituzte beren pentsamenturik barrukoiak, beren begi-ziztarik —barrurantzakoak noski— aberatsenak. Zer da, baiña, begi-zizta? So, geure barrura itzuliz, barru oneri ematen diogun begi-kolpe arretatsua. Edu orretan dakusagu zer eta nor geran.

Olan jokatzeko du olerkariak, bere barne-leizera jetsi ta begitu zorrotz biguna bota bertako ikara guztiei. Or guk eredu bat, Lizardi. Leize-orma ortan ez ditu bere egiñak eta zirkiñak bakarrik ikusten, idatzita, baita bere erri osoarenak ere. Or agertzen dira erti-lanetan, gure olerkarien bertso aapaldietan, erriaren pentsamentu barrukoiak, eta aberatsak, eta joriak. Eurotatik ez dugu ezer ezetsi ta urruñatu bear. Geure arima ukatzea litzateke ori.

Gizonki Plotino'k ederrari buruz: «Kolare ederrak naiz gorputz ederrak ikustera eltzen ez dana, ez dozu aginpide, epaikitza edo-ta erregetzarik ez daukana baiño doakabeago. Doakabe da ederra, eder bakarra, aurkitzen ez duena; au jarixteko erreñuak utzi bear dira, eta lur osoaren, itxasoaren eta zeruaren jabetza laga bear duzu; bai, ukatze ta ezeste orreri esker, ura ikuskatzeko bidean jarri daiteke bat».

Euskal olerkariak zuzen bitzate beren indar-alegiñak xede ori eskuratu bearrez. Lurkoi dana erdeinatzuz, aginte, diru, atsegin ta zabor likitsak saiets utzirik, ederra ikuskatu ta sortzeko alegiñak errez, biribiltzen dituzten olerkiekin euskal erria, beren erria zustatu ta zorion-erpiñeraten saia bitez. Orixe dute elburu gure lerren-katazkak oro.

Ortan jarduna da «Olerti» ekaitz larriko urteetan ere. 1959-an asia da, eta ortan jarraitu nai du aurrerantzean ere.

Jardun ortatik ez dugu inortxo bazter uzten, denontzat dugu lekua; alor-laiatze ontan bada lanabesik ere ugari; igitai zorrotza du ark, ez ain zorrotza beste onek, eta kamots samarra beste ark, baiña ez digu inork traba egiten.

Leenago ere olaxe egiñak gera. Saillelan jokatu genuen, eta mentxe sortu, azi ta trebetu ziran ainbat olerkari, gaiñ-gaiñeko poetak. Lan dagigun gaurtik ere euskal olerkari guztiok, bikain, erdiko, ez-erdiko. Denon amasa ta beroarekin jaso ta bitxitu ta gaillendu bear dugu geure poesia.

Gerozkoan, gaiñera, «Eusko Ikaskuntza»-k bere aldetik diru-laguntza gotorra emango du eta bere oizko liburu argitalpen saillean sartu ere bai gure aspaldiko OLERTI; orrela ziurtasun geiagor jarraituko du beiñola asiera eman zion bidetik. Milesker idazle ta diru-laguntzaillei.

AITA ONAINDIA

POESI JATORRA

GABON EGUNA

Zugatz orri bakoan
txori bat jarri da,
eta badoa.
Adar-puntaren dardarak
bakeago bakea.

Urriñagoko piñudiak
laiño artetik
ozta sortzen dira.

Arratsalde-bake onetan
zain dago dana.

Eskape gaiñean
euri tanta banakak
bakarrago ixilla.

Oi Gabon-arratsalde,
une geldi-geldia,
ainbeste bider izan zaitut
eta orain be, garbi ta nare,
ia lenengoz zara.

Arbola billusietan
argiak biztu dira eta kantuak.
Ez dira ikusten, ez entzuten.
Bakean estaldurik dana,
ler egingo dauan itxaropen
barne-bildua.

(1982.XII.24)

LUIS AROSTEGI

XILEKO LANGILERIARI..

Ximixta baten pare
eguzki gorrail bat ikusi ondoan,
Xileko langileria,
berriz,
gau beltzean sartu da.

Langileen kopetak behehitu dira,
haien begiak zorroztu
bihotzak gogortu
eta
eskuan zeukaten xoria airatu.

Alta zenbait denboraz uste ukan dute
Uste ukan dute bai
eguzki gorrail hori gorriagotuz joanen zela
eta zuzen den bezala
klase gabeko gizarte bat eginen zutela.

Baina ez!
Haundi-maundi madarikatuek
ez dute horrelakorik onartu
eta beren interesak zaindu beharrez
erabakia segidan hartu
iraultzaren gidariak
behar zirela suntsitu!

Beren lan tzarraren obratzeko
denak zeuzkaten eskuko:
dirua eta harmak, harmak eta dirua
Ipar Amerikaren laguntza
ez dut aipatzen Eliza...

Populuak aldiz, gaixo populuak
bere buruaren zaintzeko
Faszismoari ihardokitzeko
ez zuen deus kasik
bere esku hutsak baizik...

Eta esku huts horiek moztu dituzte
gobernuko giderrez jabetzeko
eta jabetu ondoan, oraindik
salbaikeria harrigarrienen egiteko:

Politika-gizonak hil

Sindikalistak hil

Olerkari eta kantariak hil

eta bizi gelditu direnen saria:
desterrua edo presondegia
eguneroko miseria.

Geroztik,
Xileko langileria doluminez dago
eta ba daki
zeru gainean ez duela izarrik ikusiko
askatasuna ez baitzaio zerutik jautsiko
baina bai, lur hontan aski gudukatuz
zuzentasunak baitu, egun batez, irabaziko!

Xileko langileria
lurrera eroria
eta
Euskadiko langileria
zutitzen hasia
Zein diren elkar iduriak. . .

Elkar iduriak!

1975.VIII.15-ean

LANDART

ERLEENANTZERA

I

Iturbekoa

(Jose Mari Arizmendiarieta)

Basetxe zuri haretako
mutiko zolia,
etxauntzea uzteko
goiminez igurtzia,
Iturbe izan zan
haren sortokia.

Gaztetan, ume artean,
basetxearen gerizean,
lanak eta pozak
umetako gauzak
beste ames batzuen eskean.

Ikasi
ikusi,
jakingurea,
bizitza
barriko
heldubidea.

Dunbotsak mendian,
suagak urian,
gerrate zital mingotsa
heriotza ugarian.

UU uuu u, u u uuu u
ai ai ai ai ai ai
ene ene ene ene ene ene
o o o nahikoa da odolik;
gorrotoa bego,
ganezka egina
honezkero!

.
.

Jauna zuekin.
Jauna zuekin. . .

Goizean otoi
ta gero, ekin!
lanaren santu-gatza,
ez usteltzeko
behar dozuen
lan gozo ta latza.

Mendi heze arteko
uri politean
abadekuntza hasi
ta hantxe amaituko,
borondate betean
zintzotasun batean
Arrasatezale,
Arrasaten beti
Jose Mari Arizmendi.

Lan lan
eta beti
lan, lan.

Argitasunez buruak,
lanerako prest eskuak,
bakea gizon guztiengan;

bake horretan
kirola, eta lan
lan eta lan,
la, beti
lan.

Aintza zeruetan;
maitetsuna, jaiengan.

Geldia, atsedena
ez zan haren griñea, uzia;
atseden egiteko...
han, azkenean, Parusia.

II

Eztigintzan
(Biktoriano Gandiaga)

<p>Behinola... Atx erpinetan harriak pilatuz biribilduriko prailetegian ezagutu neban gaztetxu gozo, ixil, oldeder, erditze-minetan murgil, ameslari ta otzana, behinola, Gandiaga.</p> <p>Gure mintzo beheratuaren bizigureak sorturiko bilera minberatsuan batzandu ginan, aldi baltzeko laino artean Aloñapean, bihotzak mintz-zart, lilura ta bildur arrotzen agintepean orduan eta gaur bere, giza —bildurra ta giza-kemena burruka etenbakoan, ene Gandiaga, bat ete da gizona ala bi? ta are hiru bere? asmo, gurari goitar, hegadun hegalari</p>	<p>kemen, lur, grina ta odola narrastari; behinola...</p> <p>Gerogarrenean Bizkaiko Larrako komentu aldean ikusia, —apaikari ni— ta Gandiaga olerti-saridun, gogoa pozez igurtzia, baina atsekabe txiker batek zuloa begi sakonetan, arean beste olerkari batek jararik egin ez eutsaneko samina behazun-tantetan.</p> <p>Anartean bezuzik txanbelinena edergoaren altzora ekarri, «Elorri» goi-gizonaren lurruna amaren berbeta biguna buru-belarrian barriro, zeruaren urruna geureganago geunkan zorioneko egun haetan.</p>
--	--

Behinola...
 mintza-ortzian
 izar dirdiratian
 zeruko intza,
 gogoarentzat ezti;
 aize, arimearentzat.

Behinola
 bezala
 emoiguzu,

Gandiaga,
 elorri gazte,
 elorri barri,
 gogo igarraren
 asegarri,
 guretzat ezti
 txertakari.

III

Izurtzan jaioa

(Nikolas Alzola Gerediaga)

Pagoak orriz jantzi
 —jantzi diranean
 aldegin dozu, alde
 ixil-ixilean,
 saminez lotu gara
 euskal-alorrean,
 ta ustekabea.

Gizadi sail handian
 banakako ume,
 lurtar baina goi-aizez
 sendo eta xume;
 lehengoez gainera
 barri dan hutsune,
 maitezko lokune.

Orainaz ta geroaz
 barrua urduri,
 gizon bakotxak dauka
 misterio txuri,
 misterio horrezaz
 galdeak zuk guri,
 ames ta gurari.

Ederrak ikutua
 arima zurea,
 begietan zenduan
 margo-dolarea,
 lan txukun zuk bihurtzen
 zeru lurraldea,
 atal eta alea.

Goirantz abiauteko
 azkona bezela
 izpiritua zorrotz,
 gorputza kartzela;
 baina, bidazti zintzo
 maite zenduzala
 herri ta euskera.

Euskal-bide horretan
 zindudazan topau,
 harako ilunaldia
 bai egun ta bai gau;
 zerbait argitu jaku
 oraingoan lur hau;
 amesgurea dau.

Jakinguraz beterik
 gogoa itzarri,
 bidaldian batzaile
 inoiz ezin geldi:
 ele, ipuin, hizkera
 txorta zoragarri,
 arduratsu jarri.

Atalak atalkatuz
 osoaren bila
 zure jardun ekina
 apal ta ixila;
 orain burutu dozu
 ardatza, harila.
 Azken Biribila.

ITXAS-ARGIA

Itxas-argia,
illuntasunean argia,
bakartadean bizia,
zure dizdira ederrak
alaitzen dauz biotzak.

Kaian sartzean,
argitxoa ikusita,
bidez eltzean
ikusten gara batuta.

JOSEBA BILBAO

ZER DAN GOGOA

Bidea luzea da.
Gure elburua Aixerrota;
landak nekez igarotzen doguz,
baiña biotzak alai daukaguz,
eta ba-goaz aurrera jarraituz...

Alako batean,
landak begiztatzean.
uste gabeen,
or ikusten dogu:
Aixerrota!

Pozez beterik,
Alderdi Eguna ospatzeko,
Estatutoa lortzeko.

JOSEBA BILBAO

EUSEBIO ERKIAGA-REN OLERKIAK

Anton Larrauri-ren doiñuentzat

Itzali ezina

Utsunez dugu etxea
asabak il bait ziren,
soñez ez ditugu, baiña
aien gogoa emen.

Bazter oiek zer diote?
zer diote erriek?
mintzo ixillez zaizkigu
mintzatzen beti aiek;
sendoa den mintzo gozoz
mintzatzen beti aiek.

Aurretikoen
argi
itzali eziña.

Adaxka berria baitu,
zuhaitz zaharra zaitu!

Argi, argi
itzali eziña.

Eman eta zabalduko
esku eta zubiak,
alare etxeak begoz
lurrari atxikiak;

mendez-mende dirauanak
beharra du jarraipen,
bide jakiñen lorratzez
berriak urraturen.

Argi, egiña
itzali eziña.

Portu Errota

Errota, «Portu-errota»
aran baketsuan,
itsasoaren indarra
galtzen dan lekuan.

Gernikaldeko arana
urez, lurrez zelai,
ba ditu euskalerrriak
milla mendi garai.

Eguzkipean sarri dago,
laiño artean sarriago:
«Portu-errota» ate zabal
adiskide jatorrentzako.

Indar ta bakez bazter eder,
zureganako naiz zoroa;
eio ta eio diharduzu
euskal-lurreko artoa.

Bizitzako errotan
eioko gu ere,
askoren orde
bat bihurtuko
gu guztion ore.

Ene «Portu-errota»
millazka artean,
lehenez bakar izana
orain inguru betean.
Kla, kla...

Errota, «Portu-errota»
aran baketsuan,
itsasoaren indarra
galtzen dan lekuan.

Leku-lekuan, leku-lekuan,
lekuan...

Gernikaldeko «Portu-errata»
aran baketsuan.

Dirdiz

Muiño orretan
agertu ornen ziñan.

Agerkizun berri
opa dizut nik:
Gizadiaren arbola
illunean, ikus
ditzan gizonak abar guztiak.

Doiñuan batzarre
kantuz ta jauzika gizonak
baita ixiltzen ere
lurrari atxikiak.

Orain eta beti

I.—ERESIA

Itxaro lore genuen seme...

Gazterik ederrena zen,
sua zeraman begian,
osasuntsu zen mutilla
illik datza mendian.

Aidean ez da txoririk,
denak abar-artean gorderik.

—Aberriaren seme,
bihotz zabaleko,
bizia eskeiñi zenion eta, orra,
odolusturik zaude.

Aidean ez da txoririk,
denak abar-artean gorderik.

Gazterik ederrena zen,
sua zeraman begian,
osasuntsu zen mutilla
illik datza mendian.

Txistulari jauna
biribilketa berri
emaiguzu beti.

Doiñua dugula
dantza ta kantu, euskaldunok
eta bitarteka
atzaparra lurrean
ixil eta geldid
txistu-otsaren adi.

Bakea gurari, bai!

Artaganean agerturik
ametsa, egia bihurturik.
Esana ote, egia ote?

Laiñoaren truke, eguzkia;
amets-orde, egia;
gizonak du premia.

—Aberriaren seme eder,
bihotz zabaleko,
bizia eskeiñi zenion eta, orra,
odolusturik zaude.

Gazterik ederrena zen,
sua zeraman begian,
osasuntsu zen mutilla
illik datza mendian,
ez du odolik zaurian.

II.—ZORTZIKOA

Egunsentiak gauazkena
puxkatutzean ozkarbi,
neska-mutillak dantzan ari
eta kantari.

Gazte eder bat galdu zela ta
atsekabetan ginen sartu,
uts aundi orren
bete eziña
aberri-miñak
gaindu digu.

Aurretikoen maitasunean
aien etxean azi, bizi;
gure Erriak eskatzen digu
gure lana ta bizia
atergabe,
ta saririk gabe,
zut irauin dezan jaun ta jabe.

Aizatu txalaparta
eta alboka,
jo txistua ere!

Gazte bulartsu arek
erein azia, orra, erne.

Egunsentiak gauazkena
puxkatutzean ozkarbi,
neska-mutillak dantzan ari
ta kantari.

Geurea zaitugu, aberri gozo,
egonleku xarmagarria
menderik mende Euskalerria.

Aberri, Aberri!
bakarra zara euskaldunontzat
orain eta beti.

EUSEBIO ERKIAGA

ASKEN ARNASEN ONDOAN

Zer ardura da mendi-mendian il arén
Oñazezko eguzki-sarera gofian:
— Maitasuna odoletan ezo,
Gezi zo'otzaz bulara zulo
Azkatasun-bideren unerik latzenan
Orbange, aratz, izanezkero biotza!

Tamal-tamal egoan mendien gau-ertza.
Azken-arnasen erosta, samin gogoan:
— Txede baten itxaropenean,
Arantzaz atsekabe, pikea.
Negar-malko gardenenak zaurien laztan
Otoitz-ganean ixilaren atsedena.

Goi-laztan aizearen ikutu biguna.
Zeruen garbia bioen itxaroa:
— Er'uen itzala garbai inguru,
Oñazea gentzan atsedendu.
Ene biotz-taupadak bakartasun itzal
Beliraun zear ixilaren besarkada.

Arima garbien atsedena poz izpi.
Ene aiskide mamin beti biotz-garbi!:
— Laztan artean egia atsedén,
Oñaz-bidea nekien azken.
Tamaltasuna irudimenean zelai garbi...
Gogo baten zuria utsan egaztadarik.

A U R A I T Z

ERAILKETA ITZELA

(Gernika sutan)

Guduteko arratsaldea
iskillu-artean itun
Baso odolduak-zear: ordu
latzen etorrerak burrun.
Gudoïñeko ots eta irrintziak
eriotzen iragarkun;
Uri ta baserri ebillan
nekea, gogoen lagua.

Aberri-bizkar, zaurituan
artega askatasun-miña.
Auzka gogorretan, oldartsu,
gaztediaren kemena.
Bake-egarriz lanean zintzo
ziarduala erri leuna,
edoïak-beera, orroeka,
eldu zan amurru illuna.

Erio-zemaia zabaltzen;
gudu-oiñetatik asau,
gure etsaien otsean, doixtarrak,
goi-indarrak nai zitun muxtau.
Euzko-gogoa illuntzearren
erriak apurtzea arau:
Gure Erriaren pizkundez
gura eben biurtu. gau.

Iketa ugariago zeiten
etsaiak odol-egarriz,
asteleen atsalde bat auta
eban, gaiztakeri ikasiz.
Albo-erritarrak azokan
zirala oitura-neurriz,
egontzi bat eldu zan egoi
-aldetik, taiu izugarritz.

Ordu nekatsuen gezinari,
 opageia astiz so eben...
 Ez egon aldezkairik, nasai
 erailketea bete eikeen.
 Eriotzez zamauta, berein
 egontzik, irunen-irunen,
 iru ordu t'erdian burdin
 -jasa ez ebien eten.

Uriaren bakea kalez
 igesi, zauri ta bildur:
 Izuikara biotzen jaube
 ebillan Erioren ur.
 Lekoreratzen ziranentzat
 iskillazkarrak goian zuur:
 Zuzen-eske errugeen odola,
 zauri-gordifñetan, itur.

Aleuni ezarri autsazan
 erpe zitalak gorrotok.
 Ez eutsan emon errukirik
 zaar, ume, emakume ez geixok.
 —Ez eban itxi aratuge
 etxe ez bazterrik Eriok—.
 Aiots gorien menpe igesi
 ekusen bizitza orok.

Suzko orduen zalapartadan
 zoritxar oro bereber:
 Soin apurtuen oiñazeak,
 zotinka tatarrez, iltzer.
 Neke danen erdien amen
 negarren kupida ziper.
 Txarkeri oron edena uste
 -arte etzan Erioa asper.

Menpetzailleen ezpata ankerrak
 zearkatuta biotza,
 seme illak oiñetan, gera zan,
 aul, Euzkadi'ren biotza.
 Bake erailduan negar eta
 negar, eldu zan arratsa...
 Odol-egarria ase eziñik
 urran ebillan arrotza.

Sendi zuzituen auenak
 samintsu ebizan, bakar,
 galdu-billa, gabaren kolko
 baltzean, arruak-zear.
 Euzkotarron erri gurena
 neketzan kiskaltzen, su-gar.
 Zut irauan Euzko-gogoak,
 barano oro arriabar.

Erroma sutuz gero Neron
-antzera, begikuna aizun,
menpetzailleen buruzagiak
opagaia so-ban lizun.
Jakingeen aurrean erruge
ager guraz, estalkizun,
guzurraren zikiña, mundu
-zear, ezarri nai euskun.

Jainko izenaz menpetzailleak
egin-zauri larria ilkor,
Euzkadi'ren biotzak odol
dariola dirau, minkor.
Alde bitako neba-arrebak
alkartu gaitezan bizkor:
Ez da biziteko gai bakez
dirauna, koldar ta elkor.

AURRAITZ

ITXAROPENA

Bai dala ona
larrosazko elburu
naiz nekaldi orotan
gogoz, arduratsu,
(mendietan, zelaietan...)
bai dala ona, guztiz,
arnas artzea
biotzari egaraziz
itxarozko goietan!

Ez utzi itxaropenari
gogo makalezko alamenduetan
bertanbera eroriz
burua galtzen.
Deusezpen uts-utsean
ez ba, ez utzi
erdoituraz usteltzen,
bidea irikiz ondamendiari.
Munduko eragozpen,
bideko sastrakatan
naiz lur ikararik gogorrenetan
ez ba utzi iñolaz,
amor ematen etsipen baltzari.

Itxaropena sartu biriketan
ta, iaso bizitzaren erpiñera,
edo baita edozein amillera;
maitasunez eroan bai, gogotan,
menduak berrituz, egunik-egun,
eroan lantegira, gizartera,
gizonkiro azaldurik edonun
bizitzako goibera guztietara.

Galtzarpean naiz eskumuturrean
eroan bai, zentzuzko kemenean,
eroan kolkoan naiz sakelean
erabillirik sinistetsu, beti,
zeure biotz, zeure esku artean,
gerta dedin elburuzko ilinti
aldiak opa leiken gau beltzean.

ILLUNTZE

Sartaldeko osertzez, laiño gorri artean,
arratsaldeak dagersku bere urreteria
eguzkia itxasperatzen dan bitartean.

Ortzi zear egazti bat dabil goi aldean
ta, musuzapi dirudin egoz, agur dagi,
lotarako asmoz baso-aldera doanean.

Geitzen ari da ixilla illuntzeratze leunez
ta, ortzian, izar bat edo beste, bakanki,
agiri dira illargiaren goi-aldamenez...

Ontziak ere atsedean artuz, kai barman,
ur geldiz, amesten ari dira kulunkari,
ugintxo ta arrain lotaratuen mezuan.
Bizitza da ioan-etorritzko ibilian,
uginiñ ugiñera bezala, goiberati,
aldi-aro bakoitzaren igitze-zorian.

Itzala tarteka bizitzako ur gaiñetan;
berein margo ta ameskizunezko osertzak
gizon orenen biotz-barruko egaletan!

MUNIATEGI-TAR SABIN

MINDURA

AIZE itun, mindua,
Bakartiaren gogoan;
(Euri, izotz, lañoa)
Egalpe illunean;
Ez gaurko, ez biarko
Itxaropenik gabe,
Maitasunik ezaren
Utsune aztunean:
Argi otzezko negua,
Biotzondo zaurituan!

MUNIATEGI-TAR SABIN

IZATEAREN MUINEAN

IZATEAREN muinean
egun argi, gau beltzez,
naizenaren naizena
iturri garden, maitez,
gogoz dabilta taupaka
biotzaren odolean;
naizenaren naizena
dabilta bai, betiraunka,
izantza ederrean,
egarririk onenez.

MUNIATEGI-TAR SABIN

BAIETZA

Bizi Izatearen ederra!
Aizearen ego, eguratsez,
uraren betiko ioanez....
zelairik zelai, ibarrez,
une bakoitzeko etortez,
itxasoa, zerua, luna,
argi ta margo leiaketan
eguntzen diran betimiñez!

Ai! Nola ez! Bai, nik baietza
baietza damaiot izateari,
baietza damaiot biziari,
esker onezko igarotzez
aintziñatearen aintziñatez
bere zauri ta atsegiñez,
aunitz mende ta gizaldien
zuztarpe ta burubidean
izakizunez oñarritu,
ta, biziz, nortzen gaitun arnas,
eguneroko itzartzeari!

MUNIATEGI-TAR SABIN

UDABERRIZ

O, ene lur ta, biotzeko baserri!
So dagitzut so bai, gozoro, zuri.

Lau zugatzondo, beste lau bat soro
Ta, Udaberriki iantzia osoro...

Larra ta zelaiak, itxaro-lorez,
Intzaren besapetxoan, ioranez.

Zer ote dio kukuak aritzari,
Zer papargorritxoak maiteari?

Zer aizeñoak kutunki, loreari,
Bai madari eta, bai kerixari?

Zer inguma pertxentak bereari,
Panpiña dirudin egartzariari?

Zer izaki bakoitzak ezkutuki,
Zer biotzik biotzera alkarri?

Indar berritzerik gozoenean,
Oro amets ta. lillura danean...

Bere ezkontza, eztaietarako,
Ta, bere eskaintza gurenerako...

Izadia bai dala eder iantzi!:
Oro zillar ta, oro urregorri!

MUNIATEGI-TAR SABIN

NESKATX BAT...

Mintzo-gai olerkia,
biok autu eztiz,
aldatz pikean gora
—euri-tantak aora—
giñoiazan astiz.

Goi-bidetik neskatz bat
yatorku kantari:
kaikuz nasai jantzia,
samur bere begia,
ulea aizeari.

Barrero be, kantari,
doa bide-beera...
Eusko neskatil oro
—anbat dituzu txoro—
ba'litaz antzera!

—Nundik ator, neskato?
nik ari itandu.
—Goian ditut aitonak,
ta guraso kutunak;
areik ditut poztu.

—Mao gorri az, neska,
ibilliz, begituz.
Oi, eder! izan adi
olan biotz-guri,
aita-amak laztanduz.

I G O T Z

BELAUNGUNA

I

ILLUNAREN

inguru-uztai itxituran,
barneko utsaren
zutabe irudipen goiengoak,
ezkotasun izpi baten etekia bailitzan
ttantto txiker
nabaria.

Uneoro izpika
egitura pizten;
pizten da borobiltasuna artzen
arnas-beta bakoitzean.
Zabaltzen...
Loditzen...
Mugira bitxiaz kizi-pikorkien
aria...

Bai ote dun,
ez ote dun;
punpuillu aizez betearen azalean,
sentiera
aurpegia.

Loditasun inguruguna parpaillean
bizi-ñabar,
bapaiñu lurriñaz lurreratze kabuz,
egoera ximplea
luzabide doa;
argizari txorten
azken ttantto ildora.
Bare ezik, motel etenaz
jalgi da itokin
gidaria.

Jalgi...
Luondo gordiñaren mantupe beltzera.
Ama-lur otzaren
errai garden,
da antsiz
ebakira...

II

BULARTARTE OPAROAK

lur-etena emariz,
arresi otz itxituran
argi-ñabar egarriz...

Ur-negar xinglea errotuaz,
iturri min-miña
zirikil biren
biurrera.

Azten-azten,
bitxiz jazten;
aopeko borborioz,
ezti usai giliberaz,
zori-bete egoetan
itxas-mami
urdiñera.

Onats abian irmo
bizi-ari itxasgora,
txuri-urdin maindirea
koxka-moxkak
aparrera...

Luzean larri,
lodian sakon,
zearrean baikor;
begipeko
zabalera.

Ba'du ezirik,
ba'du gazirik;
bai-eta zurrunbillo naastuek
indarrik.
Asarrez lur-magalak
zirdinduko ditu,
arri-mokorrak urratuko,
ta orrue txistuaz,
zinzurra gordinduko duen arren,
beti ere begi-bete,
beti ere;
gilibera...!

III

ZAPELAITZAREN

ega-zapla zatatsu ondorio,
lamiaren soñeko mendel luzea
begipetik sartalderantza,
lin-oial txuria
erdoi-moltso arre-illun naastuan.
Onen dilindura orraziak,
argi-bete zabaldia
lauso-lausotzen daramala,
oskarbi urre-markatsa
arrats-gunak gain-azpi
itzuliaz.

Lausotzen;
zillar-bizi aparretan
itxas-magal txuri-urdin txaltaria,
argi-begi zearrean
ganduaren zapiak
estaliaz.

Zeru-lur nasaien
ezpain-tarte irikia ere,
uin-landar itxuaz,
baikor elkargana bilduaz.
Eta mintz biren ezkoa
gorri-more beltz,
apur-apurka marrazten daramaio
argiguna tarte medarra
itxiaz.

Zillar-parpaildura dirdaitsua
bare-bare illari otzea,
arras
itzaliaz...

...Belaunguna neurtua;
jakiñeko jo-muga itxuan,
geroaren egarazka ariñari
leiatilla
irikiaz...!

**URKIAGA'tar ESTEPAN,
«LAUAXETA» zanaren aitamen**

Txori xotilla txiunka meeaz;
Mungia'n orrek kabia.
Lau aizetara oiartzun eztiz,
Eusko-lurrari jalgia.

Gaztetasunan eztarri zoli
lillurakorra zurea...
Ezti-liketan murgiltzen ura,
etzitzaizkitzun luzea...

Irmo ziñan-da, mendirik-mendi
egaraz ziñan txoria...
Ardi-laruzko otso-aldrakak,
kendu zizuten bizia...

SU-IZKILLU beltzak zarata.
Ospel Araba-zeardia.
Eiztari ankerrak ase-ta,
leendiko odol egarria...

Aiesi barne illunkoa.
Emen, gorputz-illa dardarka..
Odol erreka bor-bor doa,
lur autsean biur-biurka...

Eta teillape zirkillean,
enadatxo bat artxuloan...
Dena ikusten ixillean.
Ixil, ta jasoaz zijoan.

Errukarria lotsa-lotsa,
begi-beteko malkoaz,
ereskidean odol otza
mokoka-mokoka jasoaz...

Jaso ta ereiñaz beingoan
inguru-zelai muskerrera.
Ore gordiñak naas daroan
azkarriaren arabera.

Ta txori minduan aal utsak,
geroarentzat etor-begi...
Eusko-lur, ta biotzak,
orra loretu txuri-gorri...

ZURI «LAUAXETA»
eskeintza urria.
Loreen ezta...
Biotz taupadaxka
xotillaz naasian,
BERPIZTE ALDIA...!

Izurriteak leenik kizkurtu, gero negu ozkirriak
zurtzaro barna zapuzgiroak, zigorpera gaitzeziak.
Geroztik or dira lore dizdiriak,
amildegi beera indarrez jaurtiak.

Zuk eman zenigun beingo batez, egitazko elburua.
Esaaldiaren joskera soillaz, muin-muiñetik ausnartua.
«EGUN OBEAREN DEIA DA NEGUA,
ITXARO BARIK EZ MAKURTU BURUA».

Zabalduriko sare estua, aberri-miñak erre du.
Moztu nairiko zain gaixokiok, orra berriro loretu.
Ta zure oroimena degula eredu,
belaun koxkor biez lurra jotzen degu!

BAI, «LAUAXETA»...
Belaun-gorritan auspez gauzkatzu.
Zure odola irentsi zuen lur ezkoan...
Lotsaz, baiñan esker oneko,
oroitamen xotil bat kolkoan...

...uztarpeko bizikera etsian;
askatasun giltzaren argi dizdira
Zeru aundiak...
Gogo-biotz, itxaromen oztin,
zure adin-aldiko sagar umotuok,
pipitta muxu-gorri gordin,
eta kukullu-zorroan direnezko
lore jaioperriak...

Agur eta goresmen,
antsiz urratzen luzaroan.
Egarazka beartuaren itxaroz
ortze urdiñera begira,
elkarrekin betiraundeko alki oparoan,
atseden dezakegunezkoan...

MARTIN UGARTE

UDABERRI-KANTU BI

I—IZARDI-BERRIZTE

Pazkoaldi xotillean,
atzimurka ixillean.
Aldaaroan sena txikerra,
izaki bizen muñean.

SAATS-ONDO biur korapildua,
lore-motots orixkak lertu berri.
Azpi-abarretan orri-niniak zartaz,
izerdi-berrizte adierazgarri.

Zerk, gldi eziñaren dirdira gilia?
Billuztasun lotsaz, orri berrixkoak...?
Ala, lurpeeko zaiñal mirestuaz doan
ur txaltarian ikutze ezkoak...?

Ego-puntuaren xaplaka ariñak,
agian, zillean lertu gesal urbildua,
ta mintz biren tarte itxuan iralgi,
aztalez-aztal, lika-jario neurtua.

Bat-bateko lorezte... Muskil-ernetze alde.
Onekin leloen-lelo, kuku etorrera.
Geroxego, aroaren kurpillean;
negu-leen zaputzaldi itzulera...

Lore erroak ezegindu.
Orri muskerrak kiribildu...
Azkorraldian arnas-pilpira,
barne-zillera opildu..

ORRA bakoitzok,
mundu laburra:
Gaur algara.
Biar negarra...

Eguzki antzo laiño moltsoan,
sartu-irtenaz bein-beingoan.
Au duin aldakor,
au bezin zoro,
argiaz naasi
illuna gero...

Eta poz-erraiñu giro amestia,
aldaaroak mokoan nora-ara.
Argiak illargi laurdenki gisa,
illuntze ganduak, janaz darama...

AMA-LURRA

Onats;
AMA-LUR onbera,
mendeen jarraian samiñez
urratua.
Indarraren makillaz
alki biren legepera
uztartua...

Zapalketa antsi
gaiztoaz,
eta gorroto gesal
mixtoaz;
lertu zaizkio errai barneko
zain maratillak.
Bertandik,
negar-ixuri popillak,
bular-tarte zabalean
iturri-biziak
sortuaz.

Ezten arrotzak
saiets banatandik,
oin-semeon aitzomakil erausiak
osterondik;
lurrondo xaroari lau aizeetatik
erasoa...
Eta garratzasun ozpiña,
negar-iturri txorrio
tanto-tantoka loditzen,
errekatxo beera amiltzen;
ibai-osintzarrok gañeztu dute,
orpo-txorkatillen
ezegarri zueneko
itxasoa.

Emen ere;
bakerik eza,
bat-bateko bultza;
ibai-adar-gora murgil eziñakiko
borrokatze
gaiztoa.
Oraingo gora-legeak arresi,
ta zentzu gabeko ibil-ibilkan
bearko dira etsi;
muin-muiñeko negar putzuaren
okara-palastaz,
arnas-gora jiratu eziñean
dagoeneraiño,
AMA-LUR
gaxoa...

MARTIN UGARTE

OÑAZEA

*«Gure Saint-Pierre Jaun Apezpiku,
buruzagi ta irakasle zenari,
biotz-biotzetik».*

Oarra. Saint-Pierre Bilafranga-n jaio zan 1884-3-28an. Larresoro, Baiona, Tolosa ta Erroma-n ikasketak burutu ondoren, Baiona-n, Hazparne-n eta Apaiztegi Nagusian egin zuen lan.

1914-1918ko gudatean gudu-oĩñean ibilli zan, eta gero katigu egon zitzaigun urte-mordoa. Gizon jakintsu ta trebea. Baiona-ko gotzai; berton il zan 1951-12-18 an.

Euskaltzale fiña. «Eskualduna» aldizkariaren asi zan euskeraz idazten 1914an. «Gure Herria» berak eta beste batzuk sortu zuten, 1921an. «Herria» asterokoa sortzerakoan ere parte berezia artu zigun. 1949-10-21an euskaltzain aukeratu zuten. Mugaz emendiko euskal idazleen artean, emengo gerra aurretxoan, «Euskaltzaleak» bazkunak jarritako «Kirikiño» sarietatik bat eskuratu zuen, Bilbo-ko «Euzkadi»-n argitaratu zuen lan baten bitartez.

Beronen eriotzaz gizaseme jator, langille ta euskaltzale aundi bat galdu zuen Euskalerriak.

T. Monzon-Olaso-k urrengo amalauko au eskeiñi zion, 1952an, «Gure Herria»-k ospatutako omenaldian. Onela dio:

A. O.

Sar zaite barnerat, anai Oñazea!
Zure zai negoen, illundu duneko,
Ar zazu nerean atsedean ta bero,
Zuk eginen nauzu, nintzen baño obea.

Zatoz gaixo lagun, oteaz betea
Odoldu nazazun besoetan gero.
Yainkoak igorri zaitudan ezker
Etzait beldurgarri zuri urbiltzea.

Sar zaite ta jarri... Arto ta esnea
Emanen dizkizut sutondoan, lagun.
Ta gero, ixillik idekiz atea,

Irten gaitez biok, anai Oñazea,
Ta goaz eskuti, zuk nai bezin urrun...
Ar zagun kantari gorako bidea!!

T. MONZON-OLASO

SO ITUNA

Ortzian lañorik ez
—leio muga-gabe—,
dizdiz milaka begi:
neska leio-zale.

Kuskus, ixil, leiati
begira, begira;
ikusmin zirrarratsuz
aztertzen lurbira.

Zeri so ain luzea?
Zerk odol bizitu?
Zer guraz, erne, zorrotz
lur au arakatu?

Burdin eztandalari
izaki eraile...
Mintz edendunak polpol...
Uso otzanak alde...

Negar-errotarriaz
eioszen bizitza;
odol gordin, mingorraz
leertzen biotza.

Odei goibel, lodiak
—negar, odol lurrun—.
Antzi garraitsuak,
asazkatze astun.

Neskatil pinpiriñok,
kuskusari mando,
ikusmin au garratza!
Itxi ortzi leio.

GABON-POEMA

*Illunpean ebillen erriak
argi aundi bat ikusi dau. (Isaias 9, 1)*

Gizona lurrean
bidazti antzitsu;
arnasaz puztuko
globoa.
Gora ta gora nai;
baiña, zast!
estanda, utsitu ta
beera.
Gora, gora nai!
Ezin. Beera dator.

Beea, argi bako
trokarro tristea.
Otz, ezo, lokatza...
Besoak kurutzatu;
gorputza biribildu;
burua oiñetan.
Zirkiñik ezin.
Adorerik ez.
Argia falta,
arnasa.
Giarrak gogor.
Odola geldi.
Beroa bear,
beroa.

Noizbait dager
goitik argi
zorrotz, mee,
erraña leun,
bizigarri.
Laztandu dau
giza boila...
Zirkindu au
motel, poliki.

Edatuz doa
argitasuna
troka baltz, itsu,
itunan,
dizdiraz, beroz
bizitzaz, alaiz,
ustez beteaz
goi-beak.

Zuzpertz da
giza kiki;
puz globoa.
Gora, gora
ortzi-ego
zabaletan,
argiaren
sorburuan
pulunpatzera.

LEGOR

BILAKA TA BILAKA

Erleak hor bilaka
ziztatzen errime;
bide bila milaka
euskal gizaseme!!

Hegalari dardati
lilien ikerle,
nora zoaz nigarti
marmarrear, erle?

Hegan zara ibiltzen,
loreñoiei txera
haien altxorra biltzen
urduri antzera.

Landako belarditan
duzu jostaleku,
lur apaindu argitan
biltzen lore-zuku.

Lore-zilari munka
murgilduz lizunkoi
muin-muiñean xurrunga
zabiltza zeurekoi.

Hire inguratze hautsi
gartsu ta berritsu!
Bitxi malguz haiz jantzi
burrundari sutsu?

Hire lore-irritsa
izurretan ase;
barneko urre-litsa
meatz-hari heze.

Bitxi-lorreatan ernai
lorerik lorera;
eder-minetan dirdai
ernaltzaile lera.

Hire irrika urduri
atsegin zalea
—giza-grina iduri—
muin dastatzailea.

Erleak hor bilaka
ziztatzen errime;
bide bila milaka
euskal gizaseme.

BARAIAZARRA

HIRIKO ZURRUNBILOA

Kalea, hiria,
ildo galduan doan
horronte-ziria.

Izen gabeko golko
xiñurritegi moltzo!!

Beruneko espaloi
etzanen ertzetan
izukaitz, zutik gizandiak.
Kolare desberdin, egitura trinko
adreilu ta harrizko
gorputz lauko;
bloke astunak
porlan bihoztunak,
kutzak eta kutxak
kaiola antzo,
lerro deslerrotuetan harro
ihauteri-mozorro...

Aho ta begiz orniturik arpegiak
betsare berde, urdin argiak
itxi-irekian garraxi tarratatsuz
egunari agurka,
nahi nagiak ateratzen
dabiltza arrausika.

Hiriko etxe kaleratuak
hiriko etxe kateatuak,
zurrunbilo zorabiagarrian
katabegi soil izateko lotuak,
beren beretasuna
banakotasuna
galdurik, puzka arrunt
moltzokari bihurtuak,
lerroaren lerrotasunean
errotuak,
oreka gabeko haundi itsusian
desitxuratuak,
korapiloaren bihurgunean
suntsituak...

Lehen, txapel gorri makurrez
edo ta arbel-ttunturrez
apaintzen ziren.
Orain, haundiaren haundiz
mamutzar burumotzak,
lur-bizkarraren goranzkako
eraskin tzar kamutsak.
Mamu-gorputzak
gizontzi hotz hutsak
burni-basoz goiak
basoak, metal-besoz
ez edertuak
baizik adartuak
tresnatuak;
armiarmen zirkuko
trebetasun-hari
burdin-hezurrezko
dorre zintzilikari.

Hi haiz hiritarren
irabiatoki
higidura larriaren
asfalto-antzoki
ibiltze azkarraren
eremu jendetsu.

Hire erraiak
tren-errail
autopista gurutzatu
oinezkoen espaloi
gauza utzien
ondakindegi loi.

Denak sartu dituk horra
hortxe aurkitu nahirik
ondasun ugarien altxorra.

Tira sorgindua duk nonbait
gizasemeak hire lilura mugikor
zurrunbilotsura erakarteko.

Korronte bortitz nahasia
sukarrezko zoramen gazia;
arrantzale harrapakarien
ur handitako lera,
dena murgildu duk
hire soin-barneko kalera.

Este meheak, bihurri ta meharrek,
ondakintsuak,
zain korapilotsuak
trimilka, moltzoka, garxaxika, orroaka
zeharkatzen,
gurutzatzen haute...

Kalea, hiria,
ildo galduan doan
korronte-ziria.

Izen gabeko golko
xiñurritegi moltzo!!

BARAIAZARRA

EUSKALZERUETALURRAREN SOLASA

Kaiolatik ihesi
aidean jostari
txoriño baten isla
pinpirin ageri.
Ohe apatz lausoan
hoa kulunkari,
hegazkako kantuan
askatasunari.

Oztoporik gabeko
maindirape urdin
bazter-kolperik ez den
hega-pista berdin;
margoak hau salatzen
alái ala sumin.
Egin irri xamurki
xoriñoa dadin
gaur zutaz maitemin.

Zelatari ahaltsua
 goi-egoitz ernai,
 behatoki dotore
 ikusteko zernahi.
 Gurean ez ote da
 zuretzat edergai
 margoz alda zaitezen
 ta alai egin dirdai?

Euskal lurreko sabai
 gure estalki goibel,
 aspalditik darizu
 zuri herio-ustel
 kirasturiko labak,
 —kedarrezko sabel—
 ok egiten du gorantz
 zugana dadin hel.

Nigan isladatzen da
 zure jitte trakets,
 ispilua garbi da
 ispilukoa beltz;
 ez dakit minbiziak
 hartua zaitunentz.
 Ur-lurrezko erditxo,
 zugan dagit amets!

Goizalde lausoetan
 zaitut pausaleku
 maiteminez agurka
 oi ene etzangu;
 haril txurizko besoz
 dagitzut lauxengu
 geroko irri mehearen
 aintzin-muxu malgu.

Maitez zatozkit orain
 eme amultsua!
 iruzurrezko txeraz
 ixuriz gantzua.
 Ostots burrunbartean
 gezi gar sutsua,
 zergatik hain aldakor
 aiherti ahaltsua?

Ene hauzotar maite
ez zaitez jar muker!
beti bainaiz saiatzen
zuganarzen eder.
Egunero zaitut nik
maitekiro iker.
Izaturik ikusiz
horko giro anker
tristuraz barnea ta
negar-antziz naiz leher.

Euskal zirimiria!
ari du langarra
hari arinez doan
jario-indarra;
biok eskaintzen dugu
geure bizi-garra.
Ixil-ixurki fiñez
ene zirriparra,
badirudi penazko
hileta-dardara,
ene soin hezeari
darion negarra.

Lur-airez egindako
golko bizigarri
arnasaren taupada
indarren iturri;
eman diezaiogun
eskua elkarri
gugan baitziren denak
biziz iratzarri.

B A R A I A Z A R R A

MAITANE, NERE BILLOBARI

Ongi etorri, billoba maitia,
gure leiñuan kimutxu autena,
goitik emanda doairik onena,
zu zaigulako «ETXEKO PITXIA».

Izaitez, zu zera txiki-txikia,
baita, beraz, jainkoaren maitena;
baiña Aren lagun kutuna dena
egitan da beti aundi-aundia...

Ikas, Maitane, izaten batera
txikia, akats ta txar ekanduan;
aundi, ta gaillen, ta itzal, ostera,
jainko ta gizakien serbitzuan...
Olan, ziurki, sartuko bait zera
zeruko zoriontsu erreñuan.

JOSU EXEA

MAITANE'ren BATAIOAN

Jauna, eskarrik asko biotzetik,
arabar eliz itzaltsuenian
geure Maitane, Kristo'ren sendian,
maiteki onartu bait dozu gaurtik!

Badakigu ondo, gure aldetik,
jarri dauskuzula geure gaiñian
lan gatx-gatx bat bizi garan artian...
Urgazi zakiguz, ba, orregaitik!

Lagundu, lendabizi, gurasoei
ikasbide zintzo bat izan daizan!

Lagundu be aita t'ama bitxiei
lankide jator bi izan daitezcan,

baita Maitane ta aide guztiei
danok beti Zugaz bizi gaitzezan!

Otoi, Estibaliz'ko Andra Mari,
Erri ontako kristauen zaindari,
aurkeztu Jesu'ri geure eskari!

(1982-7-31)

JOSU EXEA

BASO OIARTZUNA

Ernio gaindituaz atorren
ipar-aize oztua,
sar, ao-epelean barna,
goldatu olerki-lurra,
bear aut, lagundu arren!
edo ta izan, diodanaren testigu justua.

Beti leiatil beretik atorren eta uan
arnasgai euskotarra,
otzean otz, fiñean fin,
ni pozik, banitzake din,
zerbait jaulkiaz ire kolkora
uztai bat bedik luzatuko banu aberri-
katea.

Baldin nere olerki gelan
ez baduk aurkitu gairik,
itxogin apur bat, masail ertzean,
nere alegina, naiz arnas utsean,
or doak, artu ta eraman ik,
olerki biur ezak zero zabalean.

Irakur leizkek Bidani goi-egurats,
ire zain medarretan, malkoz, odolez,
aldiz landutako olerkiak,
agian... izebaren osiñetik eroriak?
busti itzak nere osiñeko uraz?
ire gozagarri ta bere omenez.

Izeba:
kondaira itsasoan,
aldiaren gela izkutuan,
somatzen dut,
zure aberri oinkaden
oiartzun ixilla.
Ain ixil...
bakarrik,
aberri-entzumenez jaso deiken.
Ots,
erri irautearen
zarata neurtua.
Inguru beriak egosten ziren,
karobi zu...
«Argiaren» ego apañak,
zure lumaren izkiz jantziak,
euskal nortasunaren kezka,
aberri gurdia
bultz eta bultz,
aldiak eramango duan
askatasun geltokiruntz.
Zure lumaren
nai-ta eziñezko
giro alai,
edo mingotz,
egoerak mugaturiko
ur-bide estuan.
Tantan denak jaulkiaz joan ziñen,
bakoitza laztan biurtuaz,
aberri ta izadiaren musuan.

Bidani:
erresuma zarreko
oiartzun sotilla,
bas-eleiz ezkil goitarra,
an-emen jaso,
sutondoan galbaituz,
gozo zitzaizun,
inguru guztien ohorez,
bai... sasiko masusta,
pagadiko txillar,
zelaietako milla lore...
erri ta izadiaren goraltzan
azpimarratuz,
«basolore».

Basolore, basolore,
 ustez,
 lur landurako zenduen
 mototx muiñeko
 zure azia,
 aize arrotzen zurrunbiloz
 garaizegi jausia,
 arerio oinpean triskildua
 bañan, iñoiz ez,
 arras galdua,
 kirkil kantariaren udaberri motxa,
 gerraren laño kirestuak
 biurtu zuten,
 udara negu,
 eguna gaua.

Amorru-ontzi gañeztua,
 ozpin jario,
 oñaztari gisa,
 zure illea moztuz, igaro zen
 gorroto guraiza.
 Etxipen sabelean kokatua,
 bildurraren tellapean
 espetxeratua,
 gaizkille baten antza,
 aberkide leial izatearen
 sari mingotza.
 Zenbat bider entzun ote,
 barru kantu mindua...
 guraiz pozoitsuen, rats eta rats,
 ots iginkor,
 ixil, eziñaren
 zigor madarikatuz
 agian...
 zigorra, are zigorrigo,
 aberri baratzan
 atxurlaririk ezak,
 euskal senaren
 berakada amildua,
 gero-belaunaldion
 lo-zorro antzua,
 zure alegiñaren uzta,
 ikusiz,
 nola jaustera doan
 ezerezaren zakuan.

Ez... izeba, ez...
gogamen eskuak
kondaira zakuan sartzean
an,
urrutian,
euskeraren zainak
ezkotzen dituen
ur-geldian,
aurkitu dut
zure olerki aria,
artu, ta..
nerearekin korapilduz
geroari utzi nai diot
ertz-agiria,
agian...
norbaitek elduko dio,
geroan,
ta osatuko
aberri askatasun lokarria.

Zure malkoak
banan banan tolestuak daude
aberri kaltzadan,
gaur geranon
eta etorriko diran
erkideen
askatasun bide...
ortik igaroko dan
noizbaiteko Euzkadik,
eskertuko zaitu
agur, basolore.

Orra... izeba!!
ni,
zu ziñan iturri bereko ur,
zelai bereko belar,
zuaitz bereko ezkurra,
torizu,
guzti oien artetik
jaso dedan
maite-min agurra.

AGUSTIN BELOKI

ERAIL

Nun zagoz estaldurik,
iturrien sormena...
bizitzaren garra...?
Nun da jakituria,
oroz goitik dagona,
Jaungoiko Bakarra...?

Zure itz indartsua
jabetasun osoaz
otska ibili zan;
lurraren jabea naz,
beste jaunik ez dago,
gizonen bizitzan.

Baiña zentzun bageak
egirik ez dau gura
gizonen artean;
arrokeriz jaiki da,
zure aurka aupaka,
dongakeriean.

Bizia geuria da..
arrokerizko itza
gizonen miñetan;
ausardikeri baltza,
lotsa galduak dabiltz,
indarkerietan.

Eskubideen eskean,
zarata ta orroa,
au dok mallu otsa;
ez zana ta dan orri,
nork emon ete eutsan
nortasun jabetza...?

«Ez dozu iñor ilko»,
gizon gain otska dago
berezko indarrez;
leoiak ilko dira,
itzari erantzunez,
—parka— deadarrez.

PAULIN

UMEZURTZAREN MUSUA

Zabal, zabal, zabala da itxasua,
sakon, sakon, sakona bere ondua.

Ta itxasoaren gaiñean
gangar eta arin,
zoro ta sorgin
itxas aizea,
gure kidea.

Ta itxasoaren onduan
orru ta orru,
zurru ta murru,
itxas indarra,
bits ta aparra.

Ta itxasoaren erdian
bilin bolonka,
kulun kulunka,
aita gaixoa
bertan ittoa.

Oi itxasoa,
ur ta laiñoa!
Ba daukat zutzat
musu beroa!

Amaren miñez
laiñoz batea,
semien malkoz
urez asea.

Oi itxasoa,
ur ta laiñoa!
Tori, aitantzat
nire musua.

Zabal, zabal, zabala da itxasua,
ez al da bertan galduko nire musua?

A. ZUBIKARAI

AMA SEMEAK

Egun geiena leioan,
eta gabean oiean,
negar malkoka ama maitea
aita noiz etorko kezketan.

Ez egin, ama, negarrik,
ba dator aita bizirik.
Arrain gaiztoak ez dabe naiko
umeak ditun aiten biotzik.

Zuk ez dakizu, semetxo,
itxasoetako barririk.
Itxas onduan kurutzak dagoz
alargun askon kezka bagarrik.

Jakin ba dakit, amatxo,
itxas gizonen barri nik,
negu baltzetan sentitzen ei da
itxaso ori gizon nairik.

Uda galdatan leioan,
negu otzetan barruan,
ama maiteak ezin uxatu
bere kezkarik aitan arduran.

A. ZUBIKARAI

GASTEIZ'KO ZAINDARIARI

EDURRETAKO ANDRA MARI,
IZAN ZAITEZ ORAIN DA BETI
GASTEIZ'KO TA GURE ZAINDARI!

Andra Mari, sortzez garbia,
Lore beti ZURI-ZURIA,
zeru-lurren Birgiña altsua,
izan zaitez, Jesus'en Ama,
guregana errukitsua!

Aí gaitzazu bizi-aldian
zure Biotz-loretokian!
Zaindu danon etorkizuna,
gure senidien pakea,
goi-eskerra ta maitasuna!

Zure Biotz amaldekoan,
zure Biotz neurribakoan,
ezartzen ditugu ludia,
gure oiturak, gure izkuntza,
geure kutun Euzkal-Erria.

JOSU EXEA

NIRE IZKUNTZARIK ONENA

Gurasoen izkera,
ene biotzarena,
izkuntzarik onena
zu zara, zu, euzkera!

Gure asabaen gogoan
antxiñan Goitik azita,
maiteki erabillita
arretaz euren agoan!

Mintzo aunitz il bai dira
ordutik geldi, ixilikan;
zure elgiak oraindikan
geure Errian bizi dira.

Zagozela bitirik,
euzkera agurgarri,
ondore miragarri,
ezin dot aditzen nik!

Etsai asko ta altsuak
nai dabe zu iltzea;
baiña ori lortzea
lagakotse Jainkoak?

Egi ituna au be da:
zeure semien artian
etsaien agindupian
talde aundi bat jartzen da.

Nun daukie biotza?
Nun daukie burua,
bada euren asmua
«AMAREN» eriotza?

Ai, ta zelako Ama!
Lurbiran, garbiena!
Agoan, goxuena!
Ederra berez darama!

Eztot ingo olakorik;
gudaldu dotelako
gizonki, etengabeko,
euzkeraren aldetik!

Zure otzlillurakin
beteko dut etxia,
eleiza ta kalia,
zure itzsoñuakin!

Ikertukot egun oro
zure iturri aitu-eziña!
Euzkel-arimaren muiña
aurkitu nai-det osoro!

Goiko Jainko lagundala,
neuk be kementsu, jasankor,
maintagarri, begirakor,
izan nai dot zu bezala...

Ama, ez zara ilgo
bizi naizen artean!
Ez, nire barrean
iñok ez zaitu erailgo!

Gurasoen izkera!
Ene alabarena!
Izkuntzarik onena
niretzat GEURE EUZKERA!!!

JOSU EXEA

URRUTIKO AGURRA

Euzkalerria neure aurtzaro zorioneko kabia:
zu zara nire zoragarria, zu nire zorun-eztia;
zu zara nire barruko puzka, amets zorakor-maitia;
goizaldeko izar, alai-ederra, argi ditzikor-bizia.
Euzkalerria neure aurtzaro zorioneko kabia.

Aspaldi onean orri igarra lez urruti nabil zugandik;
ordutik, ona nire biotzak ez du aurkitu zorunik.
Ordutik ona ez dot izan nik biotz-barnean alairik,
ezta ikusi zure irripar maitekor-samur-goxorik.
Aspaldi ontan orri igarra lez urruti nabil zugandik!

Gaur baiña EUZKADI, bertsoz jantzita seme leiala antzera,
nire biotza zugana doa, zuri agur egitera.
Pozez urturik egada zoliz, eztitan zure aldera,
barren-barrendik maitasun biziz ta gogoz agurtzera.

Euzkalerria, ene sorterri,
eder-goxo ta maitia;
biotz-biotzez maite zaitut nik,
zaralako gelgarria.

Naiz urrun bizi beti zaukat nik neure begien aurrian,
ta maitasuna beti dot zutzat neure gogo-barrenian;
zure irudia txikitandikan irarrita biotzian.
Antxe daroat alai ta pozez gorderik une guztian.
Naiz urrun bizi beti zaukat nik neure begien aurrian.

Beti nago ni gogapen gogoz zugan Aberri pentsetan.
Egun argiz ta gabetan bardin beti zugan ametsetan.
Biotz-barrendik maitasun biziz maite zaitut nik benetan.
Beti nago ni gomuta gozo zugan Euzkadi pentsetan.
Beti zu nire biotz-barruan bai eguriez ta gabetan.

Zugandik urrun bizi-bearra bai atsekabe aundia.
Bai dala ziñez negargarria ezin ikusi erria.
Zelan leiteke zu ikusi gabe nik luzaro irautia?
Errukarria Aberritikan urrun bizi dan semia.
Zugandik urrun bizi-bearra bai atsekabe aundia!

Ederrak dira zure basetxe polit, zar eta zuriak,
ederrak baita zure ortzea, iturri eta ibaiak.
Ederrak dira zure arezti, baso, mendi ta zelaiak;
ta pozgarriak beko larreko artzaien txistu zoliak.
Ederrak dira zure basetxe polit-zar eta zuriak.

Euzkalerria, ene sorterri,
eder-goxo ta maitia;
urruti eta maiteago zu
zaralako gelgarria.

Euzkalerria: zu zara nire maitasun-gozo-eztia;
zu zara nire poza, zorun ezta, neke-alditan alaia;
zu zara nire udabarriko egun sentiko argia.
Mendi-ostetik geldiro-samur agertutzen dan eguzkia.
Euzkalerria: zu zara nire maitasun gozo-eztia.

Nire biotzak bular-barrendik iges dagist gaur zugana,
bere beroa orain ta beti zutzat bakarrik da dana.
Zugandik bizi naiz, ez da... bizi-bearra au lana!
Noz ikusiko zaitut barriro ene Aberri laztana?
Nire biotzak bular-barrendik iges dagist gaur zugana.

Euzkalerria, ene sorterri,
eder-gozo ta maitia;
urruti eta maiteago zu
zaralako gelgarria.

Izan betiro Eliz Amaren zaitzalle benetakoa,
Jaungoikoaren lege garbien aldezle trebe-zintzoa;
Izan betiro sinismenaren aitorle leial-osoia;
LEGE ZARRAREN gordelekua ta maitale egizkoa.
Izan betiro Eliz Amaren zaitzalle benetakoa.

Arren ez aztu zure koroiko pitxi jori dan izkera,
zeure asabak maitasun aundiz itxi eutzuen EUZKERA.
Zaindu ta gorde biotz-bernean zure izate ta izakera,
bestela laster jausiko zara ondamendi ta leizera.
Arren ez aztu zure koroiko pitxi jori dan EUZKERA.

Piztu ba piztu zure barruan itxaroaren gar-sua;
begira an goian ego-zabalik MIKEL AINGERU santua.
Izan betiro euzkal oituren egizko gorde-lekua,
mundu guztiko bureztun-pitxi eder-diztikor iaiua.
Piztu ba piztu zure barruan itxaroaren gar-sua.

COLOMBIA

Ego-Amerika'ren ipar-sarkaldean,
Dakusgu erri eder bat tropiko aldean.
Granada-berri izena zuan jaiotzean,
Colombia gerogo erri-erdibitzean.

Luze eta zabala da mugaz ta lurrez,
Prainzi ta España an sartuko errez.
Bost laterrik besarka anai maitasunez,
Bi itxasok kulunka uñez ta aparrez.

Emengo mendik dira aundi ta ugariak
Denak zugaitzez eta belarrez josiak.
Batzuek elur txuriz beti estaliak,
Zure gallurrak, Ruiz, dira arrigarriak.

Manizales gañetik naukazu begira,
Begiak dizkidatzu ederrez lillura.
Zure buru apaña argi ta dizdira;
Rubi baten txinpartak ain eder ez dira.

Ibaietatik batzuk zabal eta luze,
Millaka kilometro izango dituzte.
Madalena luzcen, liburuk diote,
Kauka ta beste batzuk ondoren datozte.

Oi! Madalena ibaia, zera zoragarri.
Kantu eder luze bat nai nizuke eskeñi.
Zure uretan ni naiz askotan ibilli,
Zure baztar loretsuk naute lillura ni.

Elurmendietatik erreka ta ibaiak,
Ernaldutzen dituzte beko zabaldiak.
Eguzkiak berotzen ditu goi ta beak,
Noiz-nai izaten dira laño ta curiak.

Urte guztia udara Colombi aldetik,
Neguak du izena euri geiagotik.
Ba-ditu toki otzak Bogota aldetik,
Baño goi daudelako itxaso gañetik.

Lurralde yori ontan ugari loreak,
Eder ta ikusgarriak emengo orkideak.
Jateko igaliak berdiñik gabeak,
Paradiso'ko aiek bakarrik obeak.

Nere ustez, ordea, igalietatik
Kafia dabilkigu den-denen aurretik.
Onengandiko edarik inun ez berdiñik,
Orregatikan emen denak bertsolarik.

Laterri onen lur-gaña eder ta aberatsa,
Areago lurpea: urre ta esmeralda.
Petrolioia ere an-emen gañezka,
Atzerritarren begik lotan ez dabilta.

Larre mardulak ditu ertz eta erditik,
Errez gizentzen dira bei ta abelgorrik.
Aberez Colombia dabil oso goitik,
Okelaren eskea baztar guztititik.

Emengo egaztiak, zuk, nun ikusiko?
Kolibrí txiki-txiki ta kondor aundiko;
Lenengoak loreai miztoa sartuko,
Bestea laño artean, aundien dalako.

Gizartean geienak dira aurpegi zuri,
Beltzak ere ikusten, baño ez ain ugari.
Beltzaranak geiago nere ustez agiri,
Odolez dira bero, erne zaite ibilli.

Aspaldi ez dala oraindik erri bikain ontan
Odolik asko ixuri zan baztar guztitan.
Joanak joan dira, beintzat oraingotan,
Pakea da nagusi Colombi-lurretan.

Lleras jaunaren lana aundia izan da,
Gizon txikia danarren, buruz da azkarra.
Lengo bi Lendakarik asia zutena,
Neke ta izardi ugariz burutu du dena.

Colombia, lur eder, eta kristau-erri,
Gaur kristaudi guztia begiraka zuri.
Erroma'tikan Aita zurera da etorri,
Zure lurtean gora nai du Eukaristi.

Andre-mariren erri izena zuk dezu,
Semearekin Ama nai degu agurtu.
Urrutitikan asko etorri gera gu,
Eukaristi siniste indartuko al-zaigu.

ITXAROAREN ILDOAK

I

Gure erri zapaldu onen zori mingotsa!
Eguzkirik bako egunen erdoi zikiña,
Jopu-kateek darioen narrazen otsa,
Gurutzearen astuna astindu eziña.

Erio-mendiko mallukadaen anotsa,
Gau oroetako izar galduen zotiña,
Seme ganorabakoen galdutako lotsa,
Gorroteok darioen amorru likiña.

Oi Euzkadi! bizirik ala illik, nork jakin.
Oro deusue zapaldu, arima, bularra,
Mill arerioen ostikopeko ondakin.

Bizitzaren oña nekea da ta negarra,
Baita gure berbizkunde-esperantzen ernamin,
gure oben oroen parkabide bakarra.

II

Ta egunik bako gauotan zer guk egingo?
Esperantza barriaren tontorretik zantzo.
Azkatasunaren muñoak landaratuko.
Solo, bide, sagar, lore, kate-moltzo.

Amaren seme on, malluka sendo ekingo
geure gurariak josiz gogor, ta zintzo
etxe zarreko atezubiaren sostengo,
berau bekigun arnas leku, atsedean altzo.

Geure fedearen kutxa barruko oyalak
xurgatuko dau zure zauriaren ezkoa
Oyalak zuri-zuri, gorri-gorri uyalak.

Pozak eundutako oyal zuri liñozkoa
Odolaren xurgatzeko izara zabalak
Egi biur daiten gure amets betikoa.

III

Itxaropenaren arresi sendo trinkoak
jarriko deutsaguz eriotzaren ertzari
Ta jopu-kate urtuak, giltz egindakoak,
Izango ditugu atari onen zaindari.

Gure fede biziaren zutarri zindoak
Eutsiko gau-egun latzetako ildurari.
Bekarkigu dirdira betea ortzondoak.
Geu izango zuzi, negar ta nekez opari.

Euzkadi! Zurearen truke gure bizia.
Maitasunaren ildoetan sakon erainen
azkatasunaren betiraunerako azia.

Lanoro zure bizi barriaren pozarren
Ta betor bakea, erri txikien auzia,
Muño danak landarez direnean ederren.

ANGEL BIDAGUREN

ITURRITXOA

Iturritxo garbia
pil pil kantaria
menditik bera dator
kenduz egarria.

Bedartza ta landarak
beragaz bustiak
eder biurtzen dira,
gazte ta guriak.

Udako beroakin
izardiz beteak
iturritxon uragaz
atseden aseak.

Iturritxon ikutuz
baratz ta zelaia
loraz beteten dira
usaiñez alaiak.

Lorik diran basterrak
gutziz kutsutuak
iturri etorten
argi ta garbiak.

Iturritxo maiteak
eltzen dan tokitan
ereiten dau bizia
ongille danetan.

Iturritxoengandik
artu ereduak,
danon arte ein daigun
obea mundua.

Gure itzez ta lanez
osotu dagigun
iturritxoan antzez
erein garbitasun.

GALLASTEGI KAULDI

MENDIETAN DURUNDA

Illuntze garratza zan a
mendi gallur gallurrean
gortzeko lako zarata
nik neure belarrietan.

Beko zokondo aunditan
zotin aundiren oiartzun,
odeiak goian burrukan
besterik ezin da entzun.

Odei gorriak diñoste,
euskal odola da ori
anai arten isuria
odol gazte eta gorri.

Be aldeko oiartzuna
gogorkeriz il diranen,
galtze au tamalgarria!!
Euskaldun, ez jarrai ilten.

Bizkortu zure barruan
kristau zintzoren zentzuna
ez beite aurrerantzean
iñor il dozula entzun.

GALLASTEGI KAULDI

EURIA

Ez du negarrik
aspaldin egin
zeruak.

Ez du barrerik
aspaldin egin
gizonak.

Zeruak negar?
Baratz aberats
frutuan.

Zeruak parre?
Lagorte asarre,
iltzaille.

Zer dira tantak,
eurien kantak?
Kaskarrak!

Baña bai dira
gure ogia,
bizitza.

Ze gutxi gera!
Euri menpean
orbela!

AITA P. ANASAGASTI

LURRA PIZTU

Euriak
tan-tan-tan,
baratza
busti.

Legorak
berala
txapela
kendu.

Belarra
arrotu,
lepoa
tente.

Lurrari
biotza
bigundu.
Poza!

Errekek
mar-mar-mar:
geiegi
xamar.

Aziak
apurtu
naiean
kutxa.

Bareak
zillarrez
bideak
josi.

Artoak
buruan
malkoa.
Urre!

Loreak
bularra
atera
zorrotz.

Odeiak
musuka
arkaitzai.
Zikin!

Euriak
tan-tan-tan,
mundua
gazte!

AITA P. ANASAGASTI

OIANAK DAR-DAR

Ez idan eskatu,
ez nian eskeñi,
bizitzaren aurrean
bakarrik hi.

Oh! Aralar, Aralar,
oñaztarrien taberna,
elur erasoen enparantza,
aize minduen orrazi zorrotza,
garraztasun-sabel «Ama»,
lagun aut, baño aldiz, dagiak dar dar.

Hire oianeko mintegian
pago gazte, lerden, zuzen,
bezela, jaio ta azi ukan
eraso, bizi nai-ta eziñezko burrukan
ire seme, nere lagun «Jose»,
hik dudan garraztasun ispillu, agian?

Ez idan eskatu,
ez nian eskeñi,
bakardadearen aurrean
bakarrik hi.

An, abenduko goiz elurtean,
Amaren sabel goxoa utzi,
maitasun emaitz, biur intzan lurtar,
aur izateko astirik gabe, azkar,
gizon arlor, abarkak jantzi
ta zutik, hire gurutz-bide atarian.

Aur bat izanik, gizon antzera,
udaran uzta billa, neguan artzai.
Zuldar tarteko leen bizarra
kentzeke, deia, ator gerrara!
ta hi, bizitzeko maisu bakarrai
amor emanaz, or hua, nor iltzera?

Ez idan eskatu,
ez nian eskeini,
zartzaroaren aurrean
bakarrik hi.

Gurutz bide abiatuan orra or,
lenengoz jo ukan lurra,
naiz jarraian zerbait altza,
ori ez ote, hire itsasoan arrolio mantxa?
kezkaren aldaba? lo kentzalle lapurra?
barkatu nere duda, neri ez diak ezer zor.

Gerra, gudaritza, zazpi urte aundi,
Amaren sabeletik gizon izatera,
ez aurtzaro, ez gaztearo, dana laño,
eguzkia estaltzen duan odeia baño
beltzagoak estali dik hire bizitz sarrera,
gizarte asekaitez baten jangai izan haiz hi.

Ez idan eskatu,
ez nian eskaini,
eziñaren aurrean
bakarrik hi.

Gerora jator, naiko aro egokia,
ola-gizon ondo ikusia, erri maitale,
nunbait alabear eta ezkongai,
emen ere bakardadea hire zai,
eziña, beti orpoz orpo, ta nik uste
au izan dela hire bigarren error-tokia.

Nekezko beti igotze, hire mundua,
oskarbi gabeko oian illuna,
areago biurtu dik, osasunik ezak,
atzapar azkazaltsuz eldu dik gaitzak,
biurtuz oiana leize, illuna beltz, irria pena,
giltzarri gabe utziz hire bizitz atalburua.

Ez idan eskatu,
ez nian eskeñi,
oñazearen aurrean
bakarrik hi.

Guda, bakardadea, gaitza, hire iru etsai,
lagunen laguntza gabe, geiegizko zama.
Irugarren lurreratze ontan, geiago ezin hik,
norbaitek lurrin artean, or aurkitu dik,
hire etsipenaren azken itokin tantana,
zergatik? nor ote, hire odolaren zai?

Aldiz, nagok lotsaz, aldiz diat beldur...
lotsa, ez galdetua nola hengoen, nun,
beldur berriz, kez karen mizto zorrotza,
nigan ote dutan zulatuz biotza,
izan ere, izan nauk hiretzat lagun,
bakarrik, illobira botatzeko eskuta bat lur.

Ez idan eskatu,
ez nian eskeñi,
bizitzaren aurrean,
bakardadearen aurrean,
zartzaroaren aurrean,
eziñaren aurrean,
oñazearen aurrean,
eriotzaren aurrean,
beti bakarrik hi.

Mundua hiretzat
gudu-zelai,
zeruan atsedean zak
lagunon zai.

X.

ITZULPENAK

THOMAS MERTON

(*Ikusi Olerti, 1982, 81-82*)

LUZI DEUNARI OTOI-DEIA

Luzi, zure eguna gure urtarorik illunenean da,
(zure izena argiz beterikoa izan arren),
gu, aragi ta zentzu-illunpe ta euritako bidaztiok,
gure mundu illaren négu-buruko gauerdian galdurik,
laiífoak zure izar adiskidetsuari noz zabalduko gagoz.

Aspaldi dogu lurperatu gure bizitzako udea;
gure uri alaiak amatau dira danak, ipertargiak urrillean lez.
Zelaiak ur-ondatuta dagoz eta maastia utsik:
bai murriztu dirala gure egun luzeak, orain mundua izozturik dago!

Gure naimen setatiaren kartzela otzetan giltzapeturik,
oi entzun palak arri-koskor artean kurrinka.
Olan egingo dabez gure betirako oeak,
geure lotazillez eguzkia amatau dogunontzat,
udaldiarentzat arimetako atea zerratuta ditugunontzat!

Martiri orrek, zure egun laburrak gure negua ta gure kalbarioa dakusaz-ta,
erakutsi argiren bat, zeruan itzia dirudikean bat:
illunpetan ain luzaro bizirik, gure begiak estaldu ta lausotuta dagoz
eta ia itsu argizpirik aulenaz.
Santutu gure bizitzako arratsak eta lotazilla, o Luzi martiri orrek:
poztu zure egun adiskidetsuaz gure negu-burua.

A Man in the Divided Sea (1946)

(Euskeratzaille: LUIS AROSTEGI)

IÑORENTZAT EZ DAN ABESTIA

Lora beillegi batek
(argi ta espiritu)
dau berez kantatzen
iñorentzat bez.

Urrezko espiritu batek
(argi ta uts)
kantatzen dau itz bage
berez.

Ez bei iñok eguzki txairo au ikutu,
bere begi illunean
nor bait dago itzarrik.

(Ez argirik, ez urrerik, ez izenik, ez margorik
eta ez gogapenik:
o, guztiz itzarrik!)

Urrezko zero batek
dau berez kantatzen
iñorentzat bez.

Emblems of a Season of Fury (1963)

(Euskeratzaille: LUIS AROSTEGI)

EURIA ZAN...

Euria zan illun ta otz Biotzaren St. Teresa Egunean
amabostean jai zanik oindiño iñok be ez ekian-ta.

Euria zan bere maitasun sagratuaren omenerako aroa balitzan
andikiak aren biotzaren inguru arri orma baltza eraigi izan eben-ta
eta eliz-nagusiak, alkateak, eta autorleak ateak zarratuta nai ebezan.

Bere biotzaren miiñak iraiñak bota bear dautsoz ikuskizunari, iñoen.
Olan lau euri otz orma eraigi ebezan bere ikuskizunaren inguru.

Eta euria jatsi zan ikuskizunaren gaiñera bere maitasunaren omenez.

Ikuskizunagaz bera bakarrik zarratuta egoan gela teologikoan
bere biotza suzko milla orratzez zulatua izan zan.

Gero alkateak, eliz-nagusiak eta autorleak danak batera negar egin eben bere maita-
sunaren omenez.

Prozesiñoan joan ziran danak batera uriko orma euritsuetara eta sendotu egin ebezan
euren gogoak, ekaitz baltzaren izurretan bilduz.

Euren atzean uri ikus-eziñean kartzelak eta konbentuak sugarrez gaiñezka ziran.

Leiorik txikienean St. Teresa'k,
burlati zorabiatuok aaztua bera, uso biurtu eban biotza.
Euria lotu egin zan une aretan.
Usoa iges joana zan ikuskizunaren erdiune gartsura.

*Cables to the Ace
or*

Familiar Liturgies of Misunderstanding (1968)

(Euskeratzaille: LUIS AROSTEGI)

IZANGOAREN GAUA

Neure amaian dago nire esanaia
diño aroak.

Erlojurik ez:
biotz-odola bakarrik
itza bakarrik.

O argi-ontzi
adiskide aul
jakite-gauean!

O biotz azpiko
sugar-miin orrek
leun mintza:
maitasuna baltza da-ta
diño aroak.

Orri ospatsuan
izki gorri ta baltzak
bete egiten ikus-obo txikia.

Illunpe luzea-
eta orioaren
bizi makala.

Nok eutsi sendo etxebako argiari
biotz-gela sakonean?

Gauerdia!
Sugarraz laztandua!
Begitu! Begitu!
Nire maitasuna illuntasuna da!

Utsean bakarrik
dira bat bide guztiak.

Galdu guztiak
gauean bakarrik
dira aurkituak.

Neure amaian dago nire esanaia.

*Sensation Time at the Home
and other new poems (1968)*

(Euskeratzaille: LUIS AROSTEGI)

NEURE AMA

(Eugeni A. Evtuchenko)

Aspaldi dalarik
ez dau nire amak abesten.
Zelan ete leike ortarako astia?
Bear asko, asko bait dau,
nekez egiazki
izan lei danaren ardura.

Bere jaiot-egunez, bear bada,
edontzien tintin-soiñu
eta abots zurrur artean,
pianura jarri-azoko dau
adiskide bat, antzezlari zarra;
eres-piko batzuekaz onek
urtuko dautso tristetasuna;
nota zeatzen billa dabil
eta eurak billatu nairik
lotsaz eta ardoz da gorritzen...

Onguraz zorionduko dabe,
esanaz:

«Sekulako!»,
baiña nire amak dautzu
sukaldera iges egingo,
arpegi zarpailduaz.

Baiñola, kontziertuak
emon eutsezan
gudariai,
berak bakarrik,
guda-oiñeko basartean,
latz-latz
eta garai eliza bat iduri.

Otzak sorgortzen zitun amaren eskuak.
Buruko miñez egoan,
baiña aren eztarritik jarioka etozan
ixilla baizen soifü garbiak.

Burdietako zaldiak sudur-aizeka,
izotzak zuri-azoak,
eta, belarriak zut-zut,
euren kautan zirudien oldozkor.
Uber-gisa
Zuri-soiltzen zelak...

Jausitako edurtza ain aundia bai zan,
doi-doi bereizten ziran
gudariaren eta buruzagiaren
bizkar-babeskiak...

Ardaoa dakar amak
eta jatekoak eskintzen.
Maitarrak, oso maitekor,
kanta daiala
eskatzen dautsoe.
Baiña nik deskatzut,
ama,

Ez eizu zuk kanta...
Ez, ez da zure errua,
Ulertuko dabe arrotzak.
Ots bei gramofonuak
eta edontziak alkar joz,
tintin eta tintin...

Ama,
zuk ez abestu,
arren bai arren!
Ama,
ez naizu oiñazetu!

NUN OTE DAGO NIRE ONTZIA?

*Oscar Echeverri Mejía'ren «Las Cuatro Estaciones» tik euzkeraturiko olerkia.
Bogotá/1980.*

Itxasgizon itsu baten antzera
billa nabil nire ontzia bat-batean galdutakoa
eta ez dut aurkitzen ez atematen izaro bat ere
nun utzi —aitortzen danak bezala—
igaro au oroitzapenez betea.

Nun ote dago nire ontzia?
Itzulerarik gabeko zein ugin igeskarik
eraman du ondartza ezezagunetaruntza?
¡Ah, nire ontzia, nire ontzia!
Íñoiz ez nuan eduki orrelako ontzirik,
ain ziurra,
ain ausarta eta zintzoa, ain abenikoa.

Nun ote dago nire ontzia?
Zelako aparrek inguratuko dute aren itxastar gerria,
zelako arraiñek belarriratuko die abestiek,
zelako adarrak beste ondartza batzuetakoek
aren saietsak irristatuko dituzte?

¡Ah, nire ontzia, nire ontzia!
Bera, zoramendurik ioango da beste bide batzuk urratuz
urarenak. Aurreko aldeaz, osertzean tinkaturiko
begiratu baten antzera.
Eta, nik, aren ontziburuak, dirikidaz mapa guztiak,
azterkatzen ditut— ur-tirak
ikusteko uraren ainbeste tolestura artean
ia berriro aurkitzen dutan nire ontzia.

NIRE IZATE BERBEREAN BEZELA

*Dora Etxeberri de Castellanos
kolonbiatar olerkarime iaioarena da
olerki eder au, bere, «Eterna Huella»
idaztiñotik artu ta euskeratua.*

Nire ezurren txirula
igarotzen duen abotsean;
ta, nire bekokian itxasoa
bezela asiz datorren argian;
aldiaren ertzeko
uraren bitsean;
aizeak deitzen digun
irrintzi luzean;
gauak zabaltzen duan
izar-izara
ta, aienzuri nabarmenezko
adar-pilla aundian;
muñoetatik ietsitako
ur-dario gardenean;
ildako idolu kutunen
urregorri dizditsuan;
musuz desorritzen diran
gardeni gorrietan!
adarki ezeetako
sugar lotietan;
nirezko nirean bezela
taupaka dago nire odola.

Euriak mamitzen ditun
izotz-kandelatan;
illerrietatik abestutzen
duen larretxorian;
umaotutako kañaberan,
gogaitezko maatsean
ta, bere aterpera
iritzi ez zan enara ortan;
—oldozmen barreanean
atxiki ezin dan oro
ta, zirkinge ta, ikusge,
astintzen gaituenetan—
muinean, kimuan,
ernamin, kabi, egadan,
bularreko xurrutak
alikatzen ditun ardoan;
emen, or, aruntzago,
bestearen ta arenean,
bizitzazko lurbira,
izadiaren orotasunean,
nirezko nirean bezela
taupaka dago nire odola.

MUNIATEGI'TAR SABIN

KREDOA

Siñisten dot Jaungoikoa,
Aita guztiz altsu,
zeru-lurren egillea.

Eta Jesukristo,
Jainkoaren Seme bakar, gure Jauna,
Espiritu Santuagandik sortua,
Maria Birjiñagandik jaioa;
Pontzio Pilato'ren menpean oiñazetua,
gurutzean josia, illa ta obiratua;
illen erreñura jatsia,
irugarren egunean illen artetik biztua,
zerura igon eta Aita guztiz altsuaren
eskui-aldean jarririk dagoana.
Andik etorriko da
biziak eta illak epaitzera.

Siñisten dot Espiritu Santua,
Eliza santu katolikua,
Santuen alkartasuna,
pekatuen parkamena,
illen biztuera
eta betiko bizi-tza.

A M E N

X.

SENSEMAYA

Nicolas Guillén (Cuba) 1904

¡Mayombé-bombe-mayombé!
¡Mayombé-bombé-mayombé!
¡Mayombé-bombé-mayombé!

Berinezko begiak ditu sugeak;
dator sugea ta batzen da age batean;
bere berinezko begiekin age batean,
bere berinezko begiekin.
Anka gabe ibiltzen da sugea;
sugea belarrean ezkututzen da,
ibilian ezkututzen da belarrean,
¡ankarik gabe ibiliz!

¡Mayombé-bombé-mayombé!
¡Mayombé-bombé-mayombé!
¡Mayombé-bombé-mayombé!

Zuk ematen diozu aizkoreaz ta, il egiten da;
¡emaiok ba!

Ankearekin ez eman, ainka egingo dizu-ta;
¡ez ankeaz jo, badoa-ta!

Sensemaya, sugea,
sensemayá.
Sensemaya, bere begiekin,
sensemayá.
Sensemaya, bere miztoarekin,
sensemayá.

Suge illak ezin du jan;
suge illak ezin du egin txisturik,
ezin da ibili,
¡ezin du lasterrik egin!
Suge illak ezin du begiratu;
suge illak ezin du edan,
ezin du arnas artu,
¡ezin du ainka egin!

¡Mayombé-bombé-mayombé!
Sensemayá, sugea;
¡mayombé-bombé-mayombé!
Sensemayá, ez da igitzen;
¡mayombé-bombé-mayombé!
¡sensemayá, sugea;
¡mayombé-bombé-mayombé!
¡senseinayá, amaitu zan!...

MUNIATEGI'TAR SABIN

KONDAIRA

Magda Stella

Aizeak zinkurin dagi Udazkenean
Orri beilegiak dira erortzen parkean...
Biotzak, alai,
anotsezko aria luzatzen dio maiteari.

Gauetako ixillean oldartsu sartzen da
irudi sendozko oroitzapen sukartua
eta, lorratz xume artean
berbizten dira esan-eziñezko gomutak...

Aldiguneak baztertzen ditu aztutzeak.
Miñeria nasimasitzen da urrun gozoaren
zugaitz artetan,
zauritzen ta egian babestzen diranak...

Aizeak txistu dagi or udazkenaz.
(Euriak argilitezko zilipurdiak egiten ditu...)
Eta nire gogoa da iziotzen
betiorozko dizdiramen utsalez.

MUNIATEGI'TAR SABIN

URAREN DIZDIZARI ABESTIA

(Karol Wojtyła'rena)

*«Jesusek erantzun eutson: Ur one
tatik edetan dauana barrero be egarri
izango da; baiña nik emongo dautsadan
uretik edaten dauana, ez da sekula
egarri izango» (Jn 4, 13).*

Siken pozuaren karel ertzean

Ikus uraren zidarrezko ezkatak.
Bere ondarrean pozuak ikara dagi,
begiaren niniak lez
irudia bertan erneten danean.
Osto-orrien isladurak
uraren azalean
zure arpegia ikutu ba'dagie,
nekearen betazpiak garbitzen dautzuz.

Urrun dago oraindik iturburua

Begi nekatu ta betazpitsu orreik
gaueko ur illunpetsuak, diñoste,
zure otoitz-itzetan dagozala gaiñezka.
(Gure arimak zumel dagoz, oso zumel).
Baiña pozuaren argitasunak dardar dagi zure malkoetan,
amesen aize-dardar batek
—ori uste dabe bidez doazanak—
biotzetik erne-eragin dabezanak.

Pozuak dizdiz dagi orriakaz zure aurrean
eta orriak zure begietan dira zimeltzen,
bitartean aren berdetasun diztiratuak
zure arpegia beilatzen dau
islatzen dauan barrenaren gaiñean.

Urrun gagoz oraindik iturriburutik?

Giza-taldeak dira Zugan dardaratzen,
zure itzak alderen alde zaurituta,
begiak lez uraren argitasuak.

Zuk ba-dazauzuz gizonak, danak,
nekean eta pozean.

Begiak zabalik oiaturen ondarrean

Joana da euria
eta txingar-jaurtika dagoz arri ditzikorrak
bidez dabilzanen oiñen azpian.
Gaua dator. Zenbat gizonak atek igaroten ete
burrubada batean edegirik?
Zenbat ez dira geratzen leioetako argiari ukondo?

Gaba da. Giza-ormea, noizik bein,
ausi egiten da bidaztiren baten betartez,
eta au leioetako argitasunak
beste toki batera daroa, urretxo.
Giza-ormea zabal egiten da, meetu,
baiña beti da ber-bera.
Aren illuntasunaz lilluratu egin da soa.
Lau ta bakuna da ormea.

Esan dautzut: zure begitua bakar-bakarrik
tinkatzen da samurkiro gizonengan,
argizko iragarkien zintan ilten diranengan;
euren ezkutu sakonenetatik agertzen dira,
eta iñundiko sugarrek ezingo ditu iruntsi.

Begiak inguratzen dozuzanean,
gero ta beteagoa egiten da uts-unea,
ondobako gai geiagor beteten da,
jenteki illuna igali eldu baten antzera zabaltzen,
eta bere barren-aldetik kanporantza dator
ontasun onenganantz,
eta onegaz, ixil-ixillik, gosea dozu asetzen,
eta berau, oi-u-oiuka, auts dozu biurtzen.

Ez, zuek etzarie bakarrik;
eta, zuek bakarrik ba'zarie be,
zuen begierak orduan ba-dirau
eta gero ta geiago agertuz doa;
naiko da begiak beste era batera zabaltzea,
oi bezela barik beste era batera zabaltzea,
eta ikuspenari eutsi
begiak asetu daitezcan.

Emakumearen itzak osin-ondotik urrintzean

Oraindik nire ezjakintasuna
 itxi egin neure atzetik,
 sartu ziñan atea bezela
 —nik ez dakidan guzti a jakiñik—,
 Itzik egiteke igaro zara,
 neure gomutamenean zear,
 ainbat pertsona, ainbat urriñeko bide
 eta ainbat kale,
 txingar ixiotu lez ariman diranak.

Alkar-aurkitzea gero gogora ekarrita

Ez litzateke iñor Aren antzera begirutzen ausartuko,
 ezta, orrela, ikusten be, ber-beraren kautan.

Aren ezagutze erea bai dala bestelako!
 Ozt-oztan jasoten zituen begiak,
 baiña Aren ezagutzearen osotasuna!

Aren arpegikera zan
 uraren argia pozuan bezela:
 izpillu bat ..., pozua lez barne-barneko argi-diztira...

Ez eban izan Bere baitatik urten bearrik,
 ezta begirik jaso be, igarteko.
 Ikusi nindun, Beregan erraitu nindun,
 nirekin jabetu zan ezeren zoztorrik bage;
 nigandik jalgi-azo eban lotsakizuna,
 eta baita pentsamenturik ezkutuenak be.

Buru-lokien giltzak ikutu bide eustazan.
 Bat-batean, arindu nindun neure neke auditik,
 eta zelako guritasunaz!

Aren itzak, lau-lauak danak,
 ardi lilluratuak lez inguratzen ninduen.
 Eta gogoan euren abietan lo egozan
 txoriak esna-erazten ebezan,
 eta neure ezkutueta ziran sartzan,
 eta neure pekatuetan.

Autor eizu... Onek ekarri dautzu
 begia bete oiñaze:
 (oldozpenen uin-arroa bat-batean jat itxi).

Ixillik zagoz, baiña ba-dakit nik,
 zute itzetara betikoz zabalik nagon ezkeru,
 nire neke-miñak ezin izan dauala urreratu be
 zurearen neurritara.

Nire maitasunak orain zure oiñazea bi i nai leuke,
Zuri kendu ta bertan batu soingaiñeko latzean lez.
Baiña berandu da. Orain
biurtzen dauzstazun sufrimentu bakotxa,
neugana bide dagian bitartean,
maitasun biurtuz jaongo da.

Zelako laburpen, zelako ontasun
zure ezaugerarena!
Eta begiak jaso be ez dozuz egin;
zeure begiakaz bakarrik mintzatu ziñan nigaz,
eta euretan dirdirak egozan
pozu sakonaren islarenak.

Berak eta jenteek, aregan, daukien alkar-izketa

Jenteak, illunkera aretan,
onan bide egozan izketan:
—Ez uste bakarrik zabiltzanik;
neu lez, beti daukazuz jenteak lagun,
aldatu gareanok, guregan
zure isladurak sartu diralako.
Bai, zure isladurak...;
itz apurkor batzuk argian eztituak...

Neu lakoxe jentek...
euren illunetatik jagiak
Zuk goian ixetzen dozuzan izarretarako bidean.
Gauetik urtendako jenteen artean,
antxe dago emakume a bere.

Eta orain Ak aren bitartez itz dagitse:
—Ez zoaze bakarrik.
Egundo bere ez, une baten bere ez,
nire begiera ezta aldunduten zuengandik.
Eta nire begiera egi sakon biurtzen da,
itxasotik urten olatuak baiño sakonago.

Eta nire betarteak be laguntzen dautzue,
zeuen arimen lekaroz lekaro txigorturiko
betarte onek, zeuen ames nekatuen aizez
eta ats-aldiz beti egurasturiko onek...

Zergaitik ez dozuez nigandik kentzen zeuen kurutzuek,
nik neurea zuengandik erauzi neban legez?
Erreten egoan zuen besoetan,
bere pisu guztiz zuen bularrean murgildua.

Eurak:

—Illunabar tristean alkar aurkitzen dabenean
gure arpegi arrain antzo labankorraz,
ainbeste kruseilluren argiz limur egiñakaz,
arat-onat nabaitzen dogu geure odola
eta beragaz eraso gengike.

—Neure odolaz pisua makur-aztera etorri naz,
itomen ixillaren billa etorri naz,
zeuen ideko, bat geiago, egiñaz.

Samaritarra

Zurekin lotu-azo nau osin-artz arek,
zure nor baitan murgildu nau.
Gure artean ez egoan ezer, ezer bere ez,
begi-nini garbi baten antzera
dardar dagian argitasun sakona ezik,
osin-ertzeko arriaren biran sartu ezik.
Argitasunak murgildu nindun zure begietan
eta euretan itxita laga nau.

Bein barrero gomutapena

Neu, neu, neu neu,
osorik itxartuta,
ur ibillen ditzira garbian
bere burua ezagutzen daunaren antzean
eta, bat-batean, begitu izpillu barik
eta berenera biurturik,
bere arnasa geldi-azo
eta arritua lez aurkitzen da,
bere argi-gaiñetik dantzari...

Osteangoa, ba, aurrerantzean,
ene itxartze augaitik?
Edo-ta ormea edegi zalako soilki,
beti ibilli nintzan lekutik,
konturatu barik (itsu-itsuan)
neugandik bananduz niñoala
eta ez neugandik bakarrik?

Bai, itxarrik nago
eta ondo andi-manditua!
Alan be, dana dirudi doala leen bezela:
zamariak auzoko muiñotik
euren zama-sortakaz datoz,
mundu osoa (arnas-artuz legez)
gora ta beera dabil

neurritzko era bikaiñez,
igonaz doaz arpegiak aire oztinez
(alperrik, alperrik!)
argitan dagozan kruseluak diztituta
eta zain dagozan izarren azpian.

Ariñago edo beluago,
ezagutu bearko dot pisu bat
kendu daustazula, neure neke
eta indar-egiteen neurrikoa,
Zuk ito-bear barik daukazun
armoni ain lau-eder orren-
zati pitin bat eskuratzearren...
Eta amai bakoa dana!

Begira: zati pitintxo au
nekez iraun-azten da niregan,
baiña ba-dakit lepotik kendu daustazun
kargea, ez dabillega utsean igeri;
ez dago aztagaillurik bera pisatu leikenik,
ezta aldea atzemotekorik bere.

Eta olan, aldakuntzaren bat
jazo balitz lez, oldozketan nago,
eta arindua somatzen naz.
Su-garra bezelatsu,
zugatz idorretik bizkor jauzika,
bere egada diztikoziaz
gau-estalkia jaso daroanez.

Uraren dizdizaren abestia

Pozu onen barrenaren dizdira,
ontatik neure pendarra bai nai dot bete,
aspaldi joian nere begi-niniaia itsatsiz...
Osin onen dirdaian emon izan jat
iñoiz izan ez dodan lako bizipena,
eta olan estalgetu dot neure utsune aundia.

Ondo dago, ondo! Ezin zaitut
osorik eroan neugan,
baiña lot zaitezala nai dot
osin onen izpilluan tinko,
ostoa eta lorak bezelatsu,
goitik aizeak erauziak,
nire begi lilluratuen so-aldian.

Oi nire begi orain tristerik ez dagozanak!
Zuk zeure argiaz bete daustazuzalako nunbait!

EGUZKIARI ABESTIA*(F. Mistraléna)*

Provenza'ko eguzki aundi, - ipar-aizearen aita-kide pozkor, - zu, Durenko odol gabetzen dozun ori - Krau'ko ardao ibai bat bezela.

Dizdiz eragiozu sutontzi gorri orri! - Egotz eizuz itzalak eta izurriak! - Arin! Arin! Arin! - Ager zakiguz, eguzki eder!

Zure garrak erreten gaitu, - ta, alan be, uda etortean, - Aviñon, Arles eta Marsellak - jainko bat legez zaitue artzen.

Dizdiz eragiozu zeure sutontzi gorri orri! - Egotz eizuz itzalak eta izurriak! - Arin! Arin! Arin! - Ager zakiguz, eguzki eder!

Zu ikusteko, lertxunak - gero ta gorago digoe, - eta ziza gaixoa - kardulatz oiñean azten da.

Dizdiz eragiozu zeure sutontzi gorri orri! - Egotz eizuz itzalak eta izurriak! - Arin! Arin! Arin! - ager zakiguz, eguzki eder!

Eguzkiak, lagunak, lana ta - abestiak sortzen dauz, - eta aberriazko maitasun-sua -, eta errimin gozoa.

Dizdiz eragiozu zeure sutontzi gorriari! - Egotz eizuz itzalak eta izurriak! - Arin! Arin! Arin! - Ager zakiguz, eguzki eder!

Eguzkiak ludia argitzen dau - eta berotuz, berau janaritu... - Ezpei iñoiz estali! - , ororen azkena bait litzake.

Dizdiz eragiozu zeure sutontzi gorriari! - Egotz eizuz itzalak eta izurriak! - Arin! Arin! Arin! - Ager zakiguz, eguzki eder!

A. O.

ITXAS-ONTZIA*(F. Mistral'ena)*

Mallorka'tik dator ontzia - laranja zamaz astunÇ - loreuztai berdez koroitu dabe - ontziaren masta nausia; - zori onez - Marsella'tik dator - itxas-ontxia.

Ontzia Marsella'koa da, - ondo amaitutako arrabit leuna; - itxasoa makur-azten da, ta bare dago - aren zuraje onetsiaren aurrean,... - Marsella'koa bait da, - Jainkoari eskerrak!, - eta onetsia.

Ontzi-burua - dirua egin dauan ontzilaria dozu; - bat-banaka ezagutzen ditu Indiak, - itxasoa ezagutzen dau, eta zerua; - txori bat da - dirua egin dauana - uraren eta ortziaren tartean.

Bere eskola guztia mari-erdiko batena; - baiña ekaitz oso zakarrak ikusi ditu; - azkar azi zan kidekoen artean - eta lemari maisu izatera eldu zan; - edozein itxas-mutil on bezela, - mari-erdiko izan da, - eta lemari.

Baltzizka egoan, baiña lerdan, - zubigaiñetik jasten zanean; - aundiki baten alabea beragaz eroan eban, - arrantzale prestu zaar baten alabea; - bere sorterrira biurtu zan - gizaseme ona - eta arrantzale zintzoa.

Gero, bere emaztearen ezkon-sariaz, - arrabit eder bat eraiki eban, - tertza ta arraunakaz, ba - laster aspertu zan, eta barriz joan zan. - «Agur, esan eban, - emazte xarmanta». - Eta barriri joan zan.

Ikatz-arri loiak - ez dau baltzitzen aren ontzi-tabieta: - iru oialezko ontzi zuriz - nai alako bidea dagi: - ur-zirimolakaitik - aren ontzia ba-doa - Jainkoak nai dauanez.

Usain gozoa dario ontziari, - barriri miztillutua. - Ezkatz jantzitako arrain eskerge antzo - dizdiz dagi alde guztitik; - ondo margoztua dago - eta usain gozoa dario - alde guztitik.

Iru aingura txiki eder daroaz - Kepa Donea aurrekaldean... - Kepa Donea, bial eiozuz aize meiak - eta jagon eizu arkaitzetatik! - Zuzen ainguraren kakoa - arkaitz artean!

Arrain freskoa dauke ostiralerako. - osin garratzeko arrain guztia dauke. - Port-Véandre'rantz itxas-ertzez egiñik, - itxasoan zabaltzen dabe zarea: - astelen, astearte, - eguen, bariku, - itxasoa suntsitzen dabe.

Zeto portuan saltzen dabe arraiña - eta, beti itxas-aizeak eraginda - urrezko luissez eta txanpon txikiz - Frountignan'go ardaoa erosi daroe. - Dirua irabaziz - Zeto'n zamaten dabe Frountignana.

Zigarroen ke artean, - Magalouoo'n, Bou'ko portuan, - gatza kargetan dabe eta, gaiñera, garia, - eta oro geratzen da aserik, batetik bestera; - lobentzat - zigarroak dagoz - eta oski ederrak.

Lepari gazteak, kideko alaiak, - portuko jenteak, probentzar leialak, - itxadarrean sartzen ikusiaz bat, - iru saltu dabez emoten ontzi aurrean: - Ea! Erasora, - lagun alaiak! - Eta iru saltu emoten.

Mallorka'tik dator ontzia - laranja zamaz astun: - lore-uztai berdez koroitu dabe - ontziaren masta nausia; - zori onez - Marsella'tik dator - itxas-ontzia.

A. O.

ESOPO'REN IPUIÑAK

131.— Atuna eta izurda

Atun bat, izurdeak erasota, zarata aunditan ebillen. Etsaiaren autzetan jausi-zori egoelarik, bere jauzi edo saltu-indarrak, konturatu bage, ur-ertzeraiño jauirti eban. Antzeko oldarrak eraginda, izurdea be toki ber-berara egotzia izan zan. Atunak itzuli ta izurdea ikusi eban azken-arnasa emoten.

—Ez daust ardura il-arren —esan eban—, neugaz batera ilten ikusten dot-eta nire eriotzaren errudun dana.

Ipuin onek erakusten dausku: ezbear eta naigabeak errez eroan oi doguzala eurok dakarskuzanakaz erdi banatuta ikustean.

132.— Osagille ezjakiña

Osagille batek gaixo bati kontu artzen eutson; besteak esana eben, arriskuan ez egoan arren, gaixotasuna luzarokoa izango zala; ezjakiñak bakar-bakarrik esan eutson artu egizala berak agindutako guztiak, urrengo egunetik etzala igaroko-ta.

Egun batzuen buruan, jagi zan gaixoa, baita kanpora urten be, naiz-ta laru ta nekez ibillirik. Bidean aurkitu eban gure medikuak eta bota eutson:

— Zelan dagoz, adiskide, inpernuko arimak?

— Trankil —gaixoak ari—, Leteu'ko ura dabelako. Baiña azken orduan Hade'k eta Erio'k zemai (amenaza) ikaragarriak egozten zituen osagilleen aurka, gaixoai ilten izten ez dautselako; olako danak eukezan euren liburuan idatzita. Zu be apunte-tara joiazan, baiña ni arein oiñetan auzpeztu nintzan zu ez ziñala egiazko medikua zin-egiañaz, eta errazoi barik salatu zinduezala esanik.

Ipuin onek ixeka ta barre dagi osagilleen lepotik, berba ederrak baiño esaten ez dakien osagilleen lepotik.

133.— Osagillea eta gaixoa

Mediku batek bere zaipean eukan gaixo bat. Il zan au, eta medikuak illetetara joiazanai esaten eutsen:

— Gizon onek ardaoa itxi ba'leu, eta bisusturak ipiñi, etzan ilgo.

— Adiskide —erantzun eutsoen—, ezta orain ezertarako balio ez dauanean au esan bear zenduan ordua, leenago baiño, zure onua (kontsejua) ongarrri izan eitekeanean nunbait!

Onek erakutsi daroa, adiskideai laguntza emon bear jakela orren premiñan aurkitzen diranean, eta ez jakitun itxuraz berba egin euren auziak galdurik dagozanean.

134.— Mirua eta sugea

Miru batek suge bati oratu ta eroan eban goiak zear. Sugeak, arrapakariagana bihurturik, kausk egin eutson; biak goitik beera amiltegi batera jausi ziran; eta mirua an galdu zan betiko. Sugeak ordun onela:

— Zoro! Zergaitik kalte egin nai izan dautsozu egiten ez eutzunari? Zuzen zigortua izan zara ni arrapatu nozulako.

Gizon batek bere griña txarrak eraginda bera baiño argalagoi kalte dagitseanean, bera baiño indartsuago bategaz aurkitu daiteke iñoizkoren baten, eta orduan kitutuko dauz uste ezean aurretik egin zituan txarkeri guztiak.

135.— Irrintzi egin nai izan eban mirua

Miruak antxiña beste abots bat eukan, abots zoliagoa. Baiña bein zaldi: bati entzun eutson irrintzi ederra egiten, eta berak be orrela egin nai izan eban. Baiña saio ta saio ibilli arren, ez eban egokitu al izan zaldiaren abotsa, eta gaiñera, bere abotsa galdu egin jakon. Olan zaldiaren abots barik eta bere antxiñako abots barik geratu zan.

Izaki xume ta bekaiztiak euren izaeraren kontrako egokitasunak nai izan oi dabez, eta dagokiezanak galdu.

136.— Txori-eiztaria eta suge-gorria

Txori-eiztari bat, likea ta likazturiko abartxoak arturik, joan zan eizara. Bidean zozo bat ikusi eban zugatz jaiki baten ganean, eta axe bereganatu nai izan eban; ortarako, ipiñi zituan lurrean sarturik, oi diran lez, zotzak eta adi-adi jarri zan gora begira; burua jasotzean, etzan konturtdtu, eta lo egoan suge bat zapaldu eban ankeaz; onek, iraulirik, aginka egin eutson. Eta eiztariak, il-agiñean, esan eban bere kolkorako:

— Doakabe! Arrapakin bat eskuratu nai izan dot, eta ez nintzen oartu neuk neure burua eriotzaren arrapakin biurtzen nebanik.

Geure urko-lagunari zelata-sarea jarten dautsagunean, geu gara lenengo zori txarrean jausten gareanak.

137.— Zaldi zaarra

Zaldi zaar bat errotarriari eragiteko saldua izan zan. Bere burua arriari loturik ikustean, ots-egin eban negar-zinkulinga:

— Lasterketetan ainbat itzuli eder emon ondoren, ona nun aurkitzen nazan orain bira oneik emoten!

Ez arrotu, otoi, gaztaroak naiz izen onak emoniko indarragaitik. Askok eta askok aitu oi dabez euren zartzaroko egunak lan neketsuetan!

138.— Zaldia, idia, txakurra eta gizona

Zeus'ek gizona sortu ebanean, bizitza laburra emon eutsan. Baiña gizonak, bere adimenari lan eragiñik, negua eltzean etxea jaso eban, bertan bizi izanik.

Otzak gogor-azten eban egun batez, eta euria goitik, zaldiak geiago eroan ezinda, gizoganaiño eltzen zan bizkor be bizkor, eta aterpea eskatu euson.

Baldintza bategaz egingo ebala erantzun eutson: zaldiak egokiozan urteetatik zati bat itxi bear eutsola. Zaldiak baietz. Andik laster idia be an agertu zan: ezin eban onek be eroan eguraldi txarra. Gizonak bardin erantzun eutson: ez ebala beragaz artuko bere urteen zati bat izten ez ba'utson; idiak baietz, eta berarekin artua izan zan. Txakurra be, azkenez, otzaren otzez il bearrean, an agertu zan, eta, bizitzeko eukan aldiaren zati bat itxirik, lortu eban aterpea.

Ona ondorena: gizonak, Zeus'ek emondako aldia beteten dabenean garbiak eta onak dituzu; zaldia gandik daukezan urteetara eltzen diranean, bulartsu ta arroak dira; idiarenak daukiezanean, agintzaille biurtzen jatzuz: eta txakurraren aldira eltzerakoan, euren bizitzaldia amaituz, asarrekor eta umore txarreko egiten dira.

Ipuin au ondo dagokio agure marmarati ta triperreari.

139.— Zaldia eta zaldizaiña

Zaldizain batek ostu ta saldu egiten eban bere zaldiaren garagarra; baiña, orren truk, egun osoa emon oi eban zaldia garbitu ta txarrantxatzen. Zaldiak esan eutson:

— Ederra ikusi nai ba'nozu egiazki, ez eizu saldu neurea dan garagarra, neure jatekoa da-ta.

Alegi onek erakusten dausku: zekenak euren itz ederrez eta koipekeriz jolas-eragin eta alaitzen dabezala burubako ta zuntzunak, bear dabena be ostuten dautsela.

140.— Zaldia eta astoa

Gizon batek zaldia ta astoa eukazan. Egun batean, eurok bidez joiazala, astoak bota eutson zaldiari:

— Ar eizu nire kargatik zati bat, nik daroadan bizimodua interesgarri ba'jatzu.

Ez entzun egin eutson zaldiak, eta astoa lurrera jausi zan ziplo ta antxe il zan. Jaubeak orduan karga guztia zaldiaren lepora bota eban, baita astoaren narua be. Eta zaldiak murmur intzirika:

— Nik bai zoritxarra egiaz! Sorta ariña artu nai ezagaitik, orain zama osoa eroan bear, eta narrua gaiñera!

Ipuin onek erakusten dausku: aundiak txikiakaz alkartzen ba'dira, biak olan euren bizitza ziurtzen dabela.

141.— Zaldia eta gudaria

Gudari batek, gudak iraun eban arteiño, garagarrez janaritu eban bere zaldia, bere neke ta arriskuetao laguna axe bait zan. Baiña, guda amaitu zanean, zaldia morroi-lanak eta batez be karga astunak ara ta ona eroaten jardun bearra eukon; janarizat, barriz, lastoa bakar-bakarrik.

Guda barri baten albistea iragarri zanean, turut-otsez iragarri be, jaubeak artarako jantzi ta iskillotu eban bere zaldia; azkenez zaldira igon zan. Baiña zaldia, indar-ga, txitean pitean jausten zan lurrera. Atzanean, esan eutson bere ugazabari:

— Oa orain oiñezkoen artera, zaldia nazala asto egin nok eta. Zelan gura dok asto bat zaldi biurtzea?

Trankil eta seguru bizi gareanean, ez daiguzan aaztu zoritxarra gaiñ genduaneko egunak.

IGOTZ

GARBITOKIA*(Dante)**IV KANTUA*

Muiña. Nekez baiña mendira igotzen dan lekura eldurik, bi Olerkariak bide-zidor estu malkartsu baten sartzen dira; esku-oiñekin bide egiñaz dijoazki aurrera, mendiak duen len-ordokiraiño. Emen eseri dira, eta Bergili'k eguzkia zergatik aurkitzen dan bes-tekaldean azaltzen dio Dante'ri. Onek, berriz, arkaitz itzalpean etzanik dauden arima askoren artean, Belakua alper-ontzia ezagutzen du. Onek adierazten dio nola dauden bertan, bizitz-burura arte, Jainkoagana biurtzea atzeratu zutenak.

Atsegin naiz oiñaze eragiñez gure almenetarikoren bat sorgortu oi danez, arima ere bere baitan kiribiltzen da, eta, itxura danetik, ez dio beste indarri men egiten; au, ordea, guregan arima baten ondoan beste batek arnas dagiala uste dutenen aurka dago; ortik, arimea zur ta lur egjiñik daukan zerbait entzun naiz ikustean, aldia giza-semeak konturatu gabe dijoa bere bidean aurrera; bat bait da entzuten duen indarra ta beste bat arimari oso eusten diona; au loturik bezela daukazu, ta aske bestea. Ondo nabari izan nuen au ezpiritu ari entzun eta bera mirestean; eguzkia berrogetamar mailla gorago igoa zan, ni artaz oartu gabe, arima aiek, danak batera, «Or dago zuek galdetzen dezuten bidea» deadarrez asi zitzaizkigun tokira iritxi giñanean.

Nekazariak sarri, maatsak gorritzkatzen diranean, zulo aundiagoa ertsi oi du sasi-eskutadaz, arimak gugandik banandu ziranean guk, Gidariak eta nik, igo genuen zuloa baiño. Sanleo'ra eltzen da. Noli'ra jatsi, Bismantova'ra, tontorreraiño, oiñez ere igotzen da, baiña an egaz egin bear zan, ego ariñez esan nai dut eta gurari bizizko lumaz, itxaropena ixuri ta argia ematen zidan urak zuzenduta noski baiño noskiago.

Aitz zartatuen tartetik zan gure igoera; alde bietatik estutzen ginduzten aien ormak, eta azpi latz malkorak esku-oiñak erabiltzera beartzen. Arkaitz garaiazen goiko labarrera, leku irikira iritxi giñanean, nik esan nuen: «—Ene Maisu, orain zein bide artuko?» - Eta ark erantzun zidan:» - Urrats bat ere etzaitetz atzeratu; jarrai zakizkit mendian gora atzetik, zuzentzaille trebe bat ager dakigun arte».

Oso garaia zan mendi-kukutza, begiekin garaitu eziña, eta aldatza orratz-laurenetik, erdiunera jeisten dan lerroa baiño aski erripeagoa. Nekatua nengoan, eta oiuz asi nintzakion:» - O aita samur! Biur zaitez eta ikus; astiroago ez ba'zabiltza, bakarrrik gelditzen zara!» - «Ene semetxo-esan zidan, saia zaitez oneraiño etortzen». Eta alderdi artatik mendia osorik inguratzen zuen mail-koska bat goraxeago erakusten zidan.

Adorea bait zidaten aren itzak erantsi. saia nintzan aren ondora igotzen, azkenez ere nere oinpean ikusiz aitz-mokor troska. An exeri giñan biok, eguzki aldera begira, igo giñean lekurantz noski, ibilli dan bideari so-egitea atsegingarri izan oi da-ta. Lenengotan nik beeko sakonera zuzendu nitun begiak; gero eguzkira jasorik, miretsia geratu nintzan aren izpiak gu ezker-aldetik joten ikusiaz. Laster oartu zan olerkaria ni sor-lor nengoala argiaren gurdia gure eta Ipar (Akilon) artean igarotzen ikuskatuz. Esan zidan: «Kastor eta Polux, guri goitik eta beetik beren argia bialtzen digun izpillu urarekin batera ba'leude, Zodiako ikusiko zenuke, gorritzatua, oindio urbillago ikusiko zenuke Artz-izarretatik, biraka noski, bere oizko bidetik irtena ez baldin ba'dabil beintzat. Au nola daiteken jakin nai ba'duzu, irudi ezazu, zeure baitan bilduta, Sion eta mendi au, onela daudela lurraren gaiñ, biak dauzkate osertz berdiña eta boil-erdi ez-berdiñak; ortik, ba, ulermena argi ba'darabiltzazu, laster ikusiko duzu. Faeton'ek bere txarrerako ibiltzen jakin ez zuen bidea naitaez doala mendi onen alde batetik eta lenengoaren alde aurkakotik.

«Egi-egiaz, ene maisu —erantzun nion—, ez nuen egundo orren argi ikusi admirri nirudian alako gauzetan, orain bezin nabari, goiko borobillaren erdian dagon oboa, lur-gerri edo antzeren baten Ekuadora deritzana, eta beti uda ta negu tartean dirauna; ori dala-ta, emendik urrun dago ipar aldera eberrak alde berorantza ikusi oi zuten bestea. Baiña, eder ba'zaizu, leiatsu jakin nai nuke zenbat bide ibilli bearra dugun oraindik, mendi au nik begiz iritxi daikedan baiño gorago igonik doa-ta».

Ak jardetsi zidan: «Alakoa bait da mendia, igotzen asikeran beti neketsu, baiña batek gorago ta neke gutxiago nabaitu oi dizu. Orixegatik, urtiraren barna leun-leun doan ontzia bezin azkar zoazala iruditzen zaizunean, orduantxe zagokez bide-txiorraren azkenean. Gorde ordukoxe zure atsedeen-irritsa. Ez dizut beste ezer eskatzen, auxe bakarrik bait daukat ziurtzat».

Ark itzok ebaki besterik ez, abots au aditu zan ondoxean: «Aurretik, bear bada, eseri bearra izando duzu!» Ori entzuean buruak biur genitun biok, eta arkaitz mokor aundia ikusi genuen geure ezkerretan, aurretik ez nik ez arek auteman ez genuena. Urbil giñan arengana, eta arkaitz ostean nor batzuk ikusi genitun; itzalpean gizaki nagi-ustelak egon oi diran bezela, etzanik eta geldi. Areitatik bat, niri nekatua iruditu zitzaidana, jarririk zegoen eta belauak kurutzaturik. arpegia beuron artean eukala.

«O ene jaun atsegin! —jalgi nuen nik—; jar ezazu begia, zakur zuria bere aizpa ba'lu baiño ere fardelagoa dirudin orregan». Ura ordun guregana itzuli zan, aztertu giñuzan, bere berna-gaiñez begiak bialtzen zizkugula, eta irauntsi zuen: «Zoaz, ba, gorago, ain adoretu agertzen zarean azkero!».

Ordun oar nintzan nor nuen; oraindik ere arnasa iñausten zidan pizkat, baiña ez nuen oztopo izan arengana urreratu nendin; eta ni bere ondo-ondoan ikusiz, oztotan jaso zuen bere burua, esanaz: «Onda ikusi ote duzu eguzkiak nola daraman bere gurdia zure ezker aldetik?» Aren ikara nagi ta itz laburrak erdi-iriki zizkidan ezipaiñak irri-parretan; gero asi nintzakon esaten: «Belakua, onezkero ez natzaizu errukior, baiña esaidazu: zergatik zauzkat emen ain eseria? Bidariren baten zai al zagoz? Edo-ta betiko nagikeriak mende bir-artu?».

Eta arek: «Ai, anai! Zer ete dakar gora igotzeak? Jainkoaren aingeruak, ba, garbitokiko atean jarrita dagonak ez dit araiño irixten utziko. Leenen bearrezko da, zeruak ni kanpo nengoela, nere bizitz-aldian eman zitun aiña bira eman ditzala nere inguruan, nik azkeneraiño luzatu bait nituen nere damuzko negar-zotiñak; Jainkoaren grazian bizi den biotz batetik jaikitako otoitzak lagun ez ba'datorzkit, besteak zer balio didate, zeruan entzunak ezpa-dira?».

Olerkaria, bitartean, igoaz joian gure aurretik, au esanaz: «Zabiltza onezkero; begira, eguerdi-orratza ikutzen dago eguzkia, eta gauak ere laster jarriko du Marruek itxas-ertzean bere oiña.

A. O.

BERTSOLARIAK

MAITAGARRI-MAITATUA

Itxasmendi'ko arkaitz gainean
gaur zegon giro alaia
etzaidala iñoiz aztuko neri
egon ninteke lasaia
ai batezere illunabarra
inguratu zan garaia
ura zan geldi egon eziña,
ura zan dantzatu naia.

Nere buruan auxe zebillen
jo bea eta jo goia
urteak joan da alparrikan duk,
gazte aizen arte saia.
Luzaro baiño lenago ditek
ire belaunak erdoia
orduak damu izan ezadin
erakutsi zak sasoia.

Pil-pil zebillen aize garbia
ta ango garo usaia
zer diran iñork jakin nai ba'du
emango diot epaia:
Alaitasunan itxasoa ta
maitasunaren ibaia
osasunaren itur-burua
gaitz guztien sendakaia.

Mendi-etxola apal batean
Salbatzaillean jargoia
gogoan daukat, an egindako
arrena edo otoia;
lagun deidala menderatutzen
grina txar guztien deia
batezere gaur neungan dabillen
aragikerizko loaia.

Nola bai-dugun geure burua
beti lenengo etsaia
une batzutan larri nebillen,
erori nintzan ia-ia
baiña ez-nuan izaterik nai
grina txar aien morroia
nere maitea etzedin izan
erreka zuloko loaia.

O! irailleko Gurutz Deunaren
ondoren datorren jaia!
Bai al-dakizu nolakoa eman
didazun emazte gaia?
Edertasunan ganbara eta
garbitasunan sapaia
birtute danen gordelekua
nere kutuntxo AMAIA!

Itxasmendiko arkaitz-artetik
loratxo bat dut artua
gutziz liraiña eta polita
usai gozoz ornitua
lurrean diran kolorerikan
ederrenez margotua
gaurtik aurrera nere begiak
badute nun gozatua.

Mirari baten antzekoa da
egun neri gertatua
izar eder bat begietara
bidean zait agertua.
Ortzean diran apaingarririk
bikaiñenez edertua
beraganako maitetasunez
dut biotza gaineztua.

Aitortuko dut billa asita
ez dutala arkitua
baizik gutxien uste nuala
alaxen egokitua
ikusi nuan une berean
maitasun-sua piztua
ni aren diña ez ote naizan
nago orain larritua.

Ez bildurrikan izan Amaia
ez-nago zutzaz aztua
ez uste izan nere biotza
dagoenikan ustua
ain gutxi berriz zureganako
maitetasuna oztua
geroz geiago nai dizut zuri
orrekin nago poztua.

Bildurgarrizko garretan daukat
nere barrena sutua
zureganako nabaitzen dutan
maitetasunak sortua.
Maita nazazu, bestela laister
nuke biotza lertua
edo malkoen bidez legortu
eta arri biurtua.

Nola bai-zauden begietatik
biotzeraiño sartua
arkitutzen naiz zure maitale
izatera beartua
eman didazun maitasun-itza
ba'zendu benaz artua
zu bai izango ziñakeala
MAITAGARRI MAITATUA!

ARTETXE'TAR ARKAITZ
«URDANETA»

HIL DA...

Hil da Gabriel Aresti,
borrokari ta amesti.
Beste mundura ihes egin du
bere mailu eta guzti.

Eskuan mailu berria
landu nahiaz Harria,
Kantauriako itsas ertzean
gure asabek jarria.

Trumoi eta hodei beltzak.
Nun dira jolas ta dantzak?
Zizel ta mailu landu beharra
Harri zaharraren ertzak.

Egun sentian zotinak
zurrunbiloan sorginak.
Goizean goizik mailu hotsa du
Aresti gure harginak.

Hargintzan ofizioa
harrizko afizioa,
Harri landutan egin nahirik
Euskaldun Palazioa.

Gaur lehertu da lanean,
Herriaren barrenean,
Euskal Harria borobiitzeko
enpeinu ta afanean.

Hil da Gabriel Aresti,
borrokari ta amesti,
bere lurrean bizi ezinik,
mingots, garratz eta ezti.

Arrasate 75-VI-11
A. MUNIATEGI

LEGORRETA'KO ERRETORE JAUNARI

1982'ko Abenduaren 12'an, Legorretako erriak, bere erretore edo parroko dan DON JUAN PEÑAGARIKANO jaunari, omenaldi bat eskeñi zion. Egun ortan bertan, Donostiako EL DIARIO VASCO egunkariaren bidez, ondorengo sei bertso oek eskeñi nizkion.

Ogei urte ta beste bost juxtu
Erretore Legorreta'n,
animen artzai jardun zerade
etengabeko lanetan.
Erri guztiak maitatzen zaitu
biotz biotzez, benetan,
eta omena izango dezu
gaurko igande onetan.

Beartsu eta gaixoentzako
beti zerade itzala,
ikusten dezu asko ta asko
eziñean dabiltzala;
lagundutzeko zu beti prestu,
ain zerade serbitzala,
egiten ari zeraden lanak
Jaunak onetsi ditzala!

Denboran zear ainbat beartsu
zure ateraiño juan,
galdera auxen egiten dute:
Etxean al da don Juan?
Pozaren pozez gelditzen dira
zertxo bat jasotakuan,
baiña beti zu poz aundiagoz
oieri emandakuan.

Zar eta gazte, berdin aurtxoak,
alai zure ingurura,
kristauen artzai izatekoa
sortua zera mundura.
Guztientzako zu beti lagun
Jesukristo'ren modura,
zuri eskerrak anima pranko,
juanik ba-degu zerura!

Sermolaritzan goimaillakoa,
nun degu zure berdiña?
paregabeko etorriakin
izlari on eta piña.
Zuri entzunez, beti sortzen da,
barruan poz, atsegiña,
obe genduke, don Juan maite,
zure laurdena ba'giña!

Bertsoen bidez jaso zazu gaur
erri baten zoriona,
ikusten dezu zure lanakin
oso pozikan dagona.
Beti zerade apaiz jatorra,
beti zerade gizona,
itz batez garbi aitortzekotan:
BENETAKO ARTZAI ONA!!

IBAI-ERTZ.
ITSASONDO

ARANGUREN'TAR DANIELI BERE JAIOTERRIAK ESKEINIA

Nua zuretzat opari bila
olerki kutsan barrena,
nere aldetik eskeiñi nairik
zuri bertsozko omena.
Zure lagunak esanda dakit
euskotar fiña zerana,
ta aspalditik ziñan niregan
zeru beraren urrena,
ezagutu ta ikusi gabe
maite izan zaitudana.

Aberriaren ilunabarra
edo ta arrats gorrian.
Gernika sutan ikusi zendun
une latz negargarrian.
Aberri miñez itsasoruntza
atzerrirako bidian,
berrogeitaka urtez geroztik
berriro zure errian,
pozik al zaude Aitak eta Amak
sortu zinduten lurrian.

Zure Legazpi, zure Gernika,
ta berdin zure Euzkadi,
askoren gogoz auts biurtuak
bear zutenak aspaldi.
Bañan bizi nai duen erri bat
ezin du suak kiskali,
naiz ta etsaien gorroto sua
ez dan erabat itzali,
esan munduai «Euskal Herria»
bizirik dala oraindik.

Zuri agur au eskeiñitzia
guretzako bidezkoa,
zu bai zerade askatasunan
emaitza edo fruitua.
Alkaterikan gaztena ziñan
Euzkadin aukeratua,
zure ordezko aberkide bat
gaur ba degu autatua,
bete dezan zuk aspaldi utzi
zenduen eserlekua.

Euskal Herria askatuko da
nago ziur siñetsia,
edo nai nuke amets eder au
amaitu gabe iltzia.
Amerikatik datorrenian
zure semien semia,
ikusi dezan erri au aske
ta eusko aritez jantzia,
aritz oien artian zutik
Aitonan jaiotetxia.

YOKIN ZAITEGI

I

Zaitegi jauna biotz barrendik
zuri agur eta ornen,
nai nuke izan nere erruak
aitortzeko ainbat kemen.
Bizi ziñala egin naieko,
zor nizun ainbat aitormen,
baina mundutik agurtu zera
ni konturatu baño len,
esker gabeko lagun auekin
ain aspertuta al zeunden?

II

Aldizkarien sortzaile ziñan
baita beraien babesle,
euskeratzaile zintzo zuzena
olerkaritzan txit trebe.
Euskerarentzat ain aberatsa
zeure buruan eskale
esan daiteke batera ziñan
nagusi eta mirabe,
orain euskerak eta erriak
zer egingo du zu gabe?

III

Izkuntz arloan agertu zendun
naikoa piper ta gatza,
belarrak kendu, sasiak moztu,
zein atxurlari zorrotza.
Gaur dauden «sasi-jakintsu» askok,
AI! balute zure antza,
bildur naiz ugarituko dala
asuna ta barrabasa,
oiek ez dute zuk bezin gdrbi
zainduko Euskal baratza.

IV

Erritik urrun, an erbestean
euskeraz idatz ta mintza,
atera nairik gerra zitalak
ezarri zizun arantza.
«Asota» bat zan zure izkillu
«lergallu» berriz biotza,
beti elburu baten ondoren
salbatu euskal izkuntza!
ori da Yokin bai egitazko
abertzaleen iraultza.

V

Ordaindu naia bagendu baño
beti nabari zan kezka,
izendatuta zegon eguna
elduko aldan galdezka.
An Larreako baseliz artan
guztioke pozez gañezka,
zu omentzeko gertu giñan ta
nolaz joan zera igeska?
guk lurrean nai, baiña zuk nunbait
zeruan zendukan festa.

VI

Lurtar gizonok egin deikegun
aitormenik apalena,
nunai ta beti, sentitzea da
ezer ez batzuk gerana.
Guztion gaindik zauden Jainkoa
nik badet itxaropena,
gizon justuen atsedean lekuz
arduratuko zerana,
Aita Yokini eman zaiozu
betirako atsedena.

USARRAGA-ZAR

ANDONEGI tar ZIRIAKO «KUIREKA»

Andonegi tar Ziriako «Kuireka», jaio zan 1912'an Epail'ak 16an, éri bikain eta alaitsu baten. Gure gaurko gizon au, ez zan arantzalea, baizik joskilea. Mutriku da ba, bere jaiotería eta, al izan aldabean adrteraño, jostorátza izan da bere elikatura zarbideratuko eguna eldu arte. Or dago ba bere éri kutun ortan zain, egoaldiari begira, ia, eguzki apur bat badago bere ibilalditxo egiteko, ostantzean egun guztizan, etxe baruan egoten da, ez dau ba ezertxo egiten.

Ez, ez dau egiten ezer, bere arenkura da, ez dabilala ondo osasunakin eta, dana bertan bera lagata dago. Len, batez ere guda aurretik, idazlari sutsua zan, «Kuireka» izen-ordeagaz idazten eban, «EUZKADI» «EL DIA» «EUZKO GOGO» «EUZKO DEYA» «ZERUKO ARGIA» «KARMEL» «OLERTI» «REDEN-CION» abar ta abar.

Bere azken lana edo garántzidun lana, 1956'an Otsailean egin eban, «AITO-REN IZKUNTZ ZARA» da, amar bertso eder euzkeraren buruz egiña, garai artan, euzkel usain guztixak, jazarpen aundixak eukiten ebazan ta, «AITOREN IZKUNTZ ZARA» agertu zanian lenengo aldiz Ondároa'n txapel-oke; ta bere inguru-kuak ibili ziran jo ta ke, nor ete zan «AITOREN IZKUNTZ ZARA» ren egilea. Ondáru izan zan ba bertso onek zabaldu ebana, alan ta guztiz ere, gaur bertan, Ondáru'ta gitxiak dakie, bertso onen egilea, Andonegi'tar Ziriako dala, óregaitik ba, ona emen bertso eder oneik, ustez euzkaldunentzat atsegiñezkoa izango dalako.

I

Aitoren izkuntz zara
nai degu zabaldu
Munduaren aurf-ean
gizonki azaldu
Baldin gure zañetan
odolik badegu
Euzkaldunak euzkeraz
itz egin bear degu

II

Lendabiziko itzak
aurtxo nintzarian
Amaren besoetan
Bular barañian.
Itz auek esan zidan
izketa garbian.
Gorde euzkera semetxo
biotzen erdian

III

Zein izkuntza edera
euzkera guria
iñun ez det arkitzen
beste bat obia.
Usai gozo dun izkuntz
txukun ta argia,
Biraurikan ez duen
izketa garbia.

IV

Ez daukagu euzkera
lotsaz baztartzeko
ainbat gutxio befiz
oñazpiratzeko.
Jainkoak eman zigun
euzkaldunentzako
bere lege santuak
ez dira ukatzeko

V

Amatxok esan zidan
eriotz aurrean
¡Agur semetxo laztan
laister naiz lurpean!
Euzkeraz otoitz egin
nere lur gañean,
Euzkeraz nai det entzun
nik zorionean

VI

¡Ama! erantzun nion
zure lur gañean
Belauniko jarita
otoitz egitean
Euzkeraz egingo det
goiz ta aratsaldian
Biok zaudetelako
nere biotzian

VII

Etsaiak aurka dabiltz
euzkeraren gaitik
Len, orain eta beti
guztiz aspalditik.
Lurperatu nairikan
antzin-antziñatik,
Ez dute ori lortuko
iñongo aldetik.

VIII

Euzkera galdutzeko
ez dago beldurik
Munduan ez da sortu
ortako indařik
Sasi-jakintsu asko
dabiltz galdu nairik
Asmo txar orek guztiak
dirade alperik.

IX

Goratu dezagun ba
euzkera laztana,
Gure asabagandik
ikasi genduna.
Pozgarisiko izkuntza
maitatzen deguna
Biotz naigabetua
sendatzen diguna.

X

Gora euzkera maite
zoragarriena.
Euzkaldunen artean
maitagarriena.
Munduan sortu zanik
izkuntzik zarena
¡Cora ta gota beti
EUKADI TA EUZKERA!

KUIREKA

Mutriku'n egiña. Otsailak 1956an

1980ko GABONETAKO BERTSOAK

*Sehaskatxoa kulunkatzen da
sentimentuen hotsean;
soinu horretan kanta nahi dugu
bizitzako urratsean.*

Eguberriko soinua
aidean dabil alai
Belen aldeko izarrak
egiten digu dirdai.

Haurtxo Salbatzaile hori
guri begira ernai
munduari gogoratuz
denok garela anai.

Negu gorriko eguzki
lotsati ta logale,
odei beltzetan etzanik
amets tristet hor zaude.

Lotatik itzarri zaitez,
denok gara argi zale;
Eguberriz argi itzazu
baserri eta kale.

Neguaeren arnas hotza
zabaldu da aidetik
haren ikutu gordina
dator leiho-bidetik;

gizona errenka dabil
gizatasun aldetik
hainbat gaiso deika daude
beren bakardadetik.

Hainbeste behartsu dabil
bizimodu gogorrez
gizona nekez ari da
itsasoz nahiz lehorrez;

Gabon jaiez elkar poztu
geure bihotz xamurrez
Jesus Haurrari darion
irriño ta agurrez

Munduak hara ta hona
eman du hainbat bira,
betoskodun gizartera
betor argi dizdira;

Gabon jaiak, goibeldurik
egoteko ez dira;
lagun denok bil gaitzazu
zure irri eztira.

Gizartean nabari da
borrokaren geriza
lanaren urritasuna
gosea eta eza;

Jesus Haurrak gure Herrira
bakea ekar beza
ta borondate oneko
guztientzat babesa.

Arretaz egon zaitezte
gure kantu-hotsera!
urtero garraxi bera
jendeen bihotzera:

korpora joan zirenak
noiz bihurtu atzera...?
Euskadi dehadar bat dugu:
«ATOR, MUTIL, ETXERA»!!

Poztasunez txuri daude
mendi eta oihanak
neguko modaz dotore
lur goietako muinak;

Gabon-mezuz azkorturik
gure aiton-amonak;
herriko haur ta guraso
denoi ZORIONAK!!

LUIS BARAIAZARRA

TXAPELDUNEN AZPIAN EUSKERA

Arripean zangurruk,
Uretan bizia du;
Euskera berriz galdu,
Gure erruz egingu?

Azpel legorra lepogain,
Eguzki-beroak igartua,
Morroi gaztek eramanaz
Baserri-sapai zaarrera.

Belarra, bein pillatua,
Negu-janari on da,
Abereen urruma-ixiltzaile
Asetuz arein gose.

Ontan gure euskera,
Belardi igarra bezela;
Txapel-keriza-bearrean
Zimeldu-aginik dagoela.

Indartu dezagun euskera,
Arnas sendo-bizi eman,
Seaskan zure amak
Eman zizunik beroena.

Iraun ezazu aurrerantz,
Zeure iturritik edanaz,
Itz jatorrai sendo eutsiaz,
Bear utsez bakarrik arrotzak.

Atzarri adi, euzkotarra,
Goian euki ire txapela,
Kendu gabe burutik,
Izkuntza maite-maitaturik.

Eta bizitza igeskor ontan,
Ain motz baita izatea,
Aleginak alegin ein ezak
Ire danari iraunerazteaz.

Eldu-umaturik urtez,
Leka-barrun zazpi ale,
Odola ia agorturik,
Mendez mende zauriturik.

Aor zartatu-eziña,
Neke ta giro gorritan,
Anaitasun itz gozoak
Batuko al ote biotzak?

Baina dardaraz ni egon,
Banaka otsok iruntsiko,
Batera sendo iraungo,
Arizpean zazpiak ondo.

I, ken ortika ezin ibili,
Estu alkargana baizik,
Etsaia zelatan dugu
Atzarrik egon bear dugu.

Txapela bear ezaugarritzat,
Ikastola bidezko artaldetzat,
Itz zaarrak belardi,
Datozten aurtxoak loraldi.

Erantzun-bearra guk,
Arro-sakostak tontortu,
Gure euskera atera-nairik,
Be-amiltegi sakonetik.

Itsuak ere bai ba-ddu
Bere biotzean minik;
Argia sortu-naiana,
Bere begik eztuena.

Itxaro etsi-eziña,
Makilaz jo ta jo lurra,
Arutzago argi-bila
Makila aren argia.

Bete-betea tinkotuz,
 Jaso bearra euskera,
 Bidasoa erreka agortuz
 Zainduik zaiñez mugak.
 Gure izkuntza zaarra
 Bere-berez zabal dana:
 Aalko ¡guk! berari eutsi
 Izkuntza arrotzen gañetik?

Gu bai loti izan,
 Nai ta nai ez,
 Zazpi ortzeko sardaz,
 Kirten batekoak izatez.
 Ortara arrotz itzik gabe
 Gera geure bururen jabe,
 Elkargo euskera-zale
 Bera izanez gure ele.

Gure amaieran,
 Azi on berriztaua,
 Izan bear Euskal-erriak,
 Ondorengoako mintegia.
 Ez jaurti, ba, txapela,
 Buru-gaineko kukurra;
 Azkengak itsas-olatuak,
 Urtero berritu basoa.

Ortan Bidasoak,
 Darioian urak,
 Eziñ banatu iñola
 Esker eskumak.
 Bada gure izkuntza
 Alde bietara
 Bat egiña da
 Danona baño ez dana.

Zure mokoa egizu,
 Euskal lurrean sakondu,
 Oillagorr trebeak bezela
 Lur-izerdi surrutatuz.
 Aritz suster mardook,
 Aldiren aldi etenbakoz,
 Euskeraren zukutik artu;
 Itzak obi orretatik sortu.

KORKOSTEGI'TAR XANTI

PAGO-USOAK, EGARAZ

Goi-goitikan goaz,
 Urteroko ibillaldin,
 Ezagun bidetatik
 Ziur geure egaran.
 Ipar aldean jaikirik
 Egoruntz lurkoi egaldian
 Otzan arrisku igesi
 Beroaren billa.

Bikain aizea ziriki,
 Daukagu bultzaka,
 Ea, goazte egaran
 Bizikor goizetik.
 Ontan, egara batuan,
 Etenkor jokaran nunai;
 Zorrotz begik zearka
 Usokari'ren beldurti.

Ortzea zein izugarri
 Dagona gu-gaindi,
 Zillar dizditsu bera;
 Atsapar beetik... lurra.
 Ona! kataidun mallak,
 Berton arruz aundiak,
 Aal ez aldira egiñak
 Nekatzu egaztiren lastertzat?
 laburtzaz?

Gure gidari'ren usman
 Bidetik gabiltza,
 Elkartuik txoloma ta usok
 Moltso eginik danok.
 Zoli joaneran,
 Beti beruntz begira,
 Egokitu guran ura,
 Era berean ezkurrak.

Izararren goizaro,
Garai-aldin elkargok,
Agerian aizea biurri
Egiñaz berak eragotzi.
Mendi ertzak dira gaisto,
Egara lerroan gera motz;
Nun gu!... ezinik igaro,
Mengel ta galduagok.

Jausirik zaigu ortzikara,
Len goiz-aroen adarka,
Nolako dan gure gain
Goibel jarriz egualdi.
Laño naasmen ¡gu!...
Emen benetan larri,
Gosea degu barrun
Papoa uts gurekin.

Bestera guregai egarri,
Or, bean ikuspen,
Arizti ta pagadik,
Uste bako galbide.
Eiztariak ostape,
Eren izkilluk sama me;
Izate gure dago jene!...
Zurtz zalapar oraintxe.

Iraultzek geranok unean,
Bizirik uxaka ateraiak,
Abiatu'ik bear gerta
Egaldurikan dardara.
Eta galeste bidetan,
Alako aldarte ikaran,
Aldun goaz ego aldera
Etsaiak utzita albora.

Onezko gertarin
Ezta samur iritzi,
Gizona ainda eldu
Gu-danogan kaltetsu.
Ala-ere, gure izatez,
Lur aietara bear eratu;
An guraik umez berritu
Aieka odol jario'ik emen.

Azillak-7, igande. Oinati'n.
1976 garren urtea.
«Xalbador» olerkari mamitsua
il'ik zaigun itungarri eguna.
Onentzako nere eskeintza apal au.

KORKOSTEGI'tar XANTI

BIOTZ-NEGARRA

Aberritik urrun bizitza dan latza!
Naigabe zorrotzez zauriturik natza.
Aberri-zerua ezin dot idoro,
neke-zoritxarra biurtu iat oro,
Aberritik urrun dana eriotza.
Rana da negarra, dana itun-otza.

Igeska bai iabilt aspaldiz alaia,
biotz-barreanean daroat nekia.
Negu-baltz-illuna da nire barnean,
ta argirik ez dago nire biotzean.
Gogo gaxo onek zer daukan ez dakit,
aspaldiz baiñan, ai, itun-goibel daurkit.
Gaixo dot gorputza, gogoia areago:
zer dodan ez dakit, baiña goibel nago.

Ez dor gura ezer, ez dor ezer maite;
min-kate astunak estututzen naute;
ez dot nai laztanik, ez maitetasunik,
ez dot nai lorerik, ezta itz bigunik;
gabeko intzan antzo illunpez gogoia...
biotzean ez dot len neban beroa.
Dana uskeria, otz-utsa ludia,
negarra dot lagun, bera pozkekaria.

Aberritik urrun bizitza dan latza!
Naigebe zorrotzez zauriturik natza.
Itun dot gogoia, beti negarretan.
Aberri maitean beti amesetan.
Ene gogo leuna: itxi negarrari,
atzerri-bidean abil ameslari.

Gaztea naz eta ez dot nik il gura,
eriotzeak, ai, damosten bildurra;
bizitza gura dot, bera bai leguna;
maite ditu anai-arreba samurrak,
maite dauz lilluraz guraso tximurrak.

MAITASUN-EGARRIA

Umetandikan daroat neugaz
maitetasuna biotz-barnian:
maitasun onen joranez dabil
nire biotza une guztian.

Ametz gozoak sortutzen daustaz
maitasun onek biotz-barruan;
maitasun onen kilikilia
nabaitutzen dot neure goguan.

Maitasun ona, garbi-txukuna,
jaungoikozkoa nik daukadana;
Jainkoarentzat bakarrik bait-du
nire biotzak maitasun dana.

Jaungoikoaren billaka dabil
nire biotza amets ezitan;
maitale onuen oiñatza dakust
beti alde ta une guztitan.

Gau ta egunez atsedean gabe
maitale onen ondoren nabil;
asetuko daun iturri onen
billa ioranak beti narabil.

Maitasunaren egarri naz-da
egarri ori asetuteko,
nire gogoak usoak legez
egaka nai du igon gorago.

Gorago nai du gaxoak igon
maitalearen kabi gozora:
t'ezin egatu, ezin da igon
berak nai leuken toki gozora.

Mundu-loturak dauke gaxoa
estu gogorki lurrari artu.
lotura orreik askatu arte
ezin eduki Jainko altsua.

Maitagarri ta bere tarteko
laiño baltz orreik ezin urratu,
ezin du goruntz egaka egin.
Maitearekin ezin da batu.

Nai ta ezin du goruntz iñola,
ezin igitu bere egoak.
Maiteak Berak urratu bear
lotuta dauken kate sendoak.

Une aretan ezti-pozetan
astinduko dauz bere egoak,
t'egas ingo du Maiteagana.
tá asetuko dauz amets gozoak.

Aurrera, bada, ene gogoak,
bizitza-zear amestean beti:
amets gozotik esnatutzean
ase dagizun egarri ori.

G O I R I A

OLEAREN ZOZOA

I

Goiz Argi artu nuan
Jai arratsaldean,
Eta ipiñirikan
Maiaren gaiñean,
Irakurten poz-pozik
Asi nintzanean,
Emen ikusi ditut
Umore onean,
Bi txorizale elkar
Zirika naiean.

II

Irakurri det zuen
Ekite osoa;
Txorizaleentzako
Albiste gozoa.
Ez dakit nolakoa
Dan zure zozoa;
Baño baldin ba-zera
Benetan maixoa,
Albaiteruengana
Eraman gaixoa.

III

Emengo txorizale
Guztiok batera,
Gauza garbirik nola
Ez degun atera,
Begira jarririkan
Ondarru maitera,
Apalik natorkizu
Zerbait esatera,
Ta, neure eritzia
Argi ematera.

IV

Zozoa izaten da
Gauza onen zalia,
Lurpeko zomorro ta
Txitxarre jalia.
Udaran zureari
Eman igalia;
Udazken beranduan
Untzaren alia,
Neguan berotzeko
Beti mandeulia.

V

Nun-nai agertu arren
 Zuk maixotasuna,
 Entzun Serapiori
 Esaten dizuna.
 Ez da zozo emia
 Kaiolan dezuna!
 Ta, arra baldin ba-da
 Gaiñera lizuna,
 Nola izan zintezke
 Asko dakizuna?

VI

Zozo ori dalako
 Benetako arra,
 Kabian jarri zitzun
 Arrautza bakarra.
 Emia izateko
 Itxura kaxkarra!
 Ollarrak ere berdin
 Gaztea naiz zarra,
 Urtero izaten du
 Ori egin bearra.

VII

Txori beltz ori ez da
 Bide onekoa,
 Lana egiten zabiltz
 Alperrikakoa.
 Zure zozoa ba-da
 Bi arrautzakoa,
 Lenbait-len moztuiozu
 Anka artekoa,
 Orrela irabazita
 Daukazu jokoa.

VIII

Gogoratu ondoren
 Esaten zenduna,
 Ara beste gauza bat
 Kezkatzen ninduna;
 Moko berdixka eta
 Papar nabarduna!
 Ez ba-da Gaztelako
 Zozo tantaduna,
 Ia atera zaitzun
 Eme potroduna?

IX

Txorizale artean
 Dabilgun jarduna,
 Denak ezagutu nai
 Olea kutuna;
 Txori arrak elkartzen
 Ipini zituna.
 Pardillo Real'akin
 Arritzen gaituna.
 Orain arteko markak
 Borrako dituna.

X

Zozo ta birigarro
 Biok elkarrekin,
 Ez dezu burrukomiñ
 Makala oiek,in.
 Jostatzea pentsatu
 Ba-dute zurekin,
 Auxe egingo nuke
 Txori oietxeekin;
 Xaltxa goixoan jarri
 Patata batekin.

JOSE MARI AZPIRI

MAITASUN BAKARRA

DOÑUA: *Ikusten dezu goizean*

I

Eguzkiaren irtera,
Egunarekin batera,
Eldu da nere atera.
Gosaldu eta berealaxe
Nua lanean astera;
Arresi zarren osterera,
Toki batetik bestera,
Ogia irabaztera.

I I

Eguna igaro danean,
Eten gabeko lanean,
Aurkitutzen naiz kalean.
Lantegi dana gelditutzen da
Ixilik bakartadean;
Illuna datorrenean,
Nua etxera bidean,
Pentsatzen atsedenean.

III

Eguna utzirik atzean,
Etxe barnera sartzean,
Amarekin aurkitzean.
Afari on bat prest izaten det
Maira inguratzean;
Gu biok exeritzean,
Elkarri begiratzean,
Poza degu biotzean.

IV

Beti ari da galdetzen,
Nere barnea aztertzen,
Ba-du zerbaitek kezkatzen.
Berak nai luke ni ikustea
Neskatilla aukeratzten;
Eleiza bidez ezkontzen,
Oiñordeko bat jaiotzen,
Sendi berria loratzen.

V

Ez du merezi asterik,
 Gutxio buru austerik,
 Oraindik nago gazterik.
 Ama maitea zuk ez dezu nai
 Ni mutil zar ikusterik;
 Zu baño andre oberik,
 Ezta munduan besterik,
 Ez det bear emazterik.

VI

Nik daukatan ondasuna,
 Aspalditik dakizuna,
 Zuretzako maitasuna.
 Ama zu zera mundu ontara
 Ni ekarri ninduzuna;
 Betiko laguntasuna,
 Bizitzako poztasna,
 Nere zoriontasuna.

VII

Gazte ziñala andretu,
 Mutil on bat aukeratu,
 Bera betiko maitatu.
 Ezbear batek zure senarra
 Egin zuan lurperatu;
 Alargun ziñan geratu,
 Ni ume-zurtz munduratu,
 Ez nun aitik ezagutu.

VIII

Berari begiratzean,
 Zarra dala oroitzean,
 Miñ artzen det biotzean.
 Zer izango da nere bizitza
 Ama laztana iltzean;
 Maite nuana galtzean,
 Bakartadea sortzean,
 Bakarrik etxe utsean.

IX

Ementxe ainbat urtean,
 Bizirik zauden artean,
 Beti gu biok batean.
 Nere poza da zu ikustea
 Gure etxeko atean;
 Zure muxoa artzean,
 Nik lanera irtetzean,
 Naiz gauean itzultzean.

X

Ama, gu bion arteko,
 Gauz danak ondo joateko,
 Zugaz batera ilteko.
 Jainko onari eskatzen diot
 Nere deia entzuteko;
 Bakarrikan ez uzteko,
 zurekin eramateko,
 Grazi auxe emateko.

JOSE MARI AZPIRI

GUDA

I

Milla bederatzireun eta
Oitamaseiko urtean,
Agintariak konpon-eziñik
Zebiltzan Madril aldean.
Garai artako gizontxo asko
Bildurik talde batean,
Guda zital bat atera zuten
España!ko lurrean.
Arnak artuta agertu ziran
Mendietan da kalean.

II

Pakean bizi giñan ementxe
Geure aberri maitean,
Guda zer zanik ere ez genkin
Irurogei bat urtean.
Baño etsaiak agertu ziran
Eusko semeen artean.
Anai geienak banatu giñan
Batere uste gabeen.
Zorroztutako ezpata zegon
Dindiliz gure gaiñean.

III

Ikusirikan nola zegoan
Erriaren egoera,
Euskadi maite zureen guztiak
Mendira ziran atera.
Gu zapaltzera zetozeneri
Arpegia ematera.
Etziran irten besten gauzarik
Lapurtuta ekartera.
Baizik gure lur maitagarria
Odola emanaz zaintzera.

IV

Gure lurrean egin zituzten
Ilketa negargarriak,
Alde danetan agertzen ziran
Odolezko iturriak.
Errazoi bidez esaten zuten
Zueik zerate gorriak:
Euskalerrria garbitutzeko
Ditugu lege berriak.
Au egitera beartzen gaitu
Jaungoikoaren legiak.

V

Egun aietan euskal zalerik
 Etzan inun lasai bizi,
 Aiek zeukaten kristautasuna
 Ondo genduan ikusi.
 Inork etzuan errukirika
 Ez bizitzarik merezi.
 Ill ez besteak erbesteratu
 Naiz atzerrira igesi.
 An errazoiak etzun balio
 Indarra zuten nagusi.

VI

Odol-usturik gelditu ziran
 Euskal semerik onenak,
 Andre ta gizon, neska ta mutil,
 Errurika etzutenak.
 Espetxe eta lan gogorretan
 Arrapatu zituztenak;
 Alperrik egin genitun gure
 Anaiei alde arrenak.
 Inolaz ezin lurmendua aien
 Izoztutako barrenak.

VII

Otsoak artzen duan bezela
 Bildotsa ortzen artean,
 Gu ere berdin erori gihan
 Gizon txar aien menpean.
 Eleiz gizonak iltzen zituzten
 Erriarekin nastean.
 Inortxo etzan errukituzten
 Odol ura ikustean.
 Danak pozikan gelditzen ziran
 Azken bala ematean.

VIII

Ala bear da iritxi zaigun
 Gudaren azken eguna,
 Orain aipatu bearrez gaude
 Guri gertatu zaiguna.
 Millaka ume guraso gabe
 Alargun andre aurduna.
 Seme maiteaz oroituztean
 Negarrez ama kutuna.
 Kristo'n izena agoan artuz
 Auxe da egin zaiguna.

IX

Geroztik beti ibili dira
 Erria nairik apurtu,
 Berrogei urtez saiatu arren
 Gauz ori ez dute lortu.
 Garai batean zuten indarra
 Betiko zaie agortu.
 Begira beren sendietara
 Ikus zer zaien gertatu.
 Euren semeak ere Euskadi
 Egiten dute goratu.

X

Gure artetik asko joan ziran
 Gu emen gaude lurrean,
 Eusko aberri maitagarrian
 Bizi nai degu pakean.
 Zeru goietan didar egiñaz
 Aieri esan naiean.
 Zueik odola ixuri eta
 Ildako leku berean.
 Gazte berriak sortu dira-ta
 Euskadi dago lorean.

JOSE MARI AZPIRI

KOPLA BERRIAK GABONETAN JARRIAK

Kanta-kantari ta alaitasunez
jotzera gatoz pregoia
ea oraintxe argitzen zaigun
laiñotsu den zero-goia.

Haitzean sortu elorriak
lurretik du jatorria;
gaur jaio zaigun Jesus Haurrari
eman ONGI ETORRIA.

Gau ilunaren tristea
goiz-argiaren biztea;
Xemeineraino heldua zaigu
Aingeruen Albiste.

Zapolatik Elkorra
bakoitza bere alorrera;
Salbatzailea azaldu zaigu
gure mundu gogorrera.

Arretxinagako haitzak
menderatzen oso gaitzak;
gure Herrian iraungo al dute
Jesus Haurraren emaitzak.

Artibaitik Ondarrura
itzul-inguruka ura;
gure bizitza legorreraino
dator Jesusen freskura.

Markinako kale zarrak
gure kondaira susterrak;
judar herrian dauka sorrera
Belenen jaio den Haurrak.

Pelota-tokia plazan
Markina hor bere saltsan;
Gabon-jaietan atso-agurak
ikusiko dira dantzan.

Etxebarri ta Markiña
Bolibar eta Bariña;
zorionean bizi gintezke
kristau jatorrak bagiña.

Neguak berekin hotza
kristal-dizdiraz izotza;
Eguberriek gozotu ezik
benetan sasoi mingotsa.

Hegaz dabil txoriñua
dena poztasun doiñua;
Belen aldetik izartxo batek
egiten digu keinua.

LUIS BARAIAZARRA

GORROTOAREN SUA, GERNIKA'n

1937'go Jorrailaren zorigaitzeko 26'ean

Oi!... zelako egun okerra,
Gaurkoz argitu zaiguna;
Gernika'n astelena,
Asteroko peri-eguna,
Aldi artan, ogeitairuko
Morrosko mardul nintzan,
Mutil sasoirik oneneko
Eta pakezalea benetan.

Goiztirik ernaldtu eguna
Dizditsu, txartzeko gerokoan,
Okertzat biurtuik arratsera,
Ainbeste eriotza ekartekoa.

Aor, gure buru gainean,
Gernika'ko zeru-sapaian,
«Kondor» egazkin errudunak.
Euskal-odol gosez etorriak.

Ene!... a errukarri,
Eriokuntza dala nagusi,
Gorrotorearen alegiñean
Jausi jakuna guregan.
Aurki orrela Gernika,
Euskoen uri itzaltsua,
Txikiturik izango lerkaiatz,
Erropalduz bera su goritan.

Gauerdi dala ainkari.
Nere biotza pilpilka,
Lur-gorri auzora bidezti
Ango lagun jakin guraz.
Olaeta'tar Segundo, ta...
Berearen sendi-arduraz,
Illun-ikaran ni arontz,
Eurak bizirikan gurako.

Bein etxera sartu-ala,
Kandel-argitan ikusiaz
Sendi ta auzotar bilduak:
A nere gozaren itzala!
Alako gertaldi gogorrean,
Larri itzalpe bildurgarrian,
Agurtza eskainka zerura:
Or, Segundo besarkatu leena.

Antxe, atze utziz nire poza,
Lur-gorri auzoa jareginda,
Barriro bidari nintzan
Gernika'ko triskantzara.

Leenen, su gori makala,
Gero karobi biurtua;
Gori-goriak etxe ormak,
Dangaka lurrera eroriaz.

Miren Deunaren eleiza,
Ekin-barri zan erreten;
Gertun gure aritz gurgarria,
Alan bearrez kalterik gabe.
Eskerrik onenak Bilbo'ko
Su-itzungille bikaineri,
Ortara alegin ziralako;
Bestelan galdua genuelarik.

A gau itzalaren itzala!...
Negar ta isturaz betea,
Ume, nagusi ta gudari,
Garr gorietatik igesi.
Begira sutargi zabala,
Iñoiz be aaztu eziña,
Nik ikusirik aundiena,
Erri oso batera errea.

Zart eginda nere biotza,
Olako ondamen-aurrean,
Urduri laister eldu nintzan
Enparantzagain-mailetara.

An aurkitu egin-egiñean,
Ortiz'en Aurelio jauna,
Gaisotegitik zuzen etorrena,
Bertan ziñalpen einbarria.

Gizon ona, eskuitar bera,
Erri-notari bizartsua,
Gaitzetsiz ak alako zera,
Dardaraz zeukan soin osoa.

Lekaiame, umetxo ta zaar,
Lerkai goitik eralgiz ilda;
Zaar-kabia lurra jota,
Bizirik urtenak minbera.

Jator jator eta ezauna,
Gizon ori, zintzo zintzoa,
Eziñ onartu a kaltea,
Negarrak mosua beera.

Erriak, berez zentsuntsuak,
Buruz ere berez argiak,
Unetaraiño min-mindu, ta...
Igarri goiko arranoa.

Suak baeban, bai, indarrik,
Nere izatek be arimarik,
Zirti-zarta igi-bearrik,
Erria ain larri izanik.

Ordularia ibilian,
Egun barriren biak joaz,
Belaxe ni lekaimetxean,
Ana Deunaren ataurrean.

Emen atetan etxe-lagunak
Lekaiamea ume mordoskagaz,
Ados-eziñ logura astuna,
Ta aurre-sua ikus-galea.

Ontan lekaimeen eskarira,
Belaxe nintzan goi-goitegian,
Makurka sartuaz barrenera,
Amama errukarriren billa.

Gudari-kamain zalako baten
Etzanda, gaiñean estalkitsu,
Amama gaxo nun begiztatu,
Aurpegia josirik zimurrez.
Ene!... nire biotzeko taupada,
Leku artan alan ikusiaz,
Nekez jalgirik bere abotsa,
Dardaraz eukirik ak biotza.

Au esan nik ari belarrira,
Beragandik zerbait jakin-guraz:
¿Zelan zagoz zu emen, amama?
«Gudariak naz ona ekarria,
Suk erretzeke alderanduta.

Nire semetxue be egona
Da, azken mosu berogaz joana,
Negar beroak ixuri-ala».

Zenbait urtebete dozuz,
Amonatxo maitea, zuk?
«Larogetik gora dodaz».
Jaso nuen erantzuntzat.

¿Nungo zera ba, amama?
«GERNIKA'ko NOZU, TXOTXO,
GERNIKA'n JAIO TA AZIA
AZKEN AU NIK IKUSTEKO».

Erantzun iluna nik entzuna,
Opil-opilik nigan biotza,
Auspeko ilintia bezela,
Putz-putz eginda pizketan dana.

Besartean arduraz artuta,
Artez eraman nuen Foru'ra,
Antxe il zedin orain erritar,
Maite-maite zuen lurraldean.

Berrogeitasei urte dira,
Diranak igaro ordutik;
Gaur, aiek seme ta amona,
Urrun dagoz bizi ontatik.

Lotu bada menderik mende,
Euskaldunen giroa zuek,
Aurreko-alegiñak gordez,
Oñarri au gogoz eukitez.

Berbiztu egizue, bada,
Jatorrizko zuen arnasa,
Gogora ekarriz amama,
Su-txingarretatik jasoa.

Ortako zaitezte astindu,
Eutsiz etorkizun-eguni,
Egikizunetan ez aztuz,
Erria daigun zutik euki.

Zoratu nau ni egitek.
Ia zoratu bearrez,
Bein ta barriro ekartez,
Burura ainbeste oker.
Baserritarrak ikusiz
Bidean ia bilutsik
Etxea atzean itxirik
Etsaien igesi larri.

Ume, zaar eta altzariak,
Burdien gaiñetan artuta,
Taketan dindiliz oiloak,
Otz miñ euren lagun bakarra.

¡Ango burtirrintziarena!
Bei-orroiak ari erantzun
Gau otz ilunez ibili al,
Egunez egazkiñak zakur.

Nire ama antxe Oñati'n,
Bost urtebetean bakarrik,
Aren naigabeak nerekin,
Ni orduan ementxe Bizkai'n.

Olan biotza nasaitu bearra,
Abertzale jarrai guraka;
Iltea kuika, ba, edonon
Iskillo bako erri ondón.

Gure izkuntza zar-zaarra,
Dandarrez abillen euskera,
Ez ote besteak eurena
Beste gutzat gordegarria?

Gure erri-azur-mami augu,
Buru ta biotzen iturri
Ta itxiko ba-indukegu
Ilten, bagintzakez naskarri.

Eutsi bearra euskerari
Alboko erriena gaindik,
Ostantzean galduak gire
Galdurik gure izena ere.

Egin euskera ezititsua
Erabiliz abots zaariak,
Etorri baño len azkena
Bizkortu dezagun euskera.

Egikizunok ziur jasota,
Igitu zaitetze, euskaldunak,
Gerora etorteko zarenak
Zuen gurasoai jarrai joaz.

Onan gogotan euki egiak,
Betiro argi zuen begiak
Ia ba gazteri ameslaria
Aberri-alde ekin lanean.

«GERNIKA'ko NOZU, TXOTXO»:

Bai amama, zu emengo,
Ibar zabal ederreko,
Bizi az emen ilteko.

Euskal-erriren kolkoko,
Zeure sendia azitako,
Mait-bularra eurentzako,
Ain langille bititako.

«GERNIKA'n JAIO TA AZIA»:

Gero izateko, amama,
Zori txar-txar-egun ontan,
Min ezagutez zuk barruan,

Zuret zat au zori latza,
Neketan artzeko azkena,
Begitan dozula negarra,
Olan itzungiaz bizia.

«AZKEN AU NIK IKUSTEKO»:

Benetan zaitut biotzeko,
Nire esku jausitako,
Besotan nik artutako.

Ez, ba, *azken*, amonaxto,
Biok sinistun geralako,
Bizirik orain emengo,
Zeuk neri goian itxaron.

Olan, oñaze ta negarketaz,
Gernika jatorra kutsatua,
Seme onak bertan kiskalduak,
Zutik bakarrik gure zugaitza.

Aditu, geroko senideak,
Emen zuentzako nere itzak;
Gomutd amamaren eskeintza,
Jarrai ba, askatasun billa.

Oñati'tik ludi zabalera.
1983go. *Epaialak-1. Asteartea.*

KORKOSTEGI'tar XANTI

IRITZIAK

«TENE», OLERKARI

Igaz, Oleri Egunez, «Tene», Deba'ko alaba olerkariari omenaldia egiteko erabagia artu genduan. Eta aurten, 1982 egun orretan, orduan erabagitakoa bete zan zintzoki: urrengo lan au ari buruz eta gomutaz irakurririk.

Deba, itxas-ertzeko erri txukuna; beronen ondartzan, uda-aldian batez be, jenteak maite ditu eguzkiaren eta kresalaren igurtzi leun gozoak. Itxasoa dauko txeratsu aurrez-aurre, eta menditxo berde zoragarriz jantzirik daukaz inguruak. Errege bidea, trena ta oraintsu eregitako autopista, bertan zear doaz aukera aundiko. Tokiz eta gizasemez antxiñatik dogu aomen eta izen zabaleko.

Ementxe jaio zan «Tene», Muxika'tar Errobustene 1888-5-24'an eta igaz il jakun bertan, 93 urte zitularik. Bere aizteagaz batera denda bat euki izan eban, jatekoz ornidutako denda bat ain zuzen be, eta ementxe lan egiñik bizi izan zan bere bizitzaldi luzean. Buru argikoa zan, ezkongea. Eta eguneroko lan artean be, astia izaten eban euskal lan politak biribiltzeko; tartekamarteka kantaldi ederrak egin euskuzan sarri, bertsoz eta prosaz egin be. Aren lanak ez dira gitxi. Emakume idazle guztiak legez, ezpiritu leun gozo baten jaube zan, eta aren lumatik urtendako guztia, itxi euskuzan liburu ta idatziak lekuko, olakoxeak doguz, arin, ezti ta txairo idatziak.

«Tene», euskal idazle. Ez dakit nik nok eraginda asi zan euskeraz idazten, baiña ortan asi baiño leen beti izaten dogu, guztiok gero, bultzalariren bat. Bultzalari izatea, beraz, oso ona: guk guztiok be bultzalari izateaz, euskeraren aldekoa ba'da batez be, errukizko egintza, egintza eder bat nik esango neuke, egin bi dogu.

Dana dala, Tene idazten asi zan, gizaldi onen bigarren amarkoan bai beintzat, eta bizi ta guztian, zaartuta be, idazten jarduna dogu. Gerra aurretik, «Euzkadi»-n, Donostia'ko «Argia»-n eta Zornotza'ko «Jaungoiko-Zale»-n batez be osotu eban bere idazletza. Ugari samar idatzi eban, idazkiak, olerkiak, teatru-lanak...

Lan naikoa ditu, artikulu lez, or-emen sakabanatuak, arduraz batu ta argitara emotea merezi leukenak. Liburu lez iru ditu argitaratuak: idazki

(karta) ta olerki liburu bat eta antzerki-lan bi. Lenengoak titulu au daroa: «*Miren Itziar'i Idazkiak eta Olerkiak*» (Zornotza, 1923), «Jaungoiko-Zale» irarkolan. 126 bat orrialde daukaz liburu polit onek, «Euzkaltzale Bazkunak saritu eutson lan onek. «Euzkadi»-n eta abar lendik argitaldutako lanen txorta da.

Emeretzi idazki ta ogeitabi olerki dira. Itzaurrean onela diño, guztiz emeki: «Ara emen idazti baten bilduta, «Miren Itziar-i zuzendu nizkan Jelaldezko idazkiak, baita nere olerki txiroak ere, «Aberri» eta «Zargaste» euzkel idazle argi eta abertzale sutsuen asmoari erantzunaz, zuen, ainbeste abertzale zindoan laguntasunari eskerrak. Lenago ere ezagutzen dituzue; eta ez bertan billatzen ibilli elertiaren bikaintasunik, ezta jakintza sakon baten irakatsirik, ezta ere gogo-epantsuen goyargirik; ezer orrelakorik ez dezute arkituko-ta. Bakar-bakarrik billatu Aberria maite-maite duan biotz baten naimen ona; bertan arkituko dezuten guzia onexek arazia da-ta».

Txori abeslari baten kantaldiak dirala esan gengike Tene'k liburu onen orrialdeetan itxi euskuzan zerak, pentsamentu, biozkada ta itz-esaldiak. Udabarri aurretik altz-adar gaiñ abesten dauan birigarroa dirudi. Aberria kantatzen dau, euzkera, ama, Jainkoa,umetxoak, gure gizonak, gure mendi, ibar, itxaso ta gaiñerakoak; labur, ederra abesten dau aspertu barik. Arin, gozo ta errime abesten dau.

Gudate aurreko konkurtsoetara sarri agertzen zan. Baita sari ez txikiak eskuratu be. Mistral batek Txile'n lez umientzako lan egiten euskun Tene'k, eta onakoxeak dire aren teatru-lanak, sarituak ain zuzen be: *Gogo-oiñazeak* eta *Gabon* baitik bat. Ba-dau beste bat be, *Juan Jose*, Oiñati'ko literatura konkurtso batera bialdua eta saritua, baiña gerora galdua. 1964'an Ondarru'n ospatu zan literatur batzaldian be, «Nekazari bizitza» sailleko saria Tene'k jaso eban. 1968'an argitara eban «Cuadernos de vascuence hablado», Zarautz'eko Itxaropena irarkolan.

Laburtuz esateko, ainbat ipuin eta idaz-lan daukaz or-emen.

«*Tene*», *olerkari*. Guztiok gara eder-zale. Baiña guztiok ete dakigu edergarri ori adierazten? Ezetz uste dot. Batzuk, gaiñera, iñoiz be ez dira orretan jarri. An, ikasle zirala, idatz-araundia ta olerti-araundia ikasteen, zerbait, gero ezertxo bere ez. Alan be, gai orreik ikasteen asi oi gara zerbait erakusten, barruko dei baten dardara erakusten nunbait. Ni gaztetxo nintzala asia nozue ipuintxoak eta oler-lan apalak idazten, edo borobiltzen. Urte oneitan, aspaldi nabil neska-mutil aldrai zerbait erakusten, eta argi ikusten dot emen batzurengandik besterengana zelako aldea dagoan: batzuk beingoan konturatzan jatzuz ederraz, beste batzuk ez dautzue olako ardurarik erakutsiko. Bai, guztiok eder-zale izango, baiña urligandik sandiagana, auzi onetan be, aldea aundia aurkitzen. Orreitatik batzuk, teknika ikasten ba'dabe, olerkari izango dira, beste orreik, ardurarik ez daben orreik, ostera, nekez asiko olako lan bat biribiltzen.

«Tene»'-k gaztetatik eban olerki-sena, eta teknika, au da, euskal olerkera berezia ikasiz, poesi-lanak eratzen asi zan. Aitatu dogun liburu orretan,

Idazkiak eta Olerkiak deritxonean, ogeitabi olerki datoz, xalu ta gozo egiñak, neurkera ugariz, eta gai txukunez. Itz-lauzko edo prosazko lanak be olerki-kutsuz usainduak izan bear ei dabe, erdi prosa, erdi olerki nunbait. Au da gozo, duin eta eder idatzi bear dala beti. Tene'ren lanak, olakoxeak dozuz.

Idazleak gai bat aukeratu bear dau idazten asi aurretik. Gai orrek le-nengo belaiño antzeko zerbait dauko inguruan; gero gogoan erabilliz, inguruko laiño ori urtuaz doa, ta gaia argituaz: eguzki-izpi batek joten gaitu. Sarri esaldi bat, liburu-zatitxo bat, olerki bat irakurteak arrotzen dauSKU irudimena. Emen daukat nai nebana, eta idazten asten naz... Baleiteke ezer ez urtetea, baiña barriro noa asten, eta barriro asteak asko balio izan. Eta, azkenez, or poesi ederra, idazkortz-puntatik, adimenari ta biotzari eragiñik, urten daustana. Barruan sendo daukaguna, borborka ustu oi dogu geienik. Agor dagoan iturriak, ostera, ezin urik emon.

Geure bizitzako egunik eta ordurik geienak zer jan eta zegaz jantzi esku-ratu bearrak eroaten dakuskuz eta eder-lanerako atsedenek, bear bestekorik beintzat, ez dogu izaten. Batzuk, orraitiiño, libre daukien asti-unea ortan erreten dabe. Tene'k ori egin eroian, eta zergaitik itanduten ba'dogu, auxe erantzun bear: «Bere gauzak maite ebazala, euskerako, ta euskal gauzak batez be, maite ebazalako».

Leen be san dot: Amona abesten eban, elurra, muxua, loa, esnatzea, biotza, arrantzaleak, ikazkiña, Itziar'ko Ama, eta abar... Maitasuna abes-tean doixtar Heine'ren antzekoak dira batzuk; baita ba-ditu G. Mistral'en antzekoak be. Ona eredu lez txiki bi. *Nere Leyua* da bata. Onela diño:

Nere gelako leiotik
dager ortze zati bat,
berari zor dizkat nere
oldozkun gozoenak.
Naiz euzkiz jantzita egon,
naiz odeiez izukor,
naiz illargi gELTSUZ edo
naiz izarrez diztikor,
mintzo gogoz poztutzen du
nere gogo gaxua...
eta bere mintzo eska
zabaltzen det leyua!

Leioa, gauza kaskarra! Baiña guban bai ak oldozkun sakon gozoak sor-tu! Oar ete zara zu? Ni sarri egona nozu leiotik Mugarra, Untzillaitz eta An-boto ikusiz, erdi konkora, oler-mena gaiñezka ta biotza dardar. Eta norbaite-ren zain ba-gagoz, askozaz be geiago, maite dogunaren mintzo-zain ba'gagoz diñot...

Bigarrena *Anai buruñurduna* deritxona da. Anai kaputxiño bat etorri ja-kon bein eskean Tene'ri. Olerki-gai dau irudia, aurean daukaguna:

«Buruoñak gorririk, eun zakarra soiñean,
sorbaldan bide-zorrúa, ta itsuta gerrian,
anai buruñurdun bat etorri zait eskian
apal eta txiro, Jainkoaren izenean.
Donearen irraparra du ezpañian,
ta barrengo gentza igartzen zaio bekokian,
Kistoaintzartzeko gogo, da txiro ludian,
beraz aberats izatearren donokian.

Alako eratasun aundiaz zait aurkeztu,
ain da apala lekaide jainkotiar txiroa,
nun bear ikustian, ai! neregán det oldoztu:
eta burbei luzatu diot nere ikartxua...
Ba buruñurdunak bere apaltasunez du
apal-erazotu nere gogo arrotua.

Sakon txairoak ez ete dira olako irudi batek olerkariari sortazo dautso-
zan oldozkunak?

A I T A O N A I N D I A

«LIZARDI» GOGORATUZ...

Zer asko izan oi dira geugan gu konturatu barik doazanak. Geure barne izatean eta kanpo-aldean. Eta emen, labur, eder-ikara ta erasonari gagokiozala, ezin azalduak doguz sarri, or-emen, arri-mokor bat, mendi eskerga bat, itxaso urdiña, zeru zartua, poema bat, arri-iduri bat naiz beste olako ederkera bat dala-ta, artu oi doguzan biotz-zauskada samur, bizi, beroak. Zoaz, adibidez, museu batera...

Eder-zirrara

Bai, eder-zirrara deritxogu orri. Nundik eta zelakoa berau? Geure nor'a pizkat sikoloji aldetik aztertuz gero, laster dakusgu zentzunetatik datorkigun zerbaitek jarten gaitula, batez be, etenbear larrian. Ederrak gozamina dakarsku; baiña zentzunena ete da bakarrik ederra dakarskuna eta ondorengo gozamina? Ainbesteko aala ete dabe gure begiak eta belarriak?

Ez, or esku artu dau beste zerbaitek be; or dabil gure errazoiaren eritxia be. Kanpotiko eder-zantzua ta gure adimenak emon eritxia, gauza bi ditugu emen; labur, ederra ta eritxia. Oneik bazkatzen dauskue barrua, izatearen muiña. Eder-arte ta gozamina ez dira, beraz, gaiezko (materiazko) zerbait bakarrik; ezpirituak be or ba-dau bere lekua. Eta ezpiritua ezpiritu dozu, goitiko arnasa berezia. Ortik esan oi da, ertia edo artea, ontasunez jantzi bear dala.

Arte-mukulu batek, edozein dalarik, arritasuna ekarri oi dausku lenen-gotik. Poema eder bat irakurtean, naiz entzutean, erdi-joanda gelditzen gara. Baiña arritasunean erdi-txaldan geratu barik, geure izatearen sakoneraiño jaaz barru-barruko zirkin artean ederra edan ba'dagigu, orduan nok ukatu guri ertiaren maitale bero ta kutun gareanik? Ezpirituak ortxe, zentzunetik sartzen jakonaz, ore bikaiña dagi; zentzunetik sartua, ots, izaki sumakorra, bere erpiñera igonik, gotor egin jatzu, eta orretzek osotu daroa gure arte-zoramenaren mamiña. Aalmen biak, bata-besteagandik aske, lan dagiela esan gengike; zentzunak kanpotiko gauzen zantzua jasoten dau, aldi batera adierak ezertan be naas-erazo barik, jokatur; eta ezpirituak be bardin, bere barne-sartze uts-bakunaz ez dau ezertan lausotzen, ez illuntzen, ez kezkarazten zentzunaren ekiña. Biok goi-maillara eltzean, osatu oi da ederraren be-tea.

Lizardi'ren olerki-lanak

Zarauztar azkar onen prosarik ez dogu emen aitatu. Poesi-lana bakar-bakarrik, itz-lauz be naiko ta ederto idatzi euskun arren. Lizardi'ren biran gabiltzan ezker, dakusgun orain zelako zer-ikusia dauan eder-sorpenak onen lanetan; Lizardi'k bere zentzunak zituan eta bere ezpiritua, edonok bezela. Ederra sortu euskun, zentzunez eta ezpirituz jokaturik, ain zuzen. Zentzunez, at daukagun ederra eder xurgatuz eta begi-belarriak batik bat izadiko edertasunez asetuz; ezpirituz, arima sutsu baten jaube zalarik, aalmen orrek sutu zituan aren olerki-lan guztiak.

Aurten, aren eriotzako 50 urte-muga alik eta aundikiroen ospatu nairik, polito aizatua izan da ainbat denporan naiko ixillik eukia izan dogun arekiko oroipena. Goregi aurkitzen ete aren irudia eta iñor ausartzen ez ari eskua ezarten? Aurten, alan be, ospakizun batzuk izan ditugu: mintzaldiak, alkarizketak, mai-ingurukoak, sariketak, liburuak... eta abar. Geiago merezi leuke; baiña, tira!, zerbait.

Noiz asi zan Lizardi olerkigintzan? Batxilera amaitu ta lege-karrerea asi ebanean. 1916'an noski. Ingurrazti bi eukazan ordurako bere euskal lanakaz, bertsoz eta prosaz, euskeraz eta erderaz orniduteko; lenengoa 1916-3-30'an asi eban, olerkitxo, izkirimiriz eta olakoz betea; oneitatik batzuk «Euzko Deya» Bilbo'ko Euzko Gastedijaren, aldizkarian azaldu ziran. Oneik, baiña, bere ustez, etziran duin eta naiko eder 1932'an argitara emon eban «Biotz-begietan» olerki-liburuan agertzeko. Bigarren ingurrazti edo kuadernua, «Naste-Borraste» eritxona, 1917-5-18'an asi eban, euskera utsean. Emendik atera geinkenez, 20 urtegeaz asi zan Lizardi olerkiak onduten. Emendik atera geinke, baita, zelako berezkoa ekarren olerkirako; geroago, irakurri ta idatziz, sakondu, obetu ta landua. Zer irakurri ete? Noren zale? Euskeraz eta erderaz irakurri eban, eta garai artarako ba-ekian zer zan ederra, eta zer zan eder-antza.

Asmo bi eban Lizardi'k unekada artan: irakurri ta idatziz bere burua gero ta geiago jantzi ta landu, ortarako eder jakon Axular eta Etxepare batez be irakurri eta eurotan aurkitzen zituan itz berezi, esaldi txanbelin eta euskal joskera politak arkatzez jasotea; eta bigarren, berak egiana enparauak be egin egien nai eban, era ortarako or-emengo aldizkari ta egunerokotan euskeraz ta erderaz aspertu barik idazten euskun, ari ta oni be, bardin egin egien, zirikatu ta oiñari emonik. Ordukoak ditu bere olerki ta itz-lauzko lanik bikaiñenak. Aitzól'ek dirauskunez, larogeta amarreraiño dira orduan idatzitako artikuluak, prentsari, olerkiari, irakastolari, antzerkiari ta aurragiari buruzkoak.

Eta gu orduko poetok, jakin egizue au, Lizardi, Lauaxeta, Orixe, K. Enbeita, Loramendi, Zaitegi, Gaztelu, Tapia-Perurena... Aitzol zirikatzaile genuala, ez euskal mendiak jasotzearren, aren bide jatorretik jo gendun. Euskeraren alde eta euskera jasoz geure erriaren alde, alkarren leian, jokatu gendun. Ez genduan uste poesiaren bitartez euskal gizartea aldatuko genduanik; ezta aberri lotuari eukazan lokarriak etengo geuntsazanik be. Baiña

zerbait egin gura zan, ez gero itsu-itsuan, jakiñez baiño. Guda-oiñean gengo-
zala be, orraitaiño, guk olerkiak bialtzen genduzan Bilbo'ko «Euzkadi» ta
«Eguna»-ra. Guk poesia lantzen genduan, alik eta ederrena. Eta, tamal jat
autortzea, orduko poesia ez ete dogu gero gaur be oberena? Buruz ta biotzez
ondo aberats zan poeta gazte taldea ari zan lanean garai garrantzitsu aretan.
Ordukoa dogu euskal poesiaren loratzerik garbalena.

Ori ikusirik, Lizardi'k idatzi euskun bein: «Olermin aundi eder batek
bai garabil euskozale oro: aberri berriaren olerki giarra egin dezagun; idaz
dezagun guziok neurtitz bana, bederik!» Baita beste au be: «Aberri aldeko
gogo gudari-sailletan olerkaria beti da leen-oiñean. Ta beroni zor zaizka,
gogo lurgoien irriek gorabeera, gudate orietarik gurenda ozenenak» (*Itz-
lauz, 37 or.*). Egia, abesmiñetan ebilkgun Lizardi, poeta aundien antzera.
Zelan, baiña, adierazo jantzi bikaiñez barruan eban eder irakin ori? Ona:
asaben izkuntza ortarako gai egiñez: orretan aleginduko jaku. Entzun berari
«Gure mintzoa» deritxan olerkian:

«Nerekin yayo nun abesmiña,
ta aurtandik min ori dut izan samiña...
Kanta nai, nai alper; mintzoa
peitu, miñak bear eztingai gozoa!»

Eta ekiñaren ekiñez falta jakon mintzoaz jabetu zan, osoan jabetu be.
Norbaitek —Arana-Goiri'k— esan eutson giltzapetu bat eukala bere izatea-
ren barnean, leotz gorrian. Eta:

«Ordun, yetxi nazu lezera;
nork gere muñean dugun itzalera».

Guri argia ematearren itzali zana eskutik ebala, barnera jatxi zan, eta
leotzean, barru-barruan, illik lez, gizalaba bat idoro eban, odolik bage.
Baiña:

«Ezpañak dardar, lepo-zañak ler
bearrean, muinki dut estu nere eder
besoetan, ta atsa yaurtiki;
ta ura bai, egin zan aoan abesti!»

Gizalaba eder a giltzapetik atera ta itxaso urdin zear dagi Lizardi'k bere
itzulia, eta bertso-aapaldiak alkarren ondolik jalkiaz, uso zuri lez biurtzen
jakozan. Onela berak:

«Itzuli zetozen aapaldiak;
itzuli zetozen nere uso txuriak
Aberriarentzat damesgun
legor gizenetik, yai-ostoa lagun...»

Barriro esanik be, onelaxe egin jakun Lizardi, aberria ta onen izkuntza
kantatuz batez be, Euskalerriko poeta lirikurik bikaiñena.

Aitzol'ek au: «Lizardi etzaigu izan ugarikor ez naro, urri ta neurtua baik. Zorrotz bere buruakin, bere elertizko ekiñaren iturburu bezela zeukan egiten zituen lanetan osotasuna billatzea. Bere bertsoen azal eta izkeran oso arduratsua zan, eta adierazi nai zituen gogaiantzat, leiatsuki, alegindu oi zan sorpen berri ta jatorrak billatzen. Egundo ere etzitun arriskuan laga ez azalaren osotasuna, ez gogaiaren berrikitasuna, olerki asko ta ugari egitearren. Naiago izan zuen, beti, autatua izatea. Irizpide onekin aukeratu zituen bere liburuxka txit eder «Biotz-Begietan» agertuko ziran olerkiak. Ogetabat sartu zizkizun bakar-bakarrik. Ala ere, arreta aundiz ibilli zan bere erri-bizitzaren lotura ta uztarpide ziran amazazpi urtean ondutako oberenak aukeratzen. Bere olerkiak dira, ximenki autatuak» (*Yakintza, 1933, 168 or.*)

Lizardi garaille

Lizardi'k bere lanik ederrenak Tolosa'n bizi zala egin zituan. Eta izadia —Naturak— lagunduta esan gengike; Tolosa inguruak ba-dabe gero, beste eusko-bazterrai ezer kendu bage, ibai, mendi, zugazti, bikaintasunik ugari. Mendietan eder jakozan Aralar eta Txindoki; bai, atsegin jakon alderdi orreitako «zantzuak» eta «zantzoak» jasotea. Or-zear joan eta ibilliz, zer ikusi ta zer entzun, axe dakaresku paperera, bertsoz eta itz-lauz. Ederto X. Lete'k: «Ikusten dituen eta sentitzen dituen gauza goriak sujeritzen dizkioten imajinak eta metaforak ere asmatuz... Azkenik, errealtate horren aurrean, eta bere eta errealtatea nahssten diralarik, ideaiak eta konzeptuak zehaztuz» (*Argia, 1983, martxo, 20, 33 or.*)

Or olerkariaren lana: ez izadia obetu-bearrez lanari ekin, baiña bai izadia eredutzat artuz, sorpen barriak mamindu ta poesi-lan zoragarriak osotu. Orixe zan Lizardi-k egin euskuna. Izadia ta bera, gaia ta ezpiritua buztartuz, irudikizun jori bikaiñez, sotil eta goriz, gogapen eta ideiak eio, jantzi. Begira, esaterako, «Urte-giroak ene begian», zelako poema bipilla, irudiz, esanaiez, bizkortasunez oratua.

Makilla eskuan, basora urten da olerkaria. Negua da oraindak, eta joan edurtza aundiaren ondarrak agiri jakoz or-emen; loreil-erdirantza, barriz, zugatzak, sagastiak, sakonak, mendi osoa loraz jantzi jakoz... Bide egaleko pago gaztea apaingarri barriz apaindua dago, kilker olerkaria kantari, lurrezko jauregi-atean...

Barruko indar ixiltzu batek gelditza, bide ertzean jarri jaku olerkaria. Arkatza ta papera ziskutik atera ta onela idazten dau:

«Txuriaz nasi, pipil gurien.
ler-gabe-lore zabal-zorien
gorrixka, nabari duk sarri,
odol-tantoak antzo... Begira:
erditze baten aztarnak dira:
Bizi-erditze zoragarri!»

Udan, oster, orra itzalez arru ta basoak; gora igonik, eguzkia; beeko trokatik ez dator ur-otsik; sagarrak igoz astun... Aurrez dauka Txindoki, «goriak astundu-tantai arrizko, - beeari iñoiz baño errotuago».

Beroaren beroz nekatua, itzalpea opa dautzu olerkariak. Or bide erztean basarte oberik eziña. Norbait bertan, «Itzal», zoragarri. Dei dagio, esanaz: «Itzal, Baso'ren ume yaukal, - xaloagorik ezin âl: - beltzeran, begi bai azal: - Itzal! ... - Itzal!...» Lilluratua, oian barrenera doa Baso'ren ume yaukal arekin egotera. Eta bertatik olentariak kanta:

«Sar naun geldixe, taupaka biotza,
Ar maitez, otoi, lerregin-arrotza...
Oial illaun batez legortu didan
bekokia. Gero, aldamenean,
atzaidan eseri, endereño otxan,
ta, ai, zein gozo gauden, aopekotan!»

Uda, suzko itxaso, igaro ondoren, udazkena. Olerkaria, aspaldi ez-ta, mendira da barriro be. Andre Lurrak jalgi ditu bere igaliak; orbelak ozen dagi ots aren oinpean; larreko muiñoak ixillik dagoz, ixillik kilkerra eta txoriak... Beste itxura batez jantzi da mendia. Olerkariak, alan be, eztau menditik jatxi gura. «Zein dan ituna —diño— bêra-bear au! - Nik ez nai eguna - biurtzerik gau!» Sor eta lor, muiño ertzean tente, igarotako iru giroak dakaz gogora kantari:

«Giroen argia galtzerakoan
lên-oiartzuna dut ozen gogoan.
Iru giro izanok, nik dei ta atozte:
nork-zeren saria ekardazute:
batak itxaro, besteak berbizte;
irugarrenak bizitza-indar bete.
Oro bear zaitute ene biotzak,
lên-min baidamada neurtitz zârren otsak!»

1930'garren urtean egiña da 48 aapaldiko poema au. Irugarren atalarekin, ots, «Baso Itzal» deritxonarekin lenengo saria beragandu eban, 1932'an, Tolosa'n ospatu zan II Euskal Olerti Jaietan. Merezi eban. Idatzi ete da, izan be, ez lèn ez gero, edu ontako olerki garbalik? Olerki-kontuan ere ikasia genduan Aitzol'ek onela:

«Basoan jaio, basoan azi, auzira jo eta olerti guduan nagusi ager. Pindaro olerkari bikañari alderantzira gerta, antziñean. Olerti auzian, nork eta Korina emakumeak oinperatu grezitarren abeslari trebeena. Alako batean, iñork uste ez leikiala, Olinpiada joku aberkoi ospatsuenetan. erriak Korina, olerkari gorenaz aukeratu, beti gaillur zan Pindaro zokora irauliaz. Or dijoa, zapustuta baso beltzean lotsa eskutatzer. Bakartasuna aurki zezalakoan, oian-barnean gorde. Urania maitagarria agerturik, ordea. zoriona eskeñi zion... Basotik, eraberrituta, Olinpiada-jokuetara Pindaro doa. Arrezkeroztik, beti, garaille».

Ondoren diñoan au be jakingarria dogu. «Urte-giroak, udaberria eta udagaiak batez ere —idazten dau—, oleriti mamitzat aukeratu dituzten poetilariak amaika maitagarrien onurak jaso ornen dituzte. Oek sormena ernaitu, irudimena zirika, amets-eredu-jantziak eskeñi ornen dizkate. Arrotz oleritiaren kutsurik, Lizardi'ren neurtitzetan aurki ezin lezazuke, ordea. Barneko iturburutik jaio zaizkio mami-azalak. Ederrak ba-dira ere, eusko-olerkariarenak dira. Ez irakurriz ikasiak, adi-muñetik sortutakoak baizik» (Eusko Olerkiak, II, VI or.).

Olerkari oneik aurkeztu ziran Tolosa'ko poesi-batzaldi artera: Tx. Jakakortajarena, J. Zubimendi, M. Lekuona, Tapia-Perurena, E. Mujika, Jautarkol, Loramendi, T. Agirre (Barrenso), E. Arrese. Zarautzarraren olergintzan urterik jori-bikaiñenak 1930'tik 1932'rakoak izan ziran.

Zer lan dagigu gaur?

Gai ontaz, edo bardin dana, olerkiaren bizitasuna, sakontasuna eta oleriti-izkuntzaren trebetasunari buruz, Lizardi'renak, jakiña, aurtan bertan edertorik aztertu dauskuz niretzat J. M. Lekuona'k, besteak beste. «Lizardik erakusten digu —diño— lan aundiak egiteko arreta. Horretan «Urte-giroak ene begian» poema benetan interesgarria da. Gure artean poesia asko egiten da ataizeko poesia; eguneroko poesia hori, baina, ez da egiten poesia landua, poesia sakona. Alegia, bi, hiru edo lau urte irauten duten poema sakonak. Horrelako poemak oso oso gutxi egiten dire gure artean, eta horretan Lizardi guretzat eredu da» (*Argia*, 1983, martxo 20).

Berrogetamar urte joanak dira Lizardi'k bereak ondu zituenetik, eta areik ondiño, gure mendietako pago lerdenen antzera, gaurkotasuna betebetean darioela dagoz. Lizardi'k bere gaiak, eder jakozanak nunbait, aizatu zitun geienbat. Izadia, eriotza, neskakak, bultziaren lasterra, beti geugaz bizi diran kurloiak, seaska utsa, adiskideak, illetak, zugatz jausia, urte-giroak, eusko-bidaztia, asaba zarren baratza, izotz-ondoko eguzkia, arrats gorria, etxeko, egamiña, gure mintzoa, euskal-pizkundera, «Maitea» poema... Gai xumeak egiazki. Edozein poetak abestu ditunak, baiña zelako ikuskeraz! Lizardi'k sakon dotore ikusi ta adierazo zituan gaiok. Gai lau errez oneikaz antolatu euskun bere euskal olerki illezkorra. Horazio'k bere garaiko jazonkun soil-soillakin eta Bergili'k bardin aurretikoen egite ta guda-gertakari apaiñakaz euren poema illezkorrak osotu euskuezan legez, ain zuzen be.

Olerkia ez dau mamiñak bakarrik egiten, jantzi ta azalak be garrantzi izugarria dauko. Lizardik, izkuntzari begira, zoli aurrera eragin eutson euskal poesiari, egazkada biziz ebilkigun, ba, goregikoz bear bada, eta au Aitzol'ek salatua dogu bein eta barriz: bear zala olerkitasun jagi ori, baiña gai arruntak eta modu lau-lau egiñiko lanak be bear zituala gure erriak. Ori-xegaitik itxi euskuzan gai ontaz lan bi jakingarriak, bata «Yakintza»-n eta bestea azkenengo «Eusko Olerkiak» deritxanean.

Guda ondoko poetak, au kontuan izanik edo, olerki errikoira jo izan dabe, Aresti aurrelari dala. Poesi sozialerako obeto dator etorri be olako iz-

kerak trakets antzekoa, parnasiar eta olakoen izkuntza jagi, dotore ta apaiña baiño. Au gogoratuz J. M. Lekuona'k: «Gaurko tematikari begiratuta, dudarik gabe, gaur zeharo beste mundu betetara pasa gara. Halere, gaur ere itsumustuan gauza asko dabil hor, eta gaur ere poetak behar ditugu gaurko mundua emango dutenak. Gaurkoa ez, biharko mundua, hemendik hamar edo hogeituro mundua. Hori da poetaren eginkizuna, nire ustez beheintzat. Eta iruditzen zait, Lizardik berak bere garaian egin zuen bezala egin behar dugula guk». Ni ere orretan naukazue. Poetak aurrera begira Jan egin behar dogula; ez erriagandik goregi, ez beeregi, bai ostera erriari arnasa ezarri eta biarkoa erakusten saiatuz.

Poesiak ez dau erria bere kate biurrietatik askatuko, baiña iñok erakustekotan orretarako ibilli bear dauan bide arloa zurariz lez galgatuko dautso: giroa adierazo, etorkizuna argitu, lotatik itxartu, adorez bete ta aurrerantz bultz-eragin, au olerkariak egingo dau. Orixe egiñak doguz, iru baiño ez aitatzeo, Rizal Filipinas'en, Mao-Tse-Tung Txina'n eta Arana-Goiri gure artean.

Azken urteotan gure poetak, gunez eta jantziz, bide barriak billatu ta aztartu nairik dabilta, beñola Lauaxeta lez apika. Nik esango neuke, ostera, moltzoko edo jarraikari egiñik gabiltzala: urliak olan idazten baldin ba'dau, besteok aren antzeko izan guraz gabiltz, norbere sorpenari erraiz naiz jantziz uko egiñaz. J. M. Lekuonaren eritxiko naiatzu ni, au idazten dauskunean: «Azken hamar urte hauetan hizkuntz berri bat hasi da, hizkuntza askoz ere landuagoa eta polibalentegoa (landua ta polibalentea zeri deitzen jakon jakin bear), eta ikusten dut alde horretatik Lizardik bere garaian egin zuena gaur ere egin behar dela» (*Argia*, 1983, marxtoa, 20).

Izkuntza barria?

Gaur bada, poesia aldetik be, izkuntza barria edo barria izan nai dauana. «Baina halere —darrai J. M. Lekuona-k gaurko poesi joera berri honek ez duela Lizardi eta bere garaiko euskararen edertasunik, gaitasunik eta maisutasunik», uste dut. Au ere autortzen dauku Lekuona'k: «Ez dut uste poesi sozialak (Lizardi) gainditu zuenik». Uste orretan nabil ni be. Garai bateko erri-egoerak sortua dogu poesi soziala, zapaldua, zigortua, asnasarik artu eziñik, zerbait egin guraz eta eziña iruntsiz aurkitzen zaneoa. Gaur ixillik daukagun Aresti izan jakun poesi-era orren aita, eta irakur zer dirauskun olerki-mota ortatik geiegi saiestua dala esatea egia ez litzaken onek, ots, L. M. Mujika'k.

«Gabriel Aresti —idazten dau—, «Maldan beheram bereziki, aire berriak ekarri zituen eta balio literario ukaezinak. Balio horiek. ala ere, aski eskaxak gertatu ziren bere azken produzioan... Bere poesia hobena Miranderen lanketa sinbolistarekin lotzen dena da; poesia sozialean, berria, panfletarismoak suposatzen zituen irristadak egin zituen. Bertsoaren teknikari dago-kionez, ordea, «Maldan-beheran» olerkarien bide egitaratua utzirik, berriro bertsolarismora itzulia egiten du, orri askotan, monotonía eta ohizkotasunean (hau da, «zortziko handiaren» aspergarritasunean, batez ere) eroriaz.

Itzulbira horrek, hemen ikusten ari garen aldetik, guretzat atzerakada bat suposatu zuen, monotonia berriro indartu zuelako. Honetan, bada, ez Lauaxetak, ez «Barne-muinetako» Orixek, eta ez, bereziki, Lizardik ez diote Aresti-ri enbidirik eduki beharrik. Haien bidea euskal poesia jasotzeko Arestirena baino iaioagoa gertatu da» (*Lizardi-ren lirika bideak*, II, 77 or).

Entzun izan dogu, eta irakurri, Lizardik izkuntza olerkitsua sortu ebal. Egia ete? Leendik, nik uste, ba-zan olako zerbait, izkuntza poetikua, Etxepare'k ez, baiña Oihenart'ek erabillia; zuberotar olerkari yaioak, inok jarraitu ez eutsen arren, euskera tringu, eder, sotilla erabilli eban bere olerki-lanetan, geroago be Arana-Goiri'k, Iñarra'k, E. Arrese'k eta beste banaka batzuk erabillia, Lizardi'ren aurretik ain zuzen. Lizardi'k, egiaz, ikasiz eta idatziz landutako bere arimea itxi euskun «Begi-biotzetan» deritxon poesi-liburuan. Poeta guztiak, ezta idazleak be, ez ditugu danak bardiñak, ez izatez, ez kulturaz. Jakiña, ortik dator ondoren idazleen arteko bestelakotasuna. Or bakotxaren estilo iturria.

Lizardi, Orixe, Zaitegi eta onein ingurukoak izan jakuzan gure izkuntza idatzia, bai prosaz eta bai bertsoz, goiko maillara eregi ebenak, azken gerra aurretik eta ondoren; euskal literaturaren kondaira gaur, sakonetik ikasi, arakatu ta egiaztu nai dauanak, ez dau orixe baiño beste biderik: garai garrantzizko a ikasi ta aztertu, ta lera txar bako idazle baldin ba'da, laster oartuko jaku, baietz, axe izan zala gure literatura idatziak oraiñarte izan dauan unerik jori, loratsu ta bikaiñena. Ortan ari ez garan bitartean, gure eritxi-usteak beti izango dira kamuts, erren, ez-osoak. Ez galazo begiak egiari.

Poesi arloan ziñezkoa da X. Lete'ren autorra. «Lizardi vdiño—, hizkuntz-espresibilitatea euskal literaturaren arloan bere goi-mailara eraman duten bakanetako bat dugu (garaian garaiko baldintzapenak kontuan hartuz), eta horregatik ukan ditu, behar bada, hainbeste imitatzaila. Nahiz eta, egia esan, Lizardiren pareko poesia egiten oso zail izan. Lizardik bilatu zuen adina gutik bilatu du». Egia, aren poesilanen musikaltasuna, aren irudiak, arek darabiltzan antz-ele, metafora lerdenak, bizi, labur, sakon adieraztea trebetasun ikaragarria zor jakona da. Eta ez dau edonok ain trebe izateko aalmenik, saia-ta ere. Lizardi, erdi euskal-barri ta gazterik illa, nortasun aundiko agertzen jaku bere lan guztietan.

Lizardi, izadi-zale

Ez gitxik izadi-zale agertu dabe Lizardi. Eta ez dago orren kontra zer esanik; orrela da, aren edozein olerki-lan lekuko. Irakur «Biotz-begietan» eta ez daukezu dudaren izpirik. Baiña suster erroturik ez dauen barriketari batzuk, ainbat uste trakets zabal-azo izan dabez. X. Lete'k onela: «Norbaitek pentsa lezake (Lizardiren) izadiarekiko joera hori gerraurreko euskal idazle askoren kera eta tendentzien errepikatze bat besterik ez dela. Agian norbaitek zera pentsa lezake: «Bai! Mendia, baserria, nekazaria... gerraurreko euskal idazle erromantiko zaharkituen topiko atzerakoiak». Txomin Agirrerren «Garoa»-ren ispillu poetikoa Lizardi dela, ala jainkoa! Horrelako gauzak, ez pentsatu bakarrik, esan ere izan dira jendeaurrean, eta idatzi.

Izan ere, edozer gauza topikotzat hartzea, topikõ tipiko izan bait da gure artean bolada batez». Ainbat gixajokeri esan eta idatzi dan garai onetan, ez dago txarto autorkuntza bestelakoa.

Leen eta orain euskal literaturan lan dagigunoi min damosku olako gauzak entzun eta irakurtea. Gurean izan dira, adibidez, erromantiku-sailleko idazleak, Arrese-Beitia, K. Etxegarai ta abar, bide orretatik jorik euren barrua azazkatu ebenak; dalako kimuren bat gure artean iñoiz erne ba'zan be, ezer gitxi noski. Izadia kantatzen bai alegindu ziren gure bertsolari ta poetak. Lete'k jarraiki: «Nik esango nuke izadiarenganako joera, Lizardiaren baitan, sentsibilitate-arazo bat dela haseran. Gizon sentiberak izadia maite du, izadiaren zantzuak, nabarmen eta baita bitxienak ere, denak, natura-ataletan somatuz batera, lehiaz eta ahaleginez jasotzen ditu. Zantzu horiek barruraino sartzan zaizkio, eta maitetsuki gordetzen ditu bere baitan. Gizon sensibleak esan dugu, eta poeta sensibleak zer esanik ez». Egia dozu; biotz sumakor eta sentibera dauanak —poeta eta bertsolaririk geienak—, zelai bat, zugatz bat, errekondu bat begian jarten jakonean, itzalezko lillura oar-azten dau bere barruan, bere izatearen muin-muiñean.

Lizardi, Jainko-zale

Lizardi zanaren eriotzaren 50 urte-muga era onetan ospatu nairik, Gipuzkoa'n ez-ezik, Bizkaia'n be ospakizunak egin izan dira olerkari gurena aupatzeko. Portugalete'n, esaterako, ango «Adiskideak» taldeak aurten seigarren literatur sariketa, 1983-3-17'an iragarri eban, gaia «Lizardi olerkari» izanik; amazortzi urtetik beerako neska-mutilentzat izan da, eta ia eun an aurkeztu diranen arteko lanetatik, Pinedo-Goiria mutil gaztearena izan da saritua.

Jaiak ospatu dabez zarauztarrak euren olerkari garaia omendu guraz; jaiak egin dabez Tolosa'n. Emen gaiñera, 1983-3-19'an, larunbatez, Lizardi'ren olerkiz osoturiko liburu bat aurkeztu zan, Juan Mari Lekuona'k, Anjel Lertxundi'k eta Xabier Lete'k antolatua. Iru atal daukaz liburuak: 1) «Biotz-begietan», 1932'gn. urtean argitaratu zan legez, erdal itzulpena kenduta; 2) «Umezurtz Olerkiak», 1934'n Aitzol'ék eratu ta argitara emona, eta 3) «Euskal Pizkundera» poema, lenengo aldiz 1970'an argitaratua.

Liburu au aurkezterakoan mai-inguruko bat be ospatu zan. Eta ospakizun onetan, mai-ingurukoetan oi danez, saiotzailleak izkirimiri, itz bitxi ta ateraldi atsegiñak eta ez ain atsegiñak bota zituen Lizardi'ren alde eta kontra. Ibalan'ek beintzat, onela idazten eban DEIA'n martxoaren 31'an: «Lizardi'ri ornen egiteko ez dirala guztiek beti asmo zuzenez ibilli esango nuke. Eta batzuei joko zikiña ikus zaiela salatu bearra dago. Batik bat mai-inguru batera poeta izeneko bi gizontxoei. Olerkaritza aldetik, literatura alorrean maxiaketa eta kritika zuzena egitea bidezko da. Baiñan aitzekitzat artzea erlijio ta kristau sinismena ixeka ta laidoz mintzatzea Lizardi'ri irain egitea da.

«Eta gezur ta txorakeriaz nabarmentzea ez du gizalegeak agintzen. Ez dago eskubiderik Lizardiri omen egitera deituak izan eta gaizki esaka irriz

jardutea. Jakin bezate, entzuleen artean asarre ta naigabe aundia sortu zutena. Bertan ez zioten eraso begirunez eta istillurik ez jartzearren. Baiñan ezin gera isilik geldi gure asarre-protesta arro-putzen aurka agertu gabe, an esan zituzten iritzi makur eta zipozkeriengatik. Gorroto eta Jainkoaganako etsaigoz esanak. Aztu nai zuten Lizardi, poeta olerkari aundi bezenbat kristau sutsu ta zintzoa izan zala».

Jipoi astintze au izan bekizue zuoi, gazte ausartoi zentzabide. Zeuen gogokideekin iñoiz leku ixillen baten batu ta olako zer batzuk botatea laket jatzue, baiña itzal aundiko kristau artean olako zerak otsegitea, ez dot uste legezko jatzuenik. Lizardi lako omenezko batzar batean ele nasaiz entzuleen artean, banaka batzuen artean, irri-barrea erne nairik jardutea, ez deritxat ondo dagoanik. Gaur sarri egin oi da ori, bape begirune barik, edozer esan, edozer kritika... Alan be, gizabideak jaso-azten dau gizona, nabarmenkeriak eratsi.

Lizardi'ri jainko-zaletasuna ukatzea, deabrukeri arrosko ta ausarta danik ez dozu ukatuko. Famili kristau batean jaio, azi ta bizia dogu Lizardi; bere ikasteak eta ibilliak be erlejiño kutsu aundiko munduan osotu zituan. Aren idatzietan, prosazko naiz bertsozkoetan, askotan irakurri ta ausnartu arren, ez dot olakorik iñoiz idoro, beti kristau fededun eta Jainko-zale bero baiño. Iñoiz idatzi eban norbaitek Lizardi panteista ete zan bere. Lizardi'k, nire gardiz, ez eban pentsatu ez idatzi izadia Jainko zanik; berak ain ederto abestu euskun izadian Jainkoaren lorrata ikusi bai, ostera, Fontivero'ko Joan Gurutzeko karmeldar mistiku aundiak legez.

Au idazterakoan, baiña, obeto ziurtatzeko neure eretxia Lizardi'ren olerki guztiak arakatu ditut banan-banan, J. M. Lekuona, Anjel Lertxundi ta Xabier Lete'k oraintsu gertatu ta irarkolara emonetik, lenengotik azkeneariño. Eta ona zer aurkitu dodan, olerki bi, lenengoa («Yaun errukiorra» ta «Euskal Pizkundera») ta azkena besterik ez aitatzeke. Lenengoan pekatari lez agertzen jaku Lizardi, Jainkoaren zigorbildur gero ta azkenez orra zigorbildur zanak errukizko izpia jaso.

Atzenik, «Euskal Pizkundera», olerkaria il baiño aste batzuk lenago idatzia ta 1970'an aren «Biotz-begietan» liburua irugarrenez argitaratu zanean, liburuan geigarri lez sartua. Bederatzi zortziko txiki ditu poema onek, poliki eioak. Amona irudia dakar Lizardi'k gogora Euskal Pizkunde irudipean: amona ezta il, ezta Euskalerra be. Gau-erdian il bide jakun amonak «esku gogortuetan/dauka gurutzea». Amesa. Baiña bat-batean esnatu olerkaria. «Zer dakust Jaun aundia!», diño. Amona bizirik! Aberria be «il ez da ta ez da ilko/guk ez badegu nai». Labur: Lizardi'k beti darabil Jainkoa gogotan.

Itxar zaitex zeu be, irakurle. Irakur aren poesiak, asi ta amai. Eta zeuk ikusiko, begiak garbi ba'dituzu, eta aren lan guztiak, ez Jainko, baiño Jainko'z asetuak aurkituko dituzu. Fede bizikoa zan Lizardi, Jainko-zale aundi.

JOAN IÑAZIO GOIKOETXEA «GAZTELU»ren OLERKIAK

«Gaztelu»ren lenengo aurkezpen bat *Zer* aldizkarian agertu zan bera il ondoren (S. Onaindia: «Zer», 1983 otsailla, 8-garren orrialdean). «Gaztelu»k gerra aurretik eta gero indatzi izan dau; gerra aurretik batez be *Yakintza 'n*, gerra ondoren *Olerti'n*. Alan be ez askorik. *Musika ixilla* Fray Luis de León eta San Juan de la Cruz'en olerkien itzulpen liburuaz gaiñera (San Sebastián 1963), bilduma bi ditu argitaratuak: *Gauen Oihu* eta *Biziaren Erroetan*; 1970'garrenean eta 1971'garrenean «Ciudad de Irún» saria lortu eben alkarren ondoan, eta 1972'garrenean argitara emonak izan ziran (San Sebastián). Azkenengo liburu biok aztertzen dodaz emen. *Gauean Oihu* bildumako olerkietatik sei *Olerti'n* argitara ebazan lenengoz (1963'garrenean «Tantan atabala», eta 1968-69'garrenetan besteak); aldakuntza txiki batzuk badabez batetik bestera. Urte orreetako beste olerkiak, edo batzuk (danak be gitxi dira) zegaitik ez ebazan bilduman artu ez jakin. Estiloa-gaitik izan leiteke: «Zartzikote» zortzi amalaukoak (*Olerti*, 1962) gerra aurreko olerkigintzatik urrago dagoz (naiz ta neurtizketan silabak barik «pikoak» edo ictus zenbatu, *Musika ixilla'n* azaldu eta aldeztuko eban lez: ikusi 248 orr. eta urr.); tanke-raren ondoan, gaiagaitik be izan leiteke olerki batzuk bilduman ez artze ori. Eta, azkenez, olerkien balioaz egilleak izan eikean eritziagaitik.

1. *Gaiak*. *Gauen Oihu* bilduman geien-geien baten gizarte-arazoak dira olerki-gai. Onegaitik olerkiok poesi sozial saillan sartu daikeguz. Lenengo olerkia beste guztien sarreratzat dago, eta onen arauz, berea «kantu bakar/herriaren bihotzeam izango, «ekaitzaldian», «kale gogorream, «otsoen horztzetan» (11 orr.). Baiña argiago oindiño autortzen dau beste olerki baten: «nere lira hura hautsi dut eta ondakiñetara bota», «munduaren ardatza koloka denean», «atomo-bomba gainean zintzilika daukagunean/gizonak egunoro milaka goseak hiltzen daudenean» (15 orr.). Eta gero «zati bat naun/HERRIA/kantatzen dut»; leen artzain eta nekazari, orain langille proletari dan erria (23). «Lo-zorro» dagon erria iratzar nai leuke (25). Erri orretan «gizonaren izerdiak/ez du sari berdiña», eta neurri ezarle goikoa izan da (26). «Libertadea» baiña malkoak ibaika kostaten (27). «Ai! herri/eskua eri/duzu/harrian josirik/geldi/zaizu (...), gatozen senera/zuzenbidera/gal/ez gaitezen» (28). Badago alan be erri onetan zer gorderik: «herriaren keiñu hori/ez

baztertu/ez zapuztu», erdoi edo zaar kutsurik beardaba erantsi izan arren (29). Erri «irendua», «uztarpean» «belarrez ondo ase, gizen», «jabeak hirekin irabazten/hik hire arima galduko» (30-31). «Leher bedi bonba-pila/gizon odol-zaleen hortzetan». Alan be bada itxaropen: «aro berria urratuz dijoa» (32). «Kañoi-aho» artean, «burni-pizti» artean, «ama-begien negarrak»/sabelak urraturik/ai! aurtxoen karraxiak», beti be entzun arren (33). «Gizona» kantatzen dau, baiña gizona kateari lotuta dago, eta berak mailluka, gau baltzean, kateok porrokatu nai ditu (34). Mundu barri bat itxaroten eta egiten, «ez morroi/ez jabe» izango ez dan mundua (36). «Oihu» bat entzuten da edonondik: «gizon berria gera», orregaitik «harmak eten/mugak kendenaren» (37-38). Sasoi aretako munduko kondaira be badau gaitzat: «dolar-pilla otsetan/TIO SAM/Vietnam/jan ta jan» (40). Guda ori gogoraztean «maitea bilus kantatzen dut», «sapelatzen oin-azpian zapart egin duen/harmagileen zumil-artean lehertu den/Herio-tolarean maluskatu den/maite bilus» (43). Mundu latz onen gainean «izarrezko» izenak dagoz, «gizonaren bidean mugarri» (44-45). Azkenengo olerkiak leen aipatutako 15'garren orrialdekoaren oiartzuna dirudi: «gaur eskandalu da edertasuna kantatzea», «giza-piztien basakeriak itsustu digute bizia» (46). Bilduma onetan 23 olerki etatik 18 poesi sozialaren gaiak dira. Bost bakarrik bestelakoak. Orregaitik bildumaren aurretik bere mamiñaren ikurtzat itzok jarri ditu: «Gauari hitzegin bultzatzatik nator» (9).

Biziaren Erroetan bilduman sarrera-olerkia aurreko liburuko «Kantu Bekar»aren antzekoa da, idea-egitura bardiñekoa: «kantu hau eztarrian/erre zait, eta gau beltzean/nora gabe abia/pizti tzarren hortzetan/erortzeko zorian» (11). Baiña gero emengo gaiak ez dira bardiñak. Nozik bein leengo gaien aipamena bai egiten da: «herri-lainoaren negarra» (12), «zuzen-oihu/karraxi» (20) «atomo-bonba» (38). Ez geiago. Oraingoak lenengo liburuan banandu doguzan bosten antzekoak dira: «gurre lurra» (13, 15, 21) bizitzaren eguneroko ezkutua (13, 20, 22, 23, 24, 32) itza ta alkar-artuemona (17), egia ta itzala (33) gauza zaarrak maite (36) errautsa ta iragankortasuna (41) illeta-eresia Amona Gregori'ri (42). Bildumaren asikeran laburpen eta azken esanaitzat itz oneek aukeratu ditu: «illunez bustia» (9). *Berdin dio* olerkitik artuak dira: «Jakin ez jakin/berdin dio:/jakiterik ba ahal dago?/behin hedatu nuen hegala,/itzuli nintzen illunez bustia» (34). Azken-aurreko olerkian, izki gausiz irarria, liburuaren guna erakutsi nai dau barriro be nai ta nai ez:

Malko guzien pisua
nere barruan,
amets guzien errautsa
nere barruan..

Ezer ez da iraunkor
gizonen oinazea baizik,
dena da iragankor
eta da alperrik.
ixil zaitezte, poetak, munduak
ez du merezi zuen kanturik..

Oiñaze onetan lenengo bildumako gaiak be sartzen dira, jakiña. Baiña ez bakarrik. Bizitza guztia da emen gogoan. Azkenengo bertso biak berariz-ko samin latza agertzen dabe. Ez da beti «Gaztelu» ain ezezkor; baiña poeta-ren izakerea da bai ta ezaren artean gora ta beera ibiltea.

2. *Doiñua. Gauean Oihu* liburuan, izenari dagokionez, olerkiak abots ozenez eta deadarka esanak dira geien baten: «kantuz piztu behar ditut nire gogamen-izarrak/kantuz eta txistuz jalki nire gozamen-nigarrak» (12). Baiña programa bat balitzan autortzen dau au idazleak:

Belarri-gozamenari begira ari izan naizen honek
nere «lira» hura hautsi dut eta ondakinetara bota
eta gaur besterik diot (...)

—belarri-ots hori
belarri-ots madarikatu hori—
hobe belarririk ez izan, gor izan
eta zorrotz, garratz mintza
oihuz
karraxiz
zaunka... (15-16).

«Kantu» da dana (11), erria «kantatzen» dau (23), gizona «kantatzen» dau (34) edo maitea bilus (43). Izadiari be deadar dagio: «Eee! ibaia (...)/Eee! basoa (...)» (19). Eta erriari: «Herria! Herria!/zer egin ditek hirekin? (30). Eta gero:

ai! ama-begien negarrak
sabelak urraturik,
ai! haurtxoen karraxiak
sortu izanagatik (33).

Eta gauean mailluka gizonen kateak porrokatzen diarduanean:

Guardia
zer ordu da? (34).

«Oihu bat» izeneko olerki osoa dauka, «oihu» itza bein ta barriro tarte-katzen dauala (37); gaiñera aginte-era darabil zoli: alkar, egigun batzar, har-mak eten, mugak ken (37-38). Barriro be lurraren erraietatik datorren «oihu lazgarriak» samin-itzak eta itaunak ateraten dautsoz (39-42). Vietnamdar haurraren garrasiari buruzko olerkia «gehena» itza lau bider berresanez amaitzen dau eta bakoitzean iru arridura-ikur ezarriz (46-7).

Biziaren Erroetan bilduman, ostera, abots apalagoz dagi berba:

nagon geldi
adi
nere lurraren barne-taupadari (...)

adarrez
danboliñez
ezkil-otsez
bete-betea datorren doñiuari,
doñu ixil
(...) (21).

Liburu onetan be abotsa ez da barrukoia eta ixilpekoa, baiña oiuka da-giana be ez. Biotzondokoa geien baten sutsua da, griña, kanpora bota bea-rrekoa. Baiña, batera, sentipen lirukua. Lirikutasun au, olermena biztuten dauan poesi-guna, geien baten erri ta gizon zapalduagan datza (*Gauean Oihu*) eta bizitzaren ezkutuan (*Biziaren Erroetan*).

3. *Irudi tu sinboloak*. «Gaua» eta «illuna» sarritan darabiltz; erri ta gi-zarte-gaia da batzuetan, gizonaren munduko gaua beste batzuetan. Onen-beste bider darabiltz «argia» ta «izarrak». «Erroak» be naikotan, eta irudi bete ta esanaitsu da. Era berean «Ibaia». Bizitzaren sinbolo geienetan. Birri-tan edo darabil «errota»; irudi eraginkorra, batez be gaua ta ibai irudiekaz batera (*Gauean Oihu*, 22, *Biziaren Erroetan*, 24). «Aizea» be sarritan aipa-zen dau (bizitza, ekaitza, arnasa). Irudiak izaditik artuak dira, eta landaren eta abereen izen zeatzak be ez dira falta. Baiña oso neurrizkoa da irudiak erabiltean. Ez da agertzen larkeririk ezta ugaritasunik be. Eguneroko izkera soilla ta bakuna darabil:

hitz eman nizun
bai
hitz eman nizun
bide-gurutze hartan
baiñan
enintzan zuregana
azaldu (*Gauean Oihu*).

Apainduagorik be badago:

aro berria urratuz dijoa
golde berjabeen hildoetan
azitzen dijoa pozkarioz
izar-ontzien bidatsetan... (*Gauean Oihu*, 32).

Baiña iñoz be ez larkeririk. Metaforak, epitetoak eta beste agerpide ta apaingarriak urri darabiltz. Onetan berezko ta lauada guztiz.

4. *Egitura*. Estructura naiko klasikuz baliatzen da. Poesi-gaia logika agiri ta oikoz luze-zabaltzen dau. Aldakuntzak, arridurak, itaunak, logika-monotonia ebagiz, arindu ta biozkortu egiten dabe olerkia. Baditu onetan errecurso originalak: *tan tan atabala* olerkian, lenengo, izadi deskriziño ba-tez asten da, eta gero olan ebagiten dau:

Eee! ibaia
iratzar adi (...)

Eee! Basoa
iratzar adi (*Gauean Oihu*, 19).

Otanik gabe olerkia era enunziatiboz asten dau. Gero:

—Ai ibai, ibai

.....

—Errotari,
zenbat bider
biratu da
harria? (*Gauean Oihu*, 21-22).

Herria galtzetan olerkia erriagaz berba egiñez asi ta jarraitzen dau; erdi-une inguruan olango etena dagi:

Joan nintzen Tolosara
bai eta Ordiziara,
ondo jan, ondo edan,
tratularien
kontuak jakitera.

—Eztek garesti!, zion batek.
Eta besteak: —Botea!
holako idi presturik
eztek erraz bilatzerik.

Gero barrero be galzorian dagoan erriari berbea zuzenduz amaitzen dau (*Gauean Oihu*, 30-1). Olerki bizkor ta atsegiña etenari esker. Ikusi *Gizona kantatzen dut* (34). *Biziaren Erroetan* sortan be baditu olako pare bat. «*Ohar akio biziari*» olerkian bizitzan zear erritik eta erriagandik zer artu dauan abes-tuten dau. Azkenean eten au sartzen dau:

Larte-ko aitzuloan sorgiñek
zotz egin dute eta zotza
neri didate atxiki
hala holakoa,
ez besteen baino
txarragoa (*Biziaren Erroetan*, 14).

Itxaroten ez zan originaltasuna, berezko ta errikoia.

Ni ez naiz jakitun olerkian be azkenean aldaketa errikoia dau:

nola da munduaren zola? (Ez dau txantxetan itauntzen)
 jakin nahi duenak
 piztu beza
 farola:
 Gipuzkoan ba da
 Antzola,
 hark ornen dauka
 argi-ola... (*Biziaren Erroetan*, 32).

5. *Erritmoa*. «Gaztelu'k erritmo —zentzu apartekoa dau. Askatasunik aundienaz darabil, eta beti doiñu-ibillera atsegingarriz. Bertso-neurriak (luzera bardiñak, esate baterako) ez dauka emen zerikusirik. Iñoz bertso luzeak be osotzen ditu, baiña geienetan laburrak. Edozein adibide artu daigun bere erritmo-zentzu au ikusteko:

gauaren errota ari da
 kulunkatuz
 gizonaren loa,
 elikatuz
 iratzar denaren gogoa:
 garia izan
 edo artoa
 berdín dio,
 zer nahi den
 irin bihurtzen doa... (*Biziaren Erroetan*, 24).

Tan tan atabala erritmo utsa da, eta argi ikusten da piko astunagoen eta ariñagoen alkartzetara naastua:

zaldiz
 oinez
 aldiaren otsetan:
 askaska
 tintinka
 aizearen hortzetan...

tan tan atabala
 bideko zotzetan

Eee! ibaia,
 iratzar adi
 jo zak hire
 krisketen jaia!
 ... (*Gauean Oihu*, 19-20).

(Argitalpen onetan aldakuntza bik erritmoa obetu egin dabe: 1963'garrenekoan «edo oñez» eta «ats-estuka» zan: *Olerti*, 1963, III-IV, 26 orr.).

Baiña erritmo azaleko au, kanpoko erritmoa, bertso ain laburrez lortua, batzuetan batezbe ariñegi iruditzen jat:

hemen
 lur
 hontan,
 munduaren zati
 berezi
 hontan,
 nago erroturik
 giza-erroak
 emanik (*Biziaren Erroetan*, 15; ikusi, esate baterako, 17, 27).

Iñoz olerkia bertso luzeetan asi dau, itzala eta aunditasuna iragarritz, baiña gero bertso oso laburretara makurtu da:

kantuz piztu bear ditut nire gogamen-izarrak
 kantuz eta txistuz jalki nire gozamen-nigarrak
 atoz nire aterpe zabalera eta entzunen duzu
 noiz eta nola zaidan sentipenez barnea ustu.
 barne-labean dira galdatu, mamitu
 nire aragiaren aragi, hezurren hezur bihurtu
 irakin
 gainez egin
 zuregana
 gizon
 jarion (emendik aurrera olan jarraitzen dau).

(*Gauean Oihu*, 12). Lenéngo laurak ibillera andikia dabe; bosgarreank eta seigarrenak, etenez, beste erritmo bat asten dabe, eta jarraian arrapalada-erritmoa sartu da.

Kanpoko erritmoa ezeze, barrukoa be ariñegia dala deritxat. Geien baten ikutu bat egiten dautso poesi-gaiari eta aurrera jarraitzen dau laster baten. «Ikutu» egitea eta ez eskuartean erabilli, ez larregi azaldu, poesiaren berezko era da. Baiña ikututze orrek gelditzeko beste izan bear dau, edegi izan dan poesiaren aurrean gelditzeko lain. «Gaztelu»k, ostera, ikutu ta aurrera egiten dau poesi-gaia edegiteko une naiko barik. Ez dago bearbada «extasiarik», poesi-lilluramenik. Kanpoko erritmo ariñegiak sarritan sinkopetu, eten egiten dau poesiaren ibillera. Eta barruko erritmoa urduriegia da, ez dau geienetan bear beste zabaltzen poesiaren misterioa.

6. *Izkuntza erabillera*. Euskerea berea dau eta zelan gura darabil olerki-gintzarako. Izenaz eta aditzaz baliatzen da batez be. Onek bere izkera giartsu biurtzen dau. Izkera, gaiñera, oso liraiña, dotorea. Edozein adibide:

nik bota
 hik bota
 galtzen badek
 nere onez,
 galtzen badet
 hire onez:

nor garaile azkenean?
 ez dik ajola nor danik
 galtzale ala irabazle
 nola joka denak baizik (*Biziaren Erroetan*, 31).

Olako neurri ta urritasun elegantea erabilpide guztietan. Beste adibide bat:

zu eta ni ez banaka
 batean gera salbatuko
 ez zillarrez ez urrez
 besarka gera
 onez aterako (*Geuean Oihu*, 12).

Poesi-idea edo gaia oizkoa ta egunerokoa izan arren (esate baterako, gai «sozialetan»), «Gaztelu»ren gai-erabilkera eta izkera beti da txukuna, jasoa ta duiña. Aipaturiko era errikoietan be dotoretasun bardiña agertzen da: Gipuzkoan ba da/Altzola (*Biziaren Erroetan*, 32); Joan nintzen Tolosara (*Gauean Oihu*, 30). Era onetan, alan be, bat ez jat atsegin: *Oihu bat* olerkiaren amaiera: orain bertan/emen/sekuletan./Amen/ (*Gauean Oihu*, 38). Olerkiaren mailla zabartu egiten da emen. Ikusi barriro be bakuntasun noblea:

galde batari
 galde besteari
 eta izarrak
 ixilik daude
 zeruan (*Gauean Oihu*, 21).

besterik ez,
 noizean behin
 zenbait zantzu
 azalera (*Biziaren Erroetan*, 17).

Askatasun andiz darabil maixuki menperatzen dauan errima edo oskidetza. Errima askea, beti barria. Eta erritmoaz eta itzen ezartzeaz batera nai dauan eran darabil izkuntza. Ona emen bertso gintza klasiku bat:

lo ago, lo-zorro,
 herri bejetala.
 noiz hedatu behar duk
 aidean hegala?
 iratzar adi, utz zak
 gaueko itzala. (*Gaueko Oihu*, 25).

Era askeagoaren adibide bat:

nire mintzoa ba doa
 eztu atzera
 egingo.

zure belarri-xuloa
 du leihoa
 argiz betetzeko.
 ez ahal du alperrik
 txangoa
 izango.
 ba da argi
 ba da aizaro:
 i t x a r o a
 du kabi bero (*Gauean Oihu*, 12-13).

Edu onetan taiututakoak dira geienak. «Belarri-otz madarikatu hori» esan dauSKU leen olerkariak (orain «zorrotz eta garratz» mintzatzeko ordua dalako). Baiña «belarri-gozamen» ori ezin eikean aldendu «Gaztelu»k. Bere-berea dau eta nai ta nai ez urtetan dautso. Eta emen, erritmo eta oskidetza artean, ez ete daukagu larkeririk? Oskidetzak (eta erritmoak) narraz daroala esan leike eta laban egiten dauala:

nahiz lorea
 nahiz hostoa,
 giza-dolorea
 eta bozkarioa,
 gizonaren barne-giroa
 eta jendaki guzien mintzoa:
 ibar-laiñoa
 dardar darion malkoa... (*Biziuren Erroetan*, 23).

ausnar
 irazi
 eho
 nahasi
 jan
 egosi
 aldiaren iraganean
 zerbait ikasi,
 gaur ezpada
 bihar
 edo etzi... (*Biziaren Erroetan*, 20).

Bearbada apur bat itsusiago aipatuko dogun zati onen bigarren partean:

oihu bat, oihu bat lazgarri
 ama guzien begietan
 hitz urratu guzietan
 lehertu da
 dolar-pilla otsetan
 TIO SAM
 Vietnam

jan ta jan
 pizti tzar atzaparretan
 hilketan
 arrapaketan
 han...
 han... (*Gauean Oihu*, 40).

Errimakerian jausten dala esango neuke. Oskidetzak agintzen dau, batzuetan, eta ez idea poetikuak. Eta bertsolaritzan edo erriko esakeretan sarri errima joko onek bere gatza euki arren, ez da poesi-bidea. Onen ondoan beste oar bat be egin bear dogu. Larregi lerrotzen ditu, erreskandan, itzak, biozondokoak edo ta oskidetzak eraginda:

zuri
 neri
 guri
 aita
 ama
 anaia
 arreba...
 digute porroka (*Gauean Oihu*, 39).

oihu bat entzun da
 oihu beltz
 oihu ori
 oihu zuri
 oihu gorri
 neri
 zuri
 guri
 mintzatzen zaiguna (*Gauean Oihu*, 37).

Era erretorikua da beardaba au. Eta azaltzen dauan sentipena benetako ta sakona izan arren, sentipen arrunta da geiago, poetikua baiño. Ez da iragarten poesirik olako bertsoetan, edo gitxirik baiño ez.

Nire azken oarrok gorabera, leengoa baieztu bear da barriro: nausi da «Gaztelu» izkuntza ta bertsoa menperatzean. Izkera bizkor ta liraiña. Gaiak duintasun maillara jasoten daki. «Gaztelu» ren olerki ta bertso-gintza tanke-ra gerra aurretiko pizkundean, poesi-giro jakiñean eratu zan lenengoz; gero maixuki landu izan eban oindiño (*Musika ixilla* eta *Olertiko* olerki jatorrak eta itzulpenak agertzen daben lez). Nik jakin aal izan dodanez (*Olerti* aztertuz) 1963'garrenean asi zan bertsogintza barrian, silaba-kopuru, erritmo ta oskidetza era barriz alkartzen. 1968'garrenean agertzen dira gai «sozialak» diralakoak. Baiña erak aldatuta be, bere erritmo ta oskidetza-zentzuna leen euki ta ezitakoak dira. Eta batez be sakonagoa dan izkera-txairotasuna. Orregaitik oizko «poesi sozialetik» urrin dabil.

Bere olerkietan aurkitzen doguna batez be izkera-lillura danez, zer izango litzakez beste izkuntzetara itzulita? Ori litzake poeta andi baten neurria. Poesiak poesi izan bear beti. Baiña leen esandako arintasuna, extasirik eza, ez dagokioz poeta andi izateari. Jakiña, beste izkuntzetan be poeta andiak oso gitxi dira. Eta, dana dala, «Gaztelu» ez litzake txiki geratuko beste askoren aldean.

LUIS AROSTEGI

ARREGI-tar JOSEBA

Heine, doixtar olerkariaren itzultzaille

«¿No has buscado en tu corazón la eternidad del dulce pasado? Porque lo eterno no es el porvenir, lo eterno es el pasado. Solamente lo pasado queda». Unamuno

Beti entzun izan dogu, ez dala atzera begiratu bear. Bai au be, egi aundia da. Bizia etengabeko igitze, eta aldakuntza danez, ezin da gizona atzokoz bakarrik bizi. Aurrera egin bearra dago eta batez be, gaurko iraultzaz beteriko gizarte larri-mindu ontan. Baiña, ezin da ezta, aurrera jarraitu uts-utsik, gure lengoko, gure aintziñako, gure igaroaren gomuta eta argitasunik barik. On izango yaku jakitea, gogoan artzea, gure igaroaren utsegiteak, barrero utsegite bardiñetan ez jausteko eta on egindakoari eutsiz, bizitzako aurrerabideak obetu eta egokitzeko amildegietan ain itsuan jausi barik.

Euzkerearen alorrean arduratuak edota euskal izatezko bizi-ametsez, ekintzatuak, aleginduak bizi garan euzkeltzale apurroi ondo etorriko yaku, noiz beinka, gure arbasoen urrats, lorratzetara maitasun eta arreta aundiz begiratzea areikgandik zer ikasirik ete dogun.

Ziur egon, tarteka-marteka zenbait zillar eta urre aurkitu izango dogula. Neurtitz alorrean be edan daikegu or-emenko ainbat iturburaren ur bizietatik. Arana-Goiri izan da gure artean, aberriaren, euskerearen alde beren abotsa jaso ebana. Olerkari ereintzallea. Larra-sasiturik zegon lur alper, galdua, beren adimen argi, zoliz laneratu eta lur larratu ori garbitu eta egokitze-ko lenengo atxurkadak emon ebazana.

Erria dau maite eta oiur dagi bulartsu, sendo; itxaropenezko abotsez eta, bioztun:

Azkatasun eguzkija
basotik urten da;
bere argija edonun
arin zabaltzen da...

Eta au entzunaz, euzkaldunak poztu dira eta illunpean bizi ziranak zorabiatu erantzuten dabe ederrik:

Itxartu zaiz, bizkaitarrak
Aupa, euzkeldun gustijak;
¡Gora, gora aintziñako lagijak!

Abots biotzgarri orren gartasunean erria esnatuz, aurrera zetorren erdigaldutako nortasuna sendatuz...

¿Ama ilko zara	Itxaron, ama;
Motzen azpian?	Jarijon biot
¡Ilko zara zeu	Neure odol au
Betiko?	Lenago!

Ordutik ona zenbat gurutze ta nekaldi! Zenbat egun argitze zoragarri eta zenbat gau-aldi luze! Baiña abandotarrari esker euzkerek aurrera darraigar bizi...

Euskal elertia, eragozpen oro gainduz, aurrera doa nekez ba'da be, aurrera...: irakurgai, olerti, erri-jakintza alorrean eta abar, aurrera.

Olertiari dagokionez Lizardi, Orixe, Lauaxeta euskal ortzeko gudaurreko izar argi lez ezagunak diranarren, ba'dira beste batzuk ba'dira bai aintzagarriak izanik, illunpetuak dagozanak. Orreitariko bat Arregi-tar Joseba, Barakaldo osteko meatz-erri gaur «LA ARBOLEDA» deritzanean jaioa 1893-3-22'an. S. Onaindia'k bere «EUSKAL LITERATURA» V garen alean diñon lez: «euskaltzale bikain, arat-onat urduri ibillitakoa», euzkaldunon zorionerako, doixtar olerkari Heine ospetsuaren Bitarte eta Itzuli'ko poemak euzkeratu eta, gero, «Heine'ren Olerkiak» izenburuz Bilbo'n argiratu Rementería'ren Lantegian, 1927'gko Garilla'ko 20'an. 19 orrialdedun liburu ederra, egille beraren Itzaurre eta Bitarte'ko 50 eta Itzuli'ko 31 olerkik osatzen dabena, guzti ori Moreno-tar Kepa'k marrazkitutako apaindurakaz.

Itzaurrean onela dazalsku bere itzulpen asmoa: «Orain urte batzuk dirala, nere buruan agertu zan asmoa ta nere biotzan sortu zan guraria gaur egiztu ta bete dira. Asmo ta gurari ori olerki-idazti au argitaltzea zan. Olertizalea baldin ba-zara, irakurle maite ori, noiz edo bein, olerki ederren bat irakurri dozula edo irakurten zagozala-ta, zure biotza dardaraka asi ta zure espanetaraño irribarreak edo igoten igarri edo dozuz. Orixe da, Heine-tar Endika'ren olerki samur-irritsuok lenengoz irakurri nituanean, nere biotzetik eta neure oldozmenetik, sortu eragin ebena.

Origaitik ba, biotz-dardarak eragitekoak eta gogamenetik irri-samurtxuak sortuerazotakoak ereisten dodazalako, olerkari ospetsu orren olerkitxorta bat, euzkeraz jantzita, zuri eskeintzea otu yat.

Gure euzkera gaiztoan, zarra ba-da be, orain arte aulako, idaztia egin danik ez dakit. Lenengoa ba-da ta, ori dala-ta, ausarditxoa ba-deritxozu nere arlo oni, asketsi irakurlea; lan au, daukozan utsune eta akatsak alde batera itxita, aurrean dozun idaztia, naimen onenagaz egiña dalarik, ontzat artu egizu; ikertu egizuz astiro ta adeitsu bere orriak, adipenez irakurri bere lerroak. Heine'k egindako bide bigun-arantzatsuetan bein, sartu ezker odo zuazalako; ta ez yatzu damutuko. ¡Bitxi bakan-ederrak Heine'k egiñiko olerkiak! —mintzo da itzultzalea— geituz: «Gogamena ta sentzumena garbi-garbi banatzeko berak eukan almena andia zan. Alde batetik biotza estuten dau bere maitasunak abesten dauzanean; baña beste aldetik oñaz-samin oyek bere bitza oskatzen dabela-ta, irribarreka asten da-ta, eztiki-maitero bere lepotik iñaka zorrotzenak egiten dauz».

«Orixe da bere izakera berarizkoa, ta origaitik doixtenrian baño pantzetarren artean daukoz bere geltzalle sutsuenak. Jayotzez doixtarra ba-da, gogamenez pantzetarra dala esan leiteke. Ta onek pantzetarrok, Heine adimen zolia ta gogamen argtsuduna dalarik, euren olerkari dan «Musset» ondoan egin dautsoe toki bat. Luzaro egon zan gexorik gure olerkaria; gexo zital baten erpe pean. Baña eriotza poliki-poliki bereganatzen ikusi arren, ezituan bere espanetatik irri-barreak iges egin, eta iñaka zorrotz eta sotiltsuenak orduan egiten zituan.

Azkenez, 1856'ko Otsaila'ko 17'an il zan Paris'en olerkari ospetsu ta gelgarri au».

Gaztelar izkuntzara berein itzulpen egin izan ziran gizaldi zear eta katalaneraz be, Apeles Mestres ospetsuak egindakoa, Intermezzo'rena 1895'ean. Alan be, Diaz Canedo'k esaten eban ez ei da oraindik Heine'ren gaztelarazko benetako itzulpenik egin.

Pardo Bazán emakume idazle entzutetsuak onela idatzi eban; «Oso erreza da Heine alperrikaltzea eta gatxa, ia eziña, guztiz illundutzea: ain da garaientsua eta ain agintzalea aren olerkera bitxia!

Arregi-tar Joseba'k egindako euzkeratzeari buruz zer esan guk? Egokiro itzuliak al dagoz doixtar maite-minduaren olerkitxo irriberatsu eta samintsuak? Samurtasun aldeti lilluragarriak dira euzkerazkoak be, eta doixtarren irri-mirrizko bere buruari egindako iñakatzearen antzeratze ori ez al dago aren neurrira egiña?

Irakurlea bera izan bedi epaikari, dastaturik Intermezzo onen euskal egiturazko samurtasuna edo gatzik-eza. Ona ba emen lenengoa:

1
Zoragarria,
Txit gelgarria
Agertu yatan
Orrilla;

2
Pipil guztiak
Oldar andiaz
Etentzen eben
Azala.

3
Aldi atantxe
Nere biotz au
¡Ene maitea!
Eten zan;

4
Nere biotzan,
Uste izan gabe,
Maitetasuna
Sortu zan.

5
Arrigarria,
Maitagarria
Izan zan, ziñez,
Loraila;

6
Egazti orok,
Txio-txioka
Erakusteben
Alaia.

7
Neuk be, orduan,
Pozaz urduri,
Agertu neban
Zoruna;

8
Jaulki neutsozan
Gaste ederrari
Nere lei bizi
Samurrak.

Itz gitxitan ona emen egokiro azaldua Loreillaren gelgarritasuna eta olerkariak nabaitutako poz urduri eta biotztasuna.

Dastatu daiguzan negarren bidez olerkariari sortzen yakozan lora arri-garriak:

Nere negarretik
Lora arrigarriak
Naroro ta ugari
Maiz sortuten dira;
Ta nere intziriak
Eta urretxindorren
Abesti samurrak
Bat egiten dira.

Maite bai ba'nozu
¡Ene neskatilla!
Lora orreik dira
Zuretzat izango;
Eta urretxindorren
Abesti zolia,
Zure levopean
Argi da entzungo.

Ez al da polita, bikainkiro egiñá'maitasunezko agiri labur au?
Eta ondorengo au be, labur-labur, bai eder!:

Larrosa, zitori,
Uso ta euzkia,
Dana maite neban
Pozorrez aspaldi.
Ta gaur zeu bakarrik
Maite zaitut ¡ene
Zitori, larrosa,
Uso, euzki ori!

Urrengo onetan oierkariak zelan iges egiten daberen bere oñazeak eta samiñak esaten dausku «begi baltz, eder, sakonak ikusten dauzanean»:

Zure begi baltz, eder, sakonak
Ikusten dodazanean
Nere oñazak eta samiñak
Iges dagie urrutira;
Zure espan gorri, me-bigunetan
Pa-egiten dodanean
Txit osasuntxu ¡kuntuntxu ori!
Ta nasai aurkituten naz.

Ta zure altzo samurran, barriz,
 Burua atsedean ezkeru,
 Zeruko pozak estaltzen dabe
 Nere gogoan, maitero;
 Baña jmaite zaut! ba'diñostazu,
 Ene laztana, orduan
 Begietatik malko garratzak
 Ugari sortuko dira.

LUDI AU DAN KIRTENA

Ludi au dan kirtena;	Ludi au dan kirtena;
Ludi au dan itsua;	Ludi au dan itsua;
Gero ta kirten	Iñoz etzaitu
Itsua goa	Ulertuko, bada
Ludi au.	Ez daki
Zure izakera	Zure laztanak
Ez dala ona	Emoten daben
Esan dau;	Zoruna;
¡Ene umetxua,	Ez daki zure
Gaiztoa zure	Mosuaq diran
Izakera...!	Sutsuaq.

ZURE BIOTZ GOZO

Zure biotz gozo,	Biotza sorkatu
Polit eta aizuna,	Eusten samintasun
Ludi onetako	Ta maitasunatzaz
Gauz guztiak baizen	¿Aiztu zara gaur zu...?
Polit eta aizuna	Andiena zein zan
Dan zure biotzoi,	Ez dakit ondiño,
Nerea izan zala	Baña andiegiak
Luzaroan, maite,	Biok zirala, jene
¿Aiztu zara gaur zu...?	Ba'dakit bai, ondo!

EZ DOT ZIÑESTEN

Ez dot ziñesten	Ez dot ziñesten
Jaupariaren	Jaupariaren
Zerua;	Urtzia;
Zure begi baltz	Zure biotza
Oyek bakarrik	Bakar-bakarrik
Maitea	Kutuna
Ziñezten dodaz:	Ziñesten dot.
Niretzat zerua	Ta beste Urtzirik
Diranak.	Ez daukot.

Gogo gaiztoa	Zure biotza
Ta gaiztokiko	Ta begi oyek
Nekeak	Ziñesten dodaz
Ere, ez dodaz	Sendoki
Ziñesten; bakar-	
Bakarrik	

IPARRALDEKO

Iparaldeko	Sorkalderriko
Mendi soil baten	Alde urrutian,
Jagiten da izai	Aitz gori baten
Bakar bat;	Aldatzan
Lozorro dago	Itun, bakarrik
Edurrezko oyal	Ta ixiltu dagon
Lodi ta zuriz	Palmondoatzaz
Jantzita.	Amesten.

Ez al da polita olerkariak asmatutako Iparaldeko izaiak Sorkalderriko palmondoatzaz egindako amesetea? Irakur orain urrengo au, betikoa dan ipuin au:

MUTIL ON BATEK

Mutil on batek	Neska liraiñak,	Ipuin zarra da
Neska lirain bat	Minduta, artu dau	Entzun dozuben
Maite dau;	Senartzat	Ipuiña;
Neskatxak baña	Lenengoz bere	Antziñekoa,
Beste gizon bat	Bidean idoro	Baña beti ipuin
Autatu dau;	Dauna;	Barria;
Eta au barriz	Mutillak jasan	Ta gizon bati
Eskonduten da	Bear azkenez	Bein jazozkero
Maite daun beste	Samin guztiak	Apurtzen dautso
Batekin	Itunez	Biotza

MAITASUNAGAZ

Maitasunagaz	Maitasunagaz	Baña biotza
Batzuek eta	Batzuek eta	Geiago mindu
Gorrotoagaz	Gorrotoagaz	Ta itunez bete
Bestezuk	Bestezuk	Daustana,
Oñaztu dabe	Zitaldu dabe	Iñoiz gorroto,
Nere biotza	Ogia eta	Iñoiz maite-izan
Eta aurpegia	Txola edenez	Enaun neskatil
Zurbildu.	Betetu.	Batek da.

EGUZKIAREN

Eguzkiaren	Maitalea dan	Ta dis-dis, sutsu
Argi-izpi pean	Gabeko izarrak	Zabaltzen dala,
Loto'ren lorak	Itxartuten dau	Muturik dago
Min dauko;	Lorea,	Lorea,
Bere burua	Ta agertzen dautso	Begiak goruntz
Makurtzen daula	Poli-poliki	Malkoz beterik
Gabaren begira	Bere aurpegi	Maitasun garrak
Dago	Leun-leuna.	Artuta.

Olerkitxo gatz-ozpindu arin ta politikak dira Bitarte onetan datozenak Arregi'k ain ederto euzkeratuak, baiña ezin naiz geiago luzatu ta ondorengo beste onegaz amaituko dot, gero ITZULIA'ko baten-bataz agurra emoteko:

ENE MAITEA

Ene Maitea	Zure gorputza	Zurekin batu
Jaube ezitsua,	Gaste-liraiñ	Zurean sartu
Ezin dot aiztu	Orain ere euki	Gura dau nere
Beñola	Nai nuke,	Gogo onek.
Zure gorputza,	Gogoa baña	Gorputzez, gogoz
Zure gogoa	Lurrean itxi,	Zugaz, betiko
Nereak izan	Nereagaz, ba,	Alkartuta, bat
Zirala.	Aski dot.	Eiteko.

EZ DAKIT ZER DAUN ADIRAZOTEN

Ez dakit zer daun adirazoten	Ozkor da aizea, gaba jausten da,
Sorkatuten naun itunak;	Rhin ibaia leunki doa;
Lilluratuta dot gogamena	Ta disdis dagi mendi-gallurrak
Antzin-ipuín bat dala-ta.	Sarkalde argi jorian.
Neskatil eder-gelgarriena	Urrezko orraziz orraztuten dau
Goi-goian dago jarrita;	Ta bitartean ba'dabes
Urre-uledia orrazten daula	Biotza austen daun eresindasun
dis-dagi bere bitxiak.	Bakanezko abesti bat.
Ontzikariren biotzeraño	Azkenez ontzi t'ontzikaria
Oñaz itxel bat sartzen da;	Iruntzen dabez uiñeak;
Ta ugarri arren ez dauz begiak	Ori da, beren abestiagaz
Mendi jagitik aldentzen.	Lorelei'k egin ebana.

ARRANTZALEAREN

ARRANTZALEAREN	Ez bildurrik izan	Itxasqaren antza
Alaba liraiña:	Ta burutxu ori	Biotzak ba'dauko;
Legorreatuizu	Nere biotzaren	Goibeiak, ekaitzak
Zure olontzia;	Gain-gaiñean jarri.	Oi-dirade bertan.
Zatoz ta jazarri.	¿Etzara goizoro	Eta bere ondo
Zaitetz nere alboan;	Ta kezkarik gabe	Sakontsuetan be
Zatoz eta itz daigun	Itxaso uzutsura	Txingi bakan asko
Eskuz alkartuta.	Ala barruraten?	Lo egiten dabe.

Euskal-elerti barruan, Arregi ez ezik, ba'dira beste batzuk be, doixtar olerkariaren ondoriozko urrats-bidez ibilitakoak: Aizkibel tar Bingen, batik-bat eta Satarka, ta abar. Mirande bera be. Gogoan artzekoa da Arregi'ren lana ta, beraz argiratzekoa irarpen barri bat egiñaz.

MUNIATEGI'tar SABIN